

# KARL MARX. TEORIA ETA POLITICA

.

**Jon Sudupe**

**KARL MARX**

**Teoria eta Politika**

**Euskaltzaindia  
Bizkaiko Aurrezki Kutxa**

© JON SUDUPE  
© BIZKAIKO AURREZKI KUTZA  
Espainako Enparantza, 1  
BILBAO-1

ISBN: 84-505-0666-2

D. L.: 1918-84

Imprimatzaile: Imprinta Boan, S. A.  
Particular de Costa, 12-14, 7.º  
48010-Bilbao

*Itziar, Naiara, Usua eta Nereari*



*Gure teoria eginez doan teoria bat da, ez buruz ikasi beharreko dogma bat.*

(ENGELSEN ESKUTITZA, 1887)

*Marxismoarekiko idikiak diranak Marx berpentsatu egiten dute gure zirkunstantzi konkretuetan. Ez dute bat batean eta besterik gabe Marxek esandakoa onartzen, lehendabizi pentsatu egiten dute, ta gero, beharrik baldin badago, pentsatu hori zabaldu ta osatu. Ez dira batere dogmatikoak, itxiak, edozertara idikiak daude, dinamikoak dira.*

(RIKARDO ARREGI, Jakin 24gna. 1967)

## 100 URTE

Orain dela ehun urte hil zen Marx. 1883ko martxoaren 14ean, hain zuzen. Aurten betetzen da, beraz, bere heriotzaren mendeurrena.

Ospakizun hau dela eta, ekintza eta ihardunaldi apartik egingo da munduan zehar ezezik, geure artean ere. Baina Marxen izena hitzetik hortzera erabili arren, zenbatek ote dakigu zuzen nor zen eta zer egin zuen? Heriotz mendeurren hau aukera ezin hobea dela iruditzen zait atzera Marxengana itzultzeko. Hain eragin eta garrantzi handia izan duen gizonaren lanak berrirakurri eta sakonago aztertzeko. Horixe izan da nire asmoa behin-behineko saio honetan: Marx hobeki ezaguteraztea. Beraren bizitzako pauso eta ekarpen nagusien berri labur eta kritikoki ematea.

Arrazoi praktiko eta teorikoez bultzarazi naute lantxo hau idazte-  
ra. Arrazoi praktikoak, alde batetik: euskaldunok ez dugu une honetan Marxen biografiarik geure hizkuntzan. Gotzon Garateren *Marxen marxismoa* —euskaraz lehenengoa berau— agortua dago aspaldion. Hutsune hori nolabait estaltzera eta betetzera natorkizue, lehen-lehenik.

Arrazoi teorikoak, bestetik: bizi garen mundu hau konprenitu eta aztertzeko —eta aldarazteko, jakina— ezinbestekoa da Marxen obra oso kontuan edukitzea. Marxek lur berri bat aurkitu eta jorratu zuen zientziaren mailan, «Historia» izenez ezagututakoa. Aurkikubntza hau giza kondairan aurregabeko gertaera politikoa eta teorikoa izan da.

Marxek, halare, hazia erein besterik ez zuen egin. Harez gero, erne eta hazi egin da marxismoaren landarea, eta fruitu narorik ezezik, ustelik ere eman du. Marxen izenean, erreboluzio eta aurrerapen ederrik ezezik, hutsegite eta basakeria handiak ere egin izan dira, zoritxarrez. Horrexegatik, hain zuzen, marxismoa ez dago oso modan gaurregun. Are gehiago: paradigma marxista krisi sakon batek jota dago. Bere historialdiko larriena, dudarik gabe.

Krisi politikoa, lehenengo: Marxek amesten zuen gizarte komunis-  
tarik ez baita obratu eta hezurramitu. Marxen teoriatik «sozialismo errealer» (Gulag) tarte eta amiltegi izugarria dago. Nekez ezkon dai-  
teke, bestalde, 1917ko Urria Stalinen ankerkeriekin, edo eta Jaruzelskyren errejimen zapaltzailearekin. Horregatik, askok eta askok gal-  
dera berbera egiten diete beren buruei: nork garantizatzen digu guri,

eraiki nahi den «bestelako» sozialismo hori ez dela soviatarrena bezalakozea izango?

Krisi teorikoa, bigarrenik: tradizio teoriko marxista ezin ukatuzko hutsune eta akats larriz beterik baitago. Marxismoak ez du jakin bere historialdi dramatikoaren esplikaziorik ematen. Baina ezin daiteke ezertxo ere gertatu ez balitz bezala segi gehiago. Ehun urte nahiko denbora bada balantze bat egiteko. Aukera ederra dugu hauxe, marxismoak non asmatu eta non huts egin duen zehatz-mehatz aztertu eta jator aitortzeko.

Euskal Herrira itzuliz, guztiz nabarmena da, euskal langile mugimenduaren historian, kulturgintza torikorik eza. Pentsamenduaren munduari dagokionez, gure tradizio filosofiko marxista hutsa edo hutsaren hurrengoa da. Gure belaunaldia berandu eta trakets iritsi zen marxismora. Gure pausoak bideratu eta gida zitzaketen «maisurik» ez dugu izan geure artean, frankismo garaiko urte zail eta gogorretan. Ez Lukacsik, ez Gramscirik eta ez Althusserik eduki dugu hemen. Estereotipatua, dogmatikoa eta arlotea izan da guk ezagutu eta, zenbaitean, geureganatu dugun marxismoa.

Althusser pentsalariaren pasarte hau gutakoren batek baino gehiagok onartu eta aldatuko luke hona: «Hizkuntza derrigor gainestruktura bat bihurtu nahi zutenen zela kondentzen duten orri bakun batzuen artean, somatu, genuen klase kriterioa ez zela kriterio mugagabe bat eta zientzia, are Marxen obrak berak ere, beste edozein ideologia bezala harrerazi nahi zizkigutela. Ezinbestekoa zen atzerantz itzuli eta, erdi nahasturik, oinarrietara jotzea» (*Pour Marx*, 12 or.).

Hona hemen gure «euskal miseriaren» seinalerik hoberena: Marx hil eta ehun urtera, beraren obra nagusia, *Kapitala* alegia, euskaratu gabe daukagu oraindik. Badugu itzulpen bat edo beste, baina, tamalez, oraindik gutxitxo. Xabier Kontanak euskaratuak ditu *Alderdi Komunistaren Manifestua* eta *Lan alokatua eta Kapitala-Alokairua, prezioa eta irabazia*. Eta Mario Onaindiak, bere aldetik, *L. Bonaparteren Brumairearen hamazortzia* eta argitaratzeko dauden liburu pare bat (*Frantziako gerra zibila* eta *Frantziako klase gatazka*). Eta kitto. Horregatixe, bere heriotzeko mendeurren honetan Marxi egin diezaiokegun omenaldirik bikainenetako bat beraren izkribuak euskaraz argitara ematea litzateke. Hori eta gehiago merezi luke gure alde-tik.

Marxismoa era desberdinetara irakurria eta interpretatua izan da. Egon, irakurketa «errugaberik» (inozenterik) ez dago. Irakurlea berehala konturatuko denez, Marxen interpretazio baten alde egin dut apostu hemen. Egin dudan aukera eztabaidagarria izan daitekeela bakadakit.

Marxen testu-zati eta pasarte ospetsuenak hautatu ditut, beraren bizitzan eta obran hartzen duten leku zehatza agerrerazteko. Hamaika aldiz entzun eta ibiliak gara Marxek hau esan zuela eta bestea esan zuela, izkribu horien textuinguru politiko eta teorikoa kontuan hartu gabe



askotan. Denboran fetxatu gabeak, leku eta une jakin batean kokatu gabeak balira bezalaxe.

Baina, «zita famatuak» ere ez dira aski. Sustrai bila, Marxengama itzuli beharra dago berriz ere, bai, baina bera baino haruntzago joateko. Bizitzaren aldean atzeratuta ez gelditzeko (Lenin). Puntu askotan, Marx desmitifikatu, kritikatu, eta beharrik baldin badago, gainditzeko.

Batek daki Marxen alde eta kontra zenbat orri idatzi den. Marx eta marxismoari buruzko bibliografia neurrigabea da. Ez dago inola ere informazio guzti hori hemen jaso eta biltzerik. Horregatik, beharrezko eta oinarrizkotzat jotzen dudana (euskaraz, espainieraz eta frantsesez) baino ez dut aipatu. Interesgarriak iruditzen zaizkidan egile eta liburu eskuraerazak. Saiatu naiz, baitare, orri barrenetan komenigarri edo argigarri izan daitezkeen azalpenak eta oharrak egiten. Irakurketa errazteko, liburuen tituluak jarri ditut soilik,aldi bakoitzean liburuko pasarte guztien aipamenak egiten ibiltzeke. Euskaraturik dauden textuetatik jasotako zatiak eta aipuak, itzultzailearenak beraienak dira.

Saiakera hau euskaldun sozialistentzat egin dut batipat. Haatik, baita, arazo sozialez eta politikaz arduratzen diren euskaldun ikasientzat ere, marxista izan ala ez. Txillardegik esango lukeenez, Marxen ezaguera kultura arazo bihurtu da 1983an, eta hein batez, denok gara «marxistak» gauregun.

Biograforik onentsuenek (Mehring, McLellan, Cornu, Elleinstein, Nicolaïevski) idatzi dutena gogoan izanik, burutu dut ondoko hau, goratzarre modura,

Marxen heriotzeko mendeurrenean  
Zumaia, 1983

LEHEN PARTEA

MARX GAZTEA  
(1818-1844)

## 1. Kapituluia

### LIBERALISMO ERRADIKALA

(1841-1843)

Filosofiak ez du hau isiltzen. Berea egiten du Prometeoren fede aitortpena: «Hitz batean, jainko guztiak gorrotatzen ditut». Bere fede aitortpen hori da jainko gorentzat gizonaren autokontzientzia ezagutzen ez duten lurreko zein zeruko jainko guztien kontrako bere ezaugarria.

(Marx, *Doktoradutzako Tesia*, 1841)

Prentsa libreia, beti ernai dagoen herriaren izpiritua da.

(Marx, *Rhenaniako Kazeta*, 1842)

#### 1.1 HAURTZAROA

Karl Marx Rhenaniako Treverisen jaio zen 1818ko maiatzaren 5ean, goizeko ordubietan, Brückergerasse kaleko 664 zenbakian<sup>1</sup>.

Treveris, Rhenania osatzen zuten lau departamentuetako baten hiriburua zen. Mosela ibarreko hiri koskor xarmangarri honek hamabiren bat mila bizilagun zituen, berauetatik ehuneko larogeita hamairu katolikoak. Alemaniako hiririk zaharrena, erromatarren bizitoki izana zen, eta oraindik ere haien eraikin eta aztarren asko da bertan.

<sup>1</sup> Marx jaio izan zen etxea, museo eta biblioteka bihurturik dago egungo egunean. Marxen argazki, gutun eta jatorrizko eskuizkribu ugari gordetzen da bertan.

Marx gaztearen hezikera, ibilbide eta eboluzioari xehetasun guztiez jarraitzeko, ezinbestekoa da Auguste Cornuren *Carlos Marx-Federico Engels* (I. del libro, La Habana, 1967) liburu mardul trinkora jotzea. Berau da orain arte egin den azterketarik osatuena. Marxen biografiarik klasikoena, honako hau da: Mehring, F. *Karl Marx*, editions sociales, Paris, 1983. Gaztelaniaz, agortuta dago.

1794etik 1814erarteko frantses okupazioak herrialde moderno eta liberal bihurtu zuen Rhenania. Napoleon erortzean, Vienako Kongresuak 39 estatu koskorrez osaturiko Germaniar Konfederazio bat sortu zuen, Austria eta Prusiaren buruzagitzapean. Horren ondorioz, Rhenania Prusiari erantsia gelditu zen. Marx, ba, prusiar jaio zen ofizialki.

Inglaterra eta Frantziaren aldean, Alemania herri atzeratua zen ekonomi eta politika mailan hemeretzigarren mendearen lehen erdialdean. Atzerapen eta ahulezia historiko honengatik, bere batasun nazionala eta iraultza burgesa mamitu eta burutu ezinda zebilen.

1815eko irailaren 15ean, Errusiako Tsarrak, Austriako Enperadoreak eta Prusiako Erregeak Aliantza Santua izeneko paktua izenpetu zuten Parisen. Jainkoaren izenean, «asmo erreboluziozale eta nazionala» guztien kontra burrukatzea zen beren helburua. Gerxeago, Inglatterra ere elkartu egin zitzairen. Aintzinako erregimena berrezarri nahi zuen «Aliantza laukoitz» honen eragile nagusia Metternich izan zen.

Prusia, hortaz, europar erreakzioaren zutaberik gogor eta sendoenetakoa zen 1815ean. Friedrich Gilen IIIak tirano moduan gobernatzen zuen. Estatu aparatua aristokraziaren esku eta zerbitzuan zegoen. Rhenanian, halare, erresistentzia gogorra aurkitu zuen prusiar gobernamenduak. Herri aurreratua izanik, rhenaniar burgesiak ez zuen atzera feudal absolutismora itzultzerik nahi.

Haserre bideak eta tirabirak ez ziren baretu eta eztitu harik eta Prusiak Aduana Batasuna (Zollverein) ezarri zuen arte. Rhenaniak, autonomi erreibindikazioak albora utzi, eta ekonomi hazkunde itzela ezagutu zuen handik aurrera.

Industrial garapenarekin eta hirien hazierarekin batera langileria urbanoa sortzen hasi zen. Aldi berean, eskulangile edo artisauen egoera txartu egin zen bilakaera honen ondorioz. Honela, monarkia eta nobleziaren aurrez-aurre, bi klase sozial desberdin eta aurkako ari ziren indartzen: burgesia eta proletargoa, biak politikaren mailan zapalduak eta baztertuak.

Marx judu familia baten altzoan jaio zen<sup>2</sup>. Beraren aita «Voltaire eta Rousseau buruz zekizkien» liberal ilustraziozalea zen. Heinrich Marx, abogatu ezaguna bezain estimatua zen herrian. Hauzitegi Goreneko abogatu eta Casino literatur elkarteko bazkidea, besteak beste. Ama, Henriette Pressburg, bihotz oneko etxekoandre tradizional bat zen. Dirudienez, Karl eta bere amaren arteko erlazioak nahiko hotzak izan ziren beti.

1815ean, Aliantza Santuaren neurri diskriminatzaileak aplikatuz, prusiar gobernuak funtzio eta postu publikoetarako sarrera galerazi zien juduei. Marxen aita, bere lanpostua ala erlijioa, bietan bat hautatu beharrean gertatu zen; abogatusari eta bizibideari uko ez egitearren,

<sup>2</sup> A. Cornu, Carlos Marx-Federico Engels, aip. lib., 49 or. eta hurrengoak. Ikus saio honen amaian Marxen zuhaitz genealogikoa.

protestantismora konbertitu zen. Karl, bere senideekin batera, Treveriseko eliza ebanjelikoan bataiatua izan zen 1824ean, eta leku berean konfirmatua 1834ean.

Marxen lehen urteak ez dira oso ezagunak. Badirudi haurtzaro zorionsua izan zuela burgesia liberalaren gizarte ingurune aberats eta erosoan. Txikitan giro arrazionalista eta liberala bizi izan zuen etxean nahiz ikastetxean. Marxtarrak burges txikiak ziren. Neskame bi zituzten etxeokoa zaintzeko, eta mahastirik ere bai hiri inguruan.

Familia numerotsua zen. Senidetan zaharrena, Moritz David, 1815ean jaioa eta 1819an hil zen. Karlek 1835ean etxetik aldegin aurretik, zortzi anai-arreba bizi ziren: Sophia (1816an jaioa), Hermann (1819), Henriette (1820), Louise (1821), Emilie (1822), Karoline (1824), eta Eduard (1826). 11 urtean 9 haur, halajaina!

Bere lehenengo ikastetak Treveriseko eskola luteranoan egin zituen. Batxilerra ere bertako lizeoan estudiatu zuen, 1830etik 1835era<sup>3</sup>. Ikasle buruargia eta azkarra izan zen, nonbait, baina inola ere ez eskolako «beti-lehen» horietakoa.

Errebalidako frogen artean, honako hauek ezarri zizkieten: Erlijioan, San Juanen Ebanjelioko pasarte bat komentatu behar izan zuen; latin eta griegoan, Horazio eta Iliadaren zati batzuk itzuli; Historian, Servius Tullius eta Constantinoplaren konkistari buruzko galderei erantzun; Aleman disertazioan, «Ogibide aukerapenaren aurrean gazte baten burutapenak» izeneko gaia landu behar izan zuen. Notarik onek aleman eta latin hizkuntzatan atera zituen. 1835eko abuztuan, erdi mailako ikasketak bukatzerakoan, 17 urte zituen Marxek.

Txiki-txikitatik ezagutu zuen Ludwig von Westphalen, aristokrata eta Gobernu Kontseilaria. Auzoa eta familiako oso adiskide zenez, Marx maiz joaten zen haien etxera jolasean egitera. Gizaseme argi honi estimazio eta begirune haundia izan zion beti. Beronengandik hartu zuen aintzinako idazle klasikoei izan zien maitasun sakon eta berezia.

Sasoi honetan maitemindu zen Marx, Ludwig von Westphalen honen alaba Jennyrekin. Ile betz sedatsua eta begi berdeak zituen neska polit eta adoragarria zen Jenny, «Treveriseko neskarik ederrena», jendeak esatera. Behin batez, herriko miss edo «Dantzako erreginatza» hautatu zuten. Karl ere, gazte bitxia eta berezi samarra izaki<sup>4</sup>, oso begi onez ikusten zuen Jennyk. Judua zelako edo, baroiaren etxeko

<sup>3</sup> Behiala jesuiten ikastetxea izan bazen ere, Estatuaren eskola bilakatua zen 1815az gero. 400 ikasleetatik gehienak katolikoak ziren. J. H. Wyttenbach, bertako zuzendaria, pentsamolde liberalekoa zen, eta pentsa daitekeenez, Karl gazteak hartu zuen irakas-kuntza ere aurrerazalea eta ilustrazioko ideiez kutsaturikoa izan bide zen. Marxen pentsaeraren sorburuetan XVIII mendeko materialismoak eta ateismoak izan zuten eragina eta pisua ikusteko: Lecompte, *Marx et le baron d'Holbach*, Puf, Paris, 1983.

<sup>4</sup> «Beltza» ezizenez ezagunagoa zen Marx lagunen artean; larrua, ilea, begiak, dena beltz kolorekoa baitzen harengan. Alabek ere Mohr deitu ohi zioten gero. «Osaba Engelsi», berriz, Generala.

zenbait aurka atera zitzaizkion, ez baitzuten inola ere nahi harekin ezkon zedin. 7 urtez iraun zuen, halatan, Karl eta Jenyren ezkongaialdiak.

1835eko urrian, Bonneko Unibertsitaterantz abiatu zen Marx Dertxoko karrera egitera. Treverisetik Bonnerako bidaia itsasuntziz egin zuen, Rhin beheara.

## 1.2 EZKER HEGELZALEA

Bonnen urtebete egon zen Marx. Ikasle bohemio eta parrandazalea izan zen, nonbait. Itxura duenez, garagardotegi eta dantzalekuetan sarritan ibili ohi zen. Behin, ikasle aristokrata eta erreakzionario baten kontrako duelo batean zauritua gertatu zen. Guraso eta senideentzat ez zuen axola haundirik, oso tarteka eskutitzen bat, eta kitto. Aitak, bere semearen osasun izpiritualaz arrunt kezkatutik, kontseilu onak eman ohi zizkion kartaz. Ez alferrik!

1836ko uda Treverisen pasa zuen, Jennyren ondoan, eta izkutuan, ezkontitza eman zioten elkarri. Hurrengo ikusturtean, kurtsua alferrikaldu zuelako edo, Berlinera bidali zuen aitak, Bonnen hasitako lege ikasketak jarraitzera. 18 urteko mutil gaztea zen, dilijentzian 5 eguneko ibilaldia egin ondoren, Prusiako hiriburura iritsi zenean.

Berlinek 300.000 bizilagunetik gora zituen garai hartan. Bertako Humbolt Unibertsitatea Alemaniako famatuena zen 1830. urteetan, Hegelek berak irakatsi izan baitzuen han 1818tik heriotzararte<sup>5</sup>. Berlin merkatal eta administralgune garrantzitsua zen, baina industria kaskarra zuen artean.

Malenkoniak eta tristuraz beteak izan ziren Marxen lehen egunak Berlinen. 1837ko udazken aldera, gainera, krisialdi gogorra jasan zuen. Jenny gaiso zen, eta urrun. Ikustera joaterik ez, berriz! Poemarik franko inspiratu eta izkribarazi zion Jennyrenganako amodio gartsuak: poema guztiz erromantikoa, sirena, zaldun eta izarrez beteak. Medikuen aholkuak entzunez, mendi aldera joan zen atsedenditxo bat hartzera<sup>6</sup>. Urte honetan, *Eskorpio eta Felix*, humorezko irakurgaiaren zati batzuek ere idatzi zituen; prusiar erreakzioaren kontrako satira honi, txarto taxutua egonik ere, ez zaio interesik falta<sup>7</sup>.

<sup>5</sup> HEGEL, G. W. Friedrich (1770-1831). Aleman filosofia. Jena, Heidelberg eta Berlineko Unibertsitateetan irakasle izana. Erreboluzio frantses zalea; ideien munduan eragin nabarmen eta bortitza izan duen obraren egilea. Beraren filosofi lanik garrantzitsuenak *Logikaren Zientzia* (1812-16), *Izpirituaren Fenomenologia* (1807), *Deretxo Filosofiaren oinarriak* (1821) eta *Zientzia filosofikoen Enziklopea txikia* (1830) dira.

<sup>6</sup> «Biriketako ahuleziagatik eta aldizkako odol bomitoengatik» soldaduskatik libratu egin zen.

<sup>7</sup> *Escorpion y Felix* (novela de humor), Tusquets, Barcelona, 1971.

Aitaren esanei kasu eginez, Zuzenbide Fakultatean matrikulatu eta Savigny eta Gans irakasleen kurtsuak karraitu zituen 1836an. Bai bata zein bestea ondotoxo ezagunak ziren. Aleman pentsamendu juridikoa-  
ren bi joera nagusiak ordezkatzan zituzten: Karl von Savigny Deretxo-  
ko eskola historikoaren teorigilerik ospetsuenetakoa zen; Eduard  
Gans, berriz, ezkerreko hegelmaterik ezagunetarikoa.

Marx Berlinera heltzean, hegelmateroa bere goren puntuan eta gailu-  
rrean zegoen. Berau zen nolabait prusiar Estatu monarkikoaren filoso-  
fia ofziala<sup>8</sup>. Hegel kontzientziaren eta kanpoko munduaren arteko lo-  
tura aurkitzen ahalegindu zen. Berarentzat, egia unibertsalaren  
zientzia da filosofia. Etengabe aldatuz eta bilakaturik doan munduan  
txertatzen eta gauzatzen da Izpiritua. Jakintza absolutua eta historia-  
ren motorra da Izpiritua; beronengandik dator ezagumenduaren arra-  
zionaltasuna: «erreal den guztia arrazoizkoa da eta arrazoizkoa den  
guztia erreal» esan ohi zuen. Historiaren helbururik gorena Estatu  
da, berau baita Izpiritua erabateko burutzapena: «Estatu zera da:  
errealitatean kontzienteki obratzen den izpiritua, jainko erreala, lurta-  
r dibinoa».

Dudarik gabe, noizbait eta nonbait jaio behar da eta pentsatzen  
hasi. Marx pentsamendura jaio zeneko aldia eta tokia 30etik 40erarte-  
ko «aleman ideologiaren» mundu berezi hau izan zen. Denik eta mun-  
durik mistifikatuena, ideologiaren Europar zegoen mundurik alienatue-  
na, eguneroko errealitate arruntetik aldenduena, gonbaraziorik ere  
gabe. Fikziozko gizarte giro honetan, bada, jaio zen Marx, eta pentsa-  
zteari eta idazteari ekin<sup>9</sup>.

Marxek ongi erakutsi zuen geroago, bere helduaroko obretan, zer-  
gatik zegokion Alemaniari kontzientzia superideologizatu hau eta ez,  
adibidez, Frantzia edo Ingalaterrari: Alemaniaren atzerapen ekonomiko  
eta politikoa, eta atzerapen honi zegokion klase sozialen egoera-  
gatik, alegia.

Marxek, 1837ko azaroaren 10eko eskutitz famatuan aitari idaz-  
ten zionez, hasieran nazka ematen omen zion Hegelen «melodia goza-  
kaitz eta groteskoak». Baina, orduko giroak zirikatuz eta bultzatu-  
rik, «etsaiaren besoetara» jaurtikia aurkitu omen zen, bere gogoaren  
kontra. 1837. urtearen azkenetan, bada, «hegelzalea» zen Marx! Hala

<sup>8</sup> Garai honetan Alemaniari pentsaera mailan bizi zuen «hegeliar zorabioaz» min-  
tzo da Engels: «Erraz adi daiteke zein haundia izan behar zuen Hegelaren sistema honen  
durundiak Alemaniarena moduko atmosfera batetan. Lasterketa triunfal bat izan zen,  
dekada osoetan iraun zuena eta Hegelen heriotzaz, ez eta inondik ere, bukatu ez zena,  
Aitzitik, 1830etik 1840ertertean heldu zen, hain zuzen ere, «Hegeliada» bere en-  
peradoregoa eskusiboaren tontorreraino». Ik. *L. Feuerbach eta aleman filosofia klasi-  
koaren amaiera*, Mugalde, Hendaia, 1975. X. Kintanak itzulia.

<sup>9</sup> L. Althusser, *La revolución teórica de Marx*, Siglo XXI, Mexico, 1968, 60 or (Bere  
garaian, alde eta kontra eztabaida bizi eta gordinak sortu zituen liburu honen euskal  
itzulpena Mario Onaindiak burutu zuen Cacereseko gartzelan. Noiz emango ote argita-  
ra?).

eta guztiz ere, Hegeli jarraituz, Deretxoaren filosofia bat idazteari ekin zionean, saio haren «absurdutasuna» aitortu beharra izan omen zuen.

1830-1840 urtealdiaren azken aldera, hegeldar eskola bitan bereizi eta zatitu zen: eskuin hegala, bata, eta ezkerrekoa, bestea. Politikoki kontserbadoreak, kristautasunaren eta prusiar Estatuaren aldekoak ziren, lehenengoak. Ezkertiar intelektual aurrerakoi eta liberalak, berriz bigarrenak. Hegeldar zaharrek Hegelen «sistemari» ematen zioten garrantzia; hegeldar gazteek, aldiz, «metodo dialektikoari» (Engelsen hizkera erabiltzeko). Berauen artean, Bauer, Feuerbach, Cieszkowski, Ruge, Stirner eta Hess aurkitzen ziren<sup>10</sup>.

Ezker hegalezalea, sozialki, burgesia txikiaren sektore erradikalizatuenak osatzen zuen. 1838an A. Rugek eta T. Echtermeyerek sortutako *Aleman Urtekariak* zen beren organoa<sup>11</sup>.

Zenbait hegeldar gaztek «Doktorklub» izeneko elkarte eratu eta osatu zuten Berlinen. Kafetegiren batean bildu ohi ziren filosofari, historiarari eta teologoek parte hartzen zuten bertan: Gans, Bauer, Hess, Rutenberg, Köppen, eta abar. Hauexek izan zituen Marxek bere lehen maisuak eta gidariak filosofiaren mailan. Marx bera ere lagunarte atsegin hartan ibili ohi zen, doktor izan ez arren. Denetan gazteena zen, gainera: 20 urte besterik ez.

Itxuraz, ez zen filosofiaz bakarrik hitzegiten bilera mugitu haietan. Edan here bapo egiten zen, bai eta parranda ederrik bota ere, polizi paperetatik ageri denez. Behin, mozkorraldi haundi baten ondoren, 24 ordu giltzapean egin behar izan zituen Marxek, Ziurrenik, horretan gatzatzen eta xahutzen zituen bere txanponak.

Filosofiazko jantziaz maskaratutik azaldu ohi zen oposizio politikoa Alemanian. Baina, Engelsek ongi zioenez, «ez zen filosofiazko helburu abstraktuen alde burrukatzen; oraingoan, zuzen-zuzenik, heredaturiko erlijioari eta zegoen Estatuari akabua ematea zen arazoa»<sup>12</sup>. Filosofikoki, igoten ari zen burgesia erradikalaren ordezkari eta adierazgarri zen ezker hegalezalea.

«Denbora haietan politika oso gai arantzetsua zen», horrexegatik liberalismoaren eta erreakzioaren arteko burruka erlijioaren mailara lerratu eta pasatu zen: «(tiro printzipalak erlijioaren kontra zuzentzen ziren». Friedrich Gilen IVak «Estatu kristauaren» teoria bere egin zuen. Kondizio haietan, erlijioaren kontrako burruka, burruka politikoaren era bat zen. Ezker hegalezalearentzat, sistema politiko jakin bat

<sup>10</sup> Ezker hegalezaleari buruz gehiago jakiteko, ik. A. Cornu, aip. lib. 103 or. eta hur. Baita D. McLellan, *Marx y los jóvenes hegelianos*, Ed. Martínez Roca, Barcelona, 1971.

<sup>11</sup> RUGE, Arnold (1802-1880). Aleman pentsalaria. Ikasle mugimendu liberaletan ibili eta gero, bere ideiangatik gartzelatua. 1838an, Halle hirian, *Zientzia eta Arterako aleman urtekariak*, fundatu zuen, gero *Aleman Urtekariak* izenez, ezker hegalezalearen adierazpide nagusi bihurtuko zena.

<sup>12</sup> F. Engels, *Ludwig Feuerbach*, aip. lib., 128 or. eta hur.



zuzenesten zuen ideologia bat besterik ez zen erlijioa. Gudu ideologiko etengabea egingo diote, beraz.

David Strauss, aleman teologoak, ideia mailan eragin sakona izan zuen *Jesusen bizitza* deitu liburua argitarazi zuen 1835ean. Kritika historikoan oinarrituz, ebanjelioak judu herriaren aspirazio eta ametsen agerpena besterik ez zitzaizkion iruditzen. Jesusi, historikotasun guztia ukatuz, balio sinbolikoa besterik ez zion aitortzen.

Bruno Bauer teologiaren eta Hegelen filosofiaren arteko sintesia egiten saiatu zen. Pentsalari hau Marxen maisu izan zen Berlinen, baita tertuliakide ere Doktorklubean. Berarentzat Testamentu zahar eta berriak ez dute inolako errealtasun historikorik. Greziar eta erromatar mundua itxuraldatu zuen kristautasuna jadanik ez da kontzientziaren aurreramendurako oztopo bat baizik. Kritikaren bidez, gizateria eta Estatu prusiarra askatu egin behar dira kristautasunetik. Filosofia kritikoa zeregina elementu irrazional guztiak ezabatzea da. Honela, Historiaren motore eta aurrerapenaren eragiletzat zeukan filosofia kritikoa Bruno Bauerek.

Ezkerreko hegelzaleak susmagarritzat hartu izan zituzten berehalaxe. Prusiar gobernu erasoka ari zitzairen. Piskanaka, liberalismo erlijiosotik liberalismo politikora eboluzionatu zuten. Erlijioaren kontrako burrutatik ekintza politikora igaro ziren.

Parte haundia izan zuen aldaketa honetan August von Cieszkowskik, ekintzaren filosofia lantzean. «Praxiari» lotutako arma politikotzat zeukan filosofia. Marxek, nahiz eta izenik ez aipatu, ideia ugari jaso zuen poloniar pentsatzaile honengandik.

Marxi bere aita Heinrich 1838ko maiatzaren 10ean hil zitzaion, biriketako minbiziak jota. Bizitza guztian gorde zuen harekiko oroitzapen samurra. Marxek berekin eraman ohi zuen beti aita zenaren argazki bat, haren alaba Eleanorek aitortu izan zuenez<sup>13</sup>

### 1.3 DOKTORADUTZAKO TESIA

Marx, Berlinen eman zituen lau urteetan, Deretxo ikasketak bazterrerara utzi eta buru-belarri murgildu zen Filosofiaren estudioan. Hegel dar gazteak, kristautasuna kritikatzekoan, gero eta gehiago arduratu ziren greziar filosofiaz, helenismo denborakoaz, bereziki. Marxek ere, bere maisu Bruno Bauerek bultzatuta edo, Epikuro eta Demokrito hautatu zituen bere doktoradutza tesirako aztergaitzat.

1840-1841 bitartean burutu zuen *Naturaren Filosofiaren diferentzia Demokrito eta Epikurorengan* delako ihardunaldia krisialdi baten azterketa da. Krisialdi historikoa: greziar munduaren amaiera, esklabuzaren oinarrietan eraikitako gizarte haren gainbehera eta hondamen-

<sup>13</sup> Marx hiltzean, honen zerraldean ipini zuen Engelsek erretratu hori.

dia. Eta krisialdi filosofikoa: Aristoteleren filosofi enbor «usteletik» sortutako adar desberdinak, eszeptizismoa, epikureismoa eta estoizismoa.

Marx jaio eta bizitzea gertatu zitzaioneko garaia ere iraultzako denboraldia zen bai historiaren mailan bai filosofiarenean: erreboluzio frantsesa batetik, Hegel ondoko filosofiaren «usteldura» bestetik. Greziar filosofarien azterketak, ba, argitasunik eskaintzen zuen 1840eko aleman munduaz.

Hegelez argi asko erakutsi zuen bere *Filosofiaren Historian* Epikurori zion gorroto osoa. Marx, oster, Epikuroren alde ateratzen da. Han goialde urrunean bizi omen diren jainkoei ez die beldurrik. Bizitzaren gozamena eta zorientasuna bilatu behar dira, hilondoko bizitzarik ez baitago. Hala, greziar superstizio guztien kontra, gizateria askatu nahi luke Samoko filosofoak.

Epikuro oinarri eta aitzakitza hartuz, Hegel kritikatzan du Marxek. «Epikurok» ezker hegelzalearen tematika guztia biltzen du: erlijioaren kontrako burruka eta askatasunaren aldeko garrasia «lurreko zein zeruko jainko guztien kontra». Marx gaztearen interesgune eta burruka fronte biak, hain zuzen ere.

Demokrito eta Epikuroren munduikuskerak alderatu eta aztertzen ditu. Demokritoren filosofia materialista eta determinista da eitez. Epikurok, aldiz, nahiz eta materialista izan, Demokritoren natur filosofia eta determinismoa arbuia egiten ditu. Marxek, Demokritoren materialismoa eta pasibotasuna baztertuz, gizakia jainkoetatik aske eta beregain uzten duen Epikuro hobesten du.

Marxen disertazioa askatasunari eta munduaren eraldakuntzari begira egindako filosofi entsegua da. Filosofiaren alderdi praktikoa kritikoa azpimarratzen du: «Filosofia praktika behar du bihurtu». Filosofiaren lehenbiziko eginkizuna kritikagintza da. Honela, tesiak daraman eranskinean, bi formula sonatu bezain azpimarragarriok irakur daitezke: «Filosofia mundu bilakatu behar du»; «munduak filosofia bilakatu behar du». Zer esan nahi du horrek? Filosofia alde batera utzi behar dituela arazo metafisiko abstraktuak, eta garaiko mundu-tar problemak hartu behar dituela kritikagintza. Printzipio filosofiko horiek gidatuko dute Marxen praktika politikoa epealdi honetan.

Lehen une honetan, erlijio arazoak garrantzi handia du Marxengan. Arrazoimenaren izenean ukatzen du erlijio munduaren existentzia: erlijioa eta arrazoa elkarren kontra eta aurka daude. Arrazoimenak oraindik bete ez duen lekua probisionalki hartzen duen ilusio bat besterik ez da Jainkoa. Arrazoa nagusitu ala, erlijioa desegin eta hil egingo da ezinbestean<sup>14</sup>. Bestalde, kritika teorikoa kritika politi-

<sup>14</sup> Marxen erlijio kritikari buruz badugu euskaraz liburuska polit bat, ik. Manolo Pagola, *Marx eta erlijioa*, Herri gogoa, 1971. Horrez gainera, ik. *Sobre la Religión*, Ed. Sigüeme, Salamanca, 1974. Erlijioari buruzko testu bilduma on bat aurki daiteke hor.

koari lotu-lotua ageri da. Erliijoaren kontrako burrukak prusiar Estatuaren aurkako burrukarekin bat egiten du.

Oso adierazgarriak dira hitzaurrearen bukaerako hitzok:

*«Filosofiak, odol tanta bakar batek bere bihotz zeharo libre eta mundu jabeari taupadak eragingo dizkion arte, bere etsaiei Epikurorekin batera hotsegingo die: Erliijogabea ez da herri xehearen jainkoak gutxies-ten dituen, herri xehearen jainko ideia bereganatzen duena baino.*

*Filosofiak ez du hau isiltzen. Berea egiten du Prometeoren fede aitortpena: «Hitz batean, jainko guztiak gorrotatzen ditut». Bere fede aitortpen hori da jainko gorentzat autokontzientzia ezagutzen ez duten lurreko zein zeruko jainko guztien kontrako bere ezaugarria. Ezerk ezin du bere pareko izan.*

*Filosofiaren gizarte egoera txartu egin delako poza hartzen duten gizon zirtzilei, Prometeok Hermes jainko zerbitzariari bezala erantzuten die hark:*

*Jakin behar zenuke nire zorigaitza  
ez nukeela zure morrontzagatik aldatuko.  
Nahiago dut haitzari lotuta jarrai  
Zeusen morroi zintzo izan baino.*

*Filosofi egutegiko santu eta martirien artean lekurik bereziarena du Prometeok»<sup>15</sup>.*

Prometeo bezalaxe, gizakia ere bere haitzari loturik dago. Nola eta zeinek askatu? Galdera honi erantzuna bilatzen saiatuko da Marx aurrerantzean. Gauza bitxia badirudi ere, hegelzale gazteen ikusmolde abstraktuetatik urruntzen ezezik, egun-eguneko arazo politiko eta filosofikoetara hurbiltzen lagundu zion tesi honek.

Berlinen egin beharrean, Jena unibertsitatean aurkeztu eta irakurri zuen bere lana, 1841leko apirilaren 15ean. «Doctoris Philosophiae honores» gradua eman zioten. Tesiaren eskaintza L. von Westphalen jaunari egin zion, Jennyren aitari, alegia.

Filosofian doktoratu eta gero, Coloniatik zehar bere sorlekura bueltatu zen Marx. 23 urte zituen. Ogibide bat bilatu, Jenny esposatu eta bizimodu egoki bat eramatea zen bere ilusiorik haundiena. Horregatik,

Frantsesez, kontsulta daiteke H. Desroches, *Marxisme et religions*, Paris, 1962; eta *Socialismes et sociologie religieuse*, Paris, 1965.

<sup>15</sup> K. Marx, *Diferencia de la Filosofía de la Naturaleza en Demócrito y en Epicuro*, Ed. Ayuso, Madrid, 1971, 11 or.

Gaurkotasan bereziko filosofo honi buruz badira liburu irakurgarri bi, ik. F. Markovits, *Marx en el jardín de Epicuro*, Madrágora, Barcelona, 1976; eta C. García Gual, *Epicuro*, Alianza Ed. Madrid, 1981. Ikus gainera Mikel Lasaren *Baroja eta Epikuro* artikuluxka in Jakin, 33 zenb.

1841eko uztaillean, Bonnera jo zuen bere adiskide B. Bauerengana, filoso-  
fiako katedra eskuratzeko asmotan.

Lortuko ote zuen?

#### 1.4 RHENANIAKO KAZETA

*Rheinische Zeitung* edo Politika, Komertzio eta Industriarako *Rhe-  
naniako Kazeta* 1841eko abenduaren 15ean sortu zen Colonian. Azpiti-  
tuluak berak adierazten duenez, burgesia liberalaren organo bat zen.  
Prusiako jauntxo feudalen eta lurjabeen aurka, merkataritzaren eta in-  
dustriaren interesak defenditu nahi zituen. Egunkariko akzionisten ar-  
tean bazen bankari, merkadari eta legegizonik. Beren interes ekonomi-  
koak zaindu ezezik, agintea eta eskubide politikoak, pribilegio guztien  
abolizioa, Konstituzio liberal bat, Parlamentuzko gobernamentua, bil-  
kura eta prentsa askatasuna eskuratu nahi zituzten. Aleman estatuen  
arteko Aduana Batasuna egin zenetik, Rhenaniak ekonomi garapen bi-  
kaina ezagutu zuen. Colonia, 80.000 bizilagunekin, Rhenaniako mer-  
katal eta administral erdigunea zen.

1840ean, Friedrich Gilen IVa tronoratu zenean, hegeldar gazteek  
itxaropen handiz onartu zuten. Estatu prusiarra «arrazoizko» bihur-  
tzeko lehen pausotzat hartu izan zuten. «Bihotz guztiak birberdetu ditu  
udaberriak»; «esperantza izpi bat nabari da aurpegi guztietan», zioen  
itxaropenez beterik Bauerek. Dena zen esperantza eta euforia.

Tamalez, errege berriak berehalaxe erakutsi zuen bere aurpegi edo  
talante pietista eta erreakzionarioa. Hegelzale eta liberal kutsuko ex-  
presiobideak oro galerazi zituen (agerkari, katedra, etab.). Ezker hegel-  
zalearen organoa zen *Halleko Urtekariak* betiko isilerazia izan zen  
1841eko ekainean. 1842ko martxoan, Bruno Baueri irakasteko baime-  
na kendu eta Unibertsitatetik bota egin zuten<sup>16</sup>. Ezker hegelzalea  
«hankak berriro lur gainean jartzera» beharturik aurkitu zen. Murgil-  
duta zeudeneko ilusiozko eta ideologikeriazko mundu zerutiarretik  
ateraraziak eta oposizio politikora jaurtikiak izan ziren. Friedrich Gil-  
en IV Errege berriarengan ezarritako esperantzak lur jotzean, rhenan-  
iar burgesiarekin aliatzea beste irtenbiderik ez zitzaizen geratu.

*Rhenaniako Kazeta*, bada, ezker hegelzalearen eta burgesia libera-  
laren arteko akordioaren fruitua izan zen. Iraupen laburreko ezkontza,  
hori bai. Talde biak, heuren arteko alde edo desberdintasunak gorabe-  
hera, gudu zelai berean bat egin zuten demokrazia eta boterea lortzeko.

<sup>16</sup> Michael Lowyk dioen bezala, Gobernu prusiarrak Bauer irakasletzatik kendu ez  
balu, auskalo zer gertatuko zen, baina gauza bat da segurua, gertaera hau garrantzi  
itzalezkoa izan zela ezkerreko hegelismoaren eta, bereziki, Marxen «politizazioan» eta  
ezkerbidean. Ik. *La teoría de la revolución en el joven Marx*, Siglo XXI, Mexico, 1972,  
38 or.

Gobernuaren errepresiozko politika makurra ikusita, unibertzial karreraren ametsak galdu egin zituen Marxek. Kazetaritza izango zen une zail hartan bere lehen esperientzia politikoa. Bauer eta Feuerbachekin batera, *Ateismoaren artxiboak* delako agerkari bat kaleratzea izan zen bere lehen asmoa. Rugek zuzentzen zuen *Aleman Uriekariak* baino erradikalagoa nahi zuten joeraz. Baina projektua hutsean geratu zen.

*Rhenaniako Kazetan* zuzenki eskuhartu baino lehen, hiru artikulu idatzi zituen Marxek, tesi doktoralaz aparte. 1841eko abenduaren 24 ean, agindu berriak eman zizkien Friedrich Gilen IVak zentsoreei. Halako irekitasun bat agertzen zuen oposizioko prentsari buruz, itxurazkoa baizik ez zena. *Zentsurari buruzko instrukzio berriei oharpenak* izeneko artikulu gogor eta erradikalean, sasiliberaltasun horren hipokresia salatzen zuen Marxek, zentsura ez zela inondik inora abolitzen erakutsiz. Gertakariak arrazoiak eman zitoten: artikuluak ez zuen argirik ikusi, jakina. Hauxe izan zen Marxen lehen testu politikoa.

1842ko otsailaren hasieran sartu zen Marx *Rheinische Zeitungen*, beste hegaldar gazte batzuekin batera <sup>17</sup>. Hauen artean Engels, Moses Hess, Bauer, Stirner eta Ruge <sup>18</sup>.

1841eko maiatzetik uztailera bitartean batzartu zen Düsseldorf VI Dieta rhenanniarra. Haundikiz eta jauntxoak osatutako Parlamentu baten antzeko zerbait zen Dieta hori. Marxek beronen kritikari ekin zion jo eta ke, 1842ko maiatzaren 5ean, *Rhenaniako Kazetan* argitaraturiko *Prensa askatasuna eta Dietako akten argitarapenaz* izeneko artikulu. Jauntxoak eskuetan dagoen Dieta hori parlamentuzko gobernuaren karikatura bat iruditzen zaio. Ez die herriaren benetako interesei erantzuten. Jauntxoak iritzian, zentsura da aleman prentsaren merituak haundiena: herria ez baitago demokraziarako heldua! Prentsa ez da libre izateko eginga. Horrela, jauntxoak prentsa askatasunaren eta Dietako akten argitarazioaren aurka egotea ez da harrizkoa.

Gauza bat garbi du Marxek: Dietako ordezkariak ez dituztela jarri «unibertzialistak» defenditzen, klase posizioak baizik. Prentsa libre, erantzen du Marxek, beti erantzen dagoen herriaren izpiritua da:

*Prensa libreak bakarrik posibletzen eta ahalbidetzen du arrazoimena ager dadin. Zentsurak prentsa du ahultzen, gobernuak bilautzen, herria engainatzen eta arrazoimena ukatzen. Prentsa askatasunik gabe, gainerako askatasun guztiak ilusio bat besterik ez dira.*

Beste maila batean, 1842ko uda Marxen estuasun materialen hasiera izan zen. Diru kontuak zirela eta, eztabaida eta gorabehera batzuk

<sup>17</sup> Oraindik orain atera berria den *En defensa de la libertad. Los artículos de la Gaceta Renana* (F. Torres, Valencia, 1983 liburuan jasotzen dira Marxen orduko artikulu guztiak. Hitzaurre gisa, biltzaileen ohar, eritzi eta argibideak dakartza.

<sup>18</sup> A. Cornu, aip. lib. 225 or. eta hurrengoak.

ere izan zituen bere familiarekin. Beraren anaia Hermann ere fetxa hauetan hil zitzaion.

Uda horretan bertan publikatu zituen *Coloniako Artzapazpikua eta Gobernuaren arteko eztabaidaz, Aginteen zentralizazioaz, eta Colonia-ko Kazetaren 178.zenbakiaren editoriala*. Handik aurrera, Marxen kolaborazioa gero eta aktiboagoa egin zen *Rheinische Zeitungen*.

Urte honetako maiatzean, Bruno Bauer Berlinera aldatu zen. Hemen, hegelzale gazteek filosofigintza kritiko, apurtzaile eta anarkikoi hutsari ekin zioten. «Doktorklubak» ere deitura berria zuen orain: «Askatuak». Izen hau oso egoki zegoion beren pentsaeraren eboluzioari. Burgesia liberalik gabeko Berlineko hirian, oinarri sozial eta ekintza politiko guztietatik urrundu ziren erabat. Politika aldetik ezkerkoi amorratu, filosofi jarretetan ere gero eta erradikalago bilakatuz joan ziren. Erlikioaren kritika birrintzailea zuten beren helburu eta kezkarik nagusia.

Marxen erreakzioa bere lehengo lagunen teoriak publikoki salatzea izan zen. *Rhenaniako Kazetan* «Askatuen» idazlanak zentsuratzeari ekin zion. Rugeri xehetasun guztiz eman zion jokabide honen berri 1842ko azaroko eskutitz batean: «Erljioa politikatik abiatuz kritika zezatela eskatzen nien nik, eta ez politika erlijiotik abiatuz».

Bien bitartean, egunkariaren zuzendaritza hartzeko eskatu zioten Marxi *Rhenaniako Kazeta* honen jabeek (Camphausen, Hansemann, etab.). Erredaktore buru bihurtu zen, beraz, artean 25 urte baizik ez zituelarik. Marxek zentzu eta tentu haundiz jokatu zuen beti *Kazetaren* buruzagitzan, irakurleko katoliko eta burgesarengana hurreratzeko ezezik, zentsurari ihes egitearen ere bai. Berlineko «Askatuei» saldukeria iruditu zitzaion Marxen jokabide moderatu eta zuhur hau, jakina.

Zuzendari berriak bere lehen artikuluan, hain zuzen, komunismo az hitzegin beharra izan zuen. *Augsburgoko Kazeta Orrokorrak* komunistatzat salatu zuen *Rhenaniako Kazeta*, kominismoarekin jokatzeko ari ziren burgeskumeek finantziatuta zegoela egotziz. Marxek, zuzendari izentatu zuten biharamonean, zera erantzun zion, alegia komunismoak ez zuela oraindik Alemanian batere gaurkotasunik, baina serio-ski aztertu beharreko gauza zela nolahi ere. Marx ez zen artean komunista, noski.

Beste gai bat ere ikutu zuen 1842ko artikuluan: miseriarena, herriak sufritzen duen zapalgetarena. Honela, egurraren lapurretaren dela eta, laborariaren alderdia hartzen du *Egur lapurretaren kontrako legeaz* izeneko lan luzean. Jabetza komunalak jabetza pribatu izatera pasatu diren arren, nekazariak, aintzinako usadioei jarraituz, haietaz baliatzen segitzen dute, behargarrian bizi baitira<sup>19</sup>. Lan derriortuetara bidaltzea merezi duen delitutzat jotzen du «lapurretaren berezi» hau *Rhenaniako Dietak*. Erabaki gogor honen aurrean, lege zaharrari eutsi behar zaiola

<sup>19</sup> Oroit euskal herri-basoak, partzoneriak, etab.

argumentatzen du Marxek; herriak mendez-mende ezagutu dituen ohi-  
turei behar zaiela atxiki eta lotu. Pobreen defentsa sutua egiten du.  
*Kazeta* aldiko artikuluetan, halare, proletargo hitza ez da behinere  
ageri. Pobreak ageri dira, ez proletargoa.

Sasoi honetantxe hasi zen Marx frantses sozialista utopikoen libu-  
ruak egarri haundiz irakurtzen: Babeuf, Fourier, Saint-Simon, Cabet,  
Blanqui, Leroux, etab.<sup>20</sup>. Orduantxe argitaratu berria zen Proudhonen  
*Zer da jabegoa?* ere irakurria eta ezaguna zuen. Berauen eragina naba-  
ria da aldi honetako izkribuetan.

Azkenean, ezker hegalezalearekiko haustura ezizbestekoa bihurtu  
zen. Guzti hau epelegia iruditu zitzaien hegeldar ezkerkoiei. Bere jo-  
kaera zuhurratik susmagarri egin zen Marx, eta oportunistatzat sala-  
tu zuten Berlineko «Askatuek». Horrexegatik, Engels eta Marxen arte-  
ko lehen topaketa nahiko hotza izan zen.

Hala eta guztiz ere, arrakasta izugarria lortu zuen *Rheinische Zei-  
tungek*: 400 harpidedunetatik 3.400etara igaro zen urtebetean. Prusiar  
gobernuaentzat gauza arriskutsua bihurtu zen, trabatu eta isilarazi be-  
harra zegoen nola edo hala. Alferrikakoak izan ziren Marxen abilezia  
eta taktika «oportunista» guztiak!

Marxek 1843.urtean idatzi zuen artikulua sailik garrantzitsuen *Mo-  
selako mahastizainez* deiturikoa izan zen. Moselako laborarien mise-  
riazko egoera aipatzen du bertan, Estatuaren utzikeria agerian jarriz.  
Estatuak, nahiz eta mahastizain horien agoera larria ezagutu, lurjabe  
haundien alderdia hartzen duela dio Marxek<sup>21</sup>. Ikusten denez, Marxen  
posizioak gero eta herritarragoak eta gogorragoak dira.

*Rhenaniako Kazetaren* egunak kontatuta zeuden dagoeneko. 18-  
43ko urtarrilaren 4eko zenbakian, Tsarraren kontra egindako erasoak  
egunkariaren azkena ekarri zuen. Marxek, zuzendaritza kargua utzi  
eta, ahaleginak eta bost egin zituen kazetari zutik eusteko. Alfer-  
errik, ordea, Ministrari Kontseiluak galeraztea erabaki baitzuen 1843ko  
urtarrilaren 21ean. *Rheinische Zeitung* martxoaren 31ean isildu zen be-  
hin eta betiko.

Etapa baten amaiera zen. Marx «plaza publikoa utzi eta bere ikas-  
gelara erretiratu» zen. «Berriz ere gobernuak nere eskuko egin natiok.  
Ezin zitekek ezer ere egin Alemanian», idatziko dio Rugeri. Rhenaniar  
urteak guztiz funtsezkoak eta erabakiorrak izan ziren Marx gaztearen

<sup>20</sup> Hasierako sozialista «utopikoen» ustez, egia da langileak zapalduta daudela,  
baina berauek bakarrik ez dira beren buruak askatzeko gauza. Goi mailakoengandik  
helduko zaie askapena. Marx gero eta gogorkiago agertuko da joera «ameslari» horien  
kontra, langile arazoa ez dela borondatekeria hutsez konponduko erakutsiz.

<sup>21</sup> Engelsek 1893ko aspirilaren 3an Fischeri bidalitako gutunaren pasarte batean  
zera irakur daiteke: «Marxi beti entzun izan diot egur lapurretaren legea eta Moselako  
nekazarien egoeraren azterketak, politika hutsetik ekonomi arazoan ikerketara eta so-  
zialismorantz bultzatu zituela». S. Hookek bere *La génesis del pensamiento filosófico  
de Marx* (Barcelona, Barral, 1974) liburu bikainean esatera, Marxek hor Hegelen Esta-  
tu pentsamoldearekin hautsi omen zuen.

bilakabidean. Egunkari honetan hasi zen lehen aldiz gizarte arazoetaz kezkatzen eta kontzientzi hartzen, hamasei urte geroago, *Ekonomia politikoaaren Kritikan* aitortuko zuenez. Frantses sozialismoa aurkitu zuen. Eta politika eta ideologi jarrerak sarri askotan interes materialen adierazpen soil direla erreperatu ere bai.

Urte batzuk baziren Karl Marx eta Jenny ezkontzeko desiatzen zeudela. Ludwig von Westphalen hila zen, bere alargunari pentsio eskas bat bakarrik utziz. Jennyri ez zion bere amak ez doterik ez etxerik eskaini ahal izan. Jennyren osaba bat, gainera, ezkontra horren aurka-koa zen. «Filisteoen» aldetik, beraz, ez zitzaien oztopo eta eragozpenik faltatu izan.

Eskutitzek erakusten dutenez, Jennyk amodio apasionatua zion bere «Karltxuri». Azkenik, hainbeste urtez elkarrekin noiz bilduko irrikitzen egon ondoren. Kreuznacheko eliza ebanjelikoan ezkondu ziren, 1843ko ekainaren 19an<sup>22</sup>. Elizatik, luteranoak baitziren! Karl ateoaren baina zer inporta dio!, Jennyk ondo merezi zuen elizkizun bat, alafede.

Marxen ama ez zen ezteietara joan. Westphalendarren aldetik, berriaz, Jennyren ama eta anaia Edgar bakarrik. Ezkonberriek Rhin ibaia-  
ren ertzetan, Suitza aldean, pasa zituzten eztibidaiaiko egunak. Karlek 25 urte zituen, eta 29 Jennyk. Sakon eta biziki maite izan zuten elkar, heriotzak banandu zituen arte.

38 urte elkarrekin, eta nolakoak...

<sup>22</sup> Halaxe dio erregistroko inskripzioak: «Herr Karl Marx, Filosofian doktorea, Coloniako bizilaguna, eta Fraulein Johanna Bertha Julie Jenny von Westphalen, profesio gabea, Kreuznacheko bizilaguna.»



## 2. Kapitularia

### HUMANISMO BURGES TXIKIA

(1843-1844)

Ez dezagun bila juduaren gakoa bere erlijioan, baizik eta erlijioaren gakoa egiazko juduarengan.

Zein da judutasunaren oinarri sekularra? Bizibeharra, berekoike-  
ria.

Zein da juduaren mundutar kultoa? Merkataritza. Zein du bere lu-  
rreko jainkoa? Dirua.

Ba, merkataritza eta dirutik, hots judaismo prektiko, egiazkotik  
emantzipatzea, gure mendearen autoemantzipazioa izango litzateke.

(Marx, *Judu arazoaz*, 1844)

Filosofiak proletargoarengan aurkitzen ditu bere arma materialak,  
proletargoak filosofian bere arma intelektualak aurkitzen dituen beza-  
laxe. Alemanen emantzipazioa, gizakien emantzipazioa da. Emantzi-  
pazio honen burua filosofia da, proletargoa bere bihotza.

(Marx, *Hegelen Deretxo Filosofiaren Kritikaren Sarrera*,  
1844)

#### 2.1. «...GUZTIOK FEUERBACHTIAR BIHURTU GINEN»

*Rhenaniako Kazeta* itxi ondoren, aleman izateaz lotsaturik eta naz-  
katurik, Prusiatik aldegitza erabaki zuen Marxek. Kazetaritza lan  
eginez familia mantentzea espero zuen. 1842ko martxoaren 13an, *Fran-  
ko-Aleman Urtekariak* agerkari berria ateratzea proposatu zion Ar-  
nold Rugek kartaz.

Baina, aurrena, Hegelek 1821ean egindako *Deretxoaren Filosofia* li-  
burua astintzeari eta kritikatzeari ekin zion. Colonialen lehenbizi eta  
Kreuznachen gero, irakurtzen eta idazten ihardun zuen aterrunerik  
gabe, teoria politikoa (Maquiavelo, Montesquieu eta Rousseau) eta  
historiazko liburuak, Frantziako Erreboluzioaz batipat. Marxek erre-  
boluzioa hurbil eta atzetan zegoela uste zuen, oinarrian ilustraziozale  
optimista bat baitzen.

Dirudienez, 1843ko martxotik abuztura bitartean bukatu zuen *Hegelen Deretxo Filosofiaren Kritika*<sup>1</sup>. Textu honetan argi eta garbi ageri da Ludwig Feuerbachen eragipen sakona<sup>2</sup>. Honek, Hegel ondoko beste edozein filosofok baino zarrasta eta eragin haundiagoa izan zuen Marx gaztearengan. Feuerbachen ezaguerak, zalantzarik gabe, biraketa oso bat markatu zuen Marxen eboluzio filosofikoan.

1840ean, historiak helburu jakin bat zuelakoan zeuden hegelzale gazteak: arrazoinezko eta askatasunezko erreinua. Erregegaiarengandik itxaro zuten beren esperantzak gauzatzea: prusiar ordenu feudalarren amaiera, zentsuraren abolizioa, Eliza arrazoiaren menpe jartzea, askatasun politiko, intelektual eta erlijiosozko erregimen bat ezartzea, alegia. Baina, tronura igo eta Friedrich Gilen IV bihurtu bezain laster, liberalizat zeukaten erregegai hura despota bihurtu zen. Historia, berez eta teoriarrazoia eta askatasuna izan arren, egitez eta gertatzez zentzugabekeria eta menpetasuna besterik ez zela ohartu ziren. Zapuzturik eta eskuloturik, ezinbestekoa izan zitzairen esperientziaren lekzioa onartzea.

Orduantxe agertu zen, hain zuzen ere, Feuerbachen *Kristautasunaren Esentzia* liburua, eta piska bat geroxeago *Filosofiaren berriztapenerako tesiak*. Feuerbachek oinen gainean jarri zuen Filosofia espekulatiiboak buruz behera ibilerazten zuen mundua. Hegelen aurka, pentsamendutik kanpo dagoen mundu konkretu eta santigarriaren errealtasun objektibua baieztu zuen, materialismoari bideak irekiz. Errealta den bakarra materia da; Izpiritua ez da materiaren emaitza baino.

Hegelen filosofia ez da teologiaren mozorroa eta disfrazta baizik, dio Feuerbachek. Jainkoaren eta gizakiaren arteko erlazioa alderantziz ezarri behar da. Jainkoak bere antzera eta irudira egin du gizakia, dio erlijioak; ez, aldrebes da, erantzuten du Feuerbachek, gizakia da Jainkoa bere irudira egin duena. «Gizakiarentzat gizakia bera da jainko».

Kritika honen erdi-erdian alienazioaren nozioa aurkitzen da. Jaki-na denez, nozio hau oinarri-oinarrizkoa zen jadanik Hegelen baitan:

<sup>1</sup> Idazlan honek, halare, ez zuen 1927rarte argia ikusiko. 1938an, Stalinen purgen ondorioz deportatua hil zen Riazanovek, Moskuko Marx-Engels Institutoaren zuzendariak eman zuen argitara MEGA delakoan, Marx eta Engelsen obra guztien lehen edizio handian. Ik. K. Marx, *Critica de la filosofia del Estado de Hegel*, Grijalbo, Barcelona, 1974.

<sup>2</sup> FEUERBACH, Ludwig (1804-1872). Babierako Landshuten jaiotako aleman filosofoa. 1824etik 1826ta Hegelen ikasle izana Berlinen. Bere opus magnum edo obrarik garrantzitsuen, *Kristautasunaren Esentzia*, Leipzigen argitara emana izan zen 1841ean. Artikulu eta txurrik inportanteenak 1839tik 1845era idatzi zituen: *Filosofiaren berriztapenerako tesi probisionalak*, *Etorkizuneko Filosofiaren hastapenak*, etab. Feuerbachen saiakera nagusiak sortutako zirra izugarriaz hau esan zuen Engelsek: «Orduantxe agertu zen Feuerbachen *Kristautasunaren Esentzia*... Entusiasmoa generala izan zen: une berean guztiok feuerbachtiar bihurtu ginem».

Idea errealtatean alienatzen da, eta aurrerabidean doala bere burua-  
ren kontzientzia hartzen du. Feuerbachen baitan, gizakia Jainkoagan  
alienatzen da. Bere kualitate hoberenak izaki imaginario horretan pro-  
jektatzen ditu, haregan «arrozten» da, alegia. Erlijioa, beraz, «aliena-  
zioa» da, arrozketa, norgaltzea, besterentzea; suntsitu eta desegin  
beharra dago gizakiak bere burua birraurki dezan. Feuerbachek, hone-  
la, gizakiaren eta giza maitasunaren erlijio berri bat proposatzen du:  
«humanismoa».

Behar-beharrezkoa da Feuerbach irakurtzea, hegeldar gazteen  
1841-45 bitarteko textuak ulertu ahal izateko. Horrela bakarrik ikus  
daiteke zenbateraino dauden Marx gaztearen obrak Feuerbachen pen-  
tsaeraz kutsatuak. Feuerbachtiarra da 42tik 44rainoko terminologia  
marxista guztia: alienazioa, gizaki generikoa, gizaki osoa, subjektua  
predikatu bikatzea, etab. Ez hori bakarrik: filosofi problematika bera  
feuerbachianoa da erabat<sup>3</sup>.

*Hegelen Deretxo Filosofiaren kritika*, hortaz, ezin daiteke inola ere  
ongi konpreni Feuerbachen problematikaren ikusguneetik begiratuta ez  
bada. Haatik, Feuerbachen alferrik bilatuko genituzkeen azterketak  
ere aurkitzen dira bertan: politika, Estatua eta jabetza pribatuaren ar-  
teko harremanak, klase sozialak, etab.

## 2.2 HEGEL? EZ, ESKERRIK ASKO

Hegelek Estatuaren eta gizarte zibilaren artean ezartzen duen be-  
reizkuntza onartu egiten du Marxek. Hegelentzat, gizarte zibila Esta-  
tuaren ispilu eta erreflexua da. Marxentzat, berriz, Estatua da gizarte  
zibilaren irudi eta distira. Marxek, beraz, Estatua eta gizarte zibilaren  
arteko erlazioak gainazpikatu egiten ditu: politikari ematen dio lehen-  
tasuna. Buruz behera zebilen Hegel buruz gora jartzen saitzen da. Justu  
aldrebes, hortaz.

Soberania —Estatuaren zerizana— izaki independente, objektiba-  
tua da hegelentzat. Marxentzat, ostera, familia eta gizarte zibila dira  
Estatuaren egiazko oinarriak. Demokrazia da konstituzio politiko guz-  
tien funtsa. «Herriaren soberania» aipatu arren, monarkia justifikatze-  
ra darama Hegelen sistemak. Marx enpeinu horren absurdutasuna fro-  
gatzen saiatzen da<sup>4</sup>.

Liburu honek garbiro agertzen du noraino bereganatu zuen Mar-  
xek Feuerbachen problematika: alde batetik, gizaki konkretuaz, erre-

<sup>3</sup> Ikus honetaz L. Althusseren «Los Manifiestos filosóficos de Feuerbach» izeneko  
saioa, in *La revolución teórica de Marx*, aip. lib., 33 or. eta hur.

<sup>4</sup> Hain garrantzi handia duen Della Volpe italiarrak 43ko euskuizkribu honetan  
jartzen du Hegelen eta Marxen arteko haustura. Autoreu honen obran barneratzeko eta  
sakontzeko, sarbide egokia izan daiteke bere *Rousseau y Marx*, Barcelona, Martínez  
Roca, 1970.

laz, sentikorraz hitzegiten du, baina bestetik, irudi erlijiosoz baliatzen da, «Kristautasuna da erlijioaren funtsezko muina» etab. *Hegelen De-retxo Filosofiaren kritika* hau, neurri handi batean, politika mailara egokitutako erlijio kritika feuerbachtiarra besterik ez da. Marxek Feuerbachi heltzen dio hegeliar sistema espekulatiboaren barne logika erro-errotik kritikatzeko.

Gisa berean, «alienazio» hitza Feuerbachen pentsaera erlijiosotik kritika politikora ekartzen du Marxek. Estatu modernoak, nahiz eta demokratikoa izan, gizakiaren alienazio era bat da: Estatua eta gizarte zibila banatuta daude. Gizabanakoa ere bere buruarengandik etenda dago: alde batetik, gizaki pribatua, eta bestetik, hiritarra. Bitaraturik dago, beraz, zartaturik eta urraturik.

Saio honetan agertzen dira, baitare, gizartearen garapen historiakoari buruzko Marxen lehen formulazioak. Konstituzioen filosofiako kritika ez da aski, dio, historiak behar dira kritikatu. «Explikatu», «genesia konprenitu»... horra gizarte eboluzioaren lehen teori hurbil-keta nahasi bat. Historia, estruktura sozial eta politikoen gakoetako bat iruditzen zaio. Estatu modernoak bere garapen historikoaren aldetik aztertze ahalegin bildurti batzuk egiten dira 43ko eskuizkribu eza-gun honetan.

Berritasun haundirik ez, baina aurrerabiderik nabari da, noski, *Rhenaniako Kazetako* artikuluekiko: «Erlazio juridikoek —eta Estatuaren formak halaber— existentziako baldintza materialetan dituzte beren sustraiak». Baina mugapen haundiak ditu, bestetik. Hegelen kritika Feuerbachen problematikaren barrutik egiten baita, filosofia abstraktu baten ikuspegitik.

### 2.3 JUDU ARAZOAZ

*Judu Arazoaz* izeneko saioa, ezkonibilaldiaren ondoren hasi (1843ko abuztuan) eta Parisen bukatu zuen, seguraski. Bruno Bauerek gai berberaz idatzitako bi artikuluri erantzunez, *Franko-Aleman Urtekarien* lehen zenbakian argitaratu zituen bi artikuluetako bat da, izan<sup>5</sup>.

Bauer, bere lagun zaharrak, Estatua eta gizartea baino kontutanago hartzen du erlijioa. Erlijio arazo hutsa iruditzen zaio juduen askatasuna. Juduek beren erlijioari uko egin behar diote emantzipatu nahi baldin badute. Erlijio guztiak dira giza emantzipazioaren etsai. Giza emantzipazioa eta politikazko emantzipazioa problema bakar batetara biltzen ditu Bauerek; Estatua erlijiotik askatuz gero, gizakia

<sup>5</sup> K. Marx, *La cuestión judía*, in *Los anales franco-alemanes*, Martínez Roca, Barcelona, 1970, 223-257 orr.

emantzipaturik legoke. Estatuak akonfesional bihurtu behar, horretarako.

Marxek, ordea, politikazko emantzipazioa eta giza emantzipazioa bereizi egiten ditu. Eraiki omen daiteke erlijiotik askatutako Estatu bat, gizakia libre izan gabe ere. Munduan zehar dabilen hezurmamizko judu konkretuari begiratzan dio Marxek, ez «zapatuko juduari», Bauerek bezala. Egunerokoari. Judutasunaren ezaugarria ez da inondik ere erlijioa. Juduei berdintasuna eta politikazko eskubide zibilak zor zaizkie beste edozein hiritarri bezalaxe. Baina politikazko burujabetza ez da nahikoa judua bere buruaren jabe bihurtzeko. Giza emantzipazioak ez du bitartekoren beharrik.

Estatuak «gizakiaren bizitza generikoa da bere bizitza materialaren oposizioz». Gizakia, gizarte politikoan, «izaki orokor» gisa kontsideratzen da, bere indibidualtasunaren mugak gaindituz; gizarte zibilean, berriz, indibiduo mugatu, «partikular soil» gisa (bizitza ekonomikoan, sozialean, familiarrean, etab.). Estatuan bere biziera errealetik erantzia dago, beraz, gizabanakoa: alienatuta eta arrotuta dago. Horregatik, juduaren eta Estatuaren arteko oposizioa ez da erdibiketa sakonago eta funtsezkoago baten «hots, burgesaren eta hiritarraren arteko oposizioaren— alderdi bat baizik. Bauerek ez du kontraesan laiko hau ikusi, Marxen ustez. Ez du Estatuaren eta gizarte burgesaren arteko haustura hau kontuan hartu.

Politikoki emantzipatuz, alor pribatura bartertzen du gizakiak erlijioa; Estatuak ateo bihurtuz, halare, ez da erlijioa desagertzen eta ezabatzen. Emantzipazio politikoaren eta erlijioaren artean ez dago inolako kontradikziorik. Estatu atea da, gainera, kristau Estaturik perfektiena, Marxek dioenez.

Zerk egiten du judua judu? Zertan datza judutasunaren mamia edo gakoa? galdetzen du Marxek, eta zera erantzungo: «premia praktikoa», «negozioa», «salerosketa», «dirua». irabazigrina da juduaren jainko eta ezaugarri. Dirutik askatuz gero, judua ez litzateke judu izango. Alegia, dirurik gabe judurik ez.

Judaismoak —diruaren erlijioak— burges gizartean iristen du bere gailurra, eta burges gizarteak, berriz, kristau munduan. Burges gizartea da «juduaren esentzia», eta judutarra, gizarte burgesaren ispilurik bikainena eta osoena. Kristau gizartea judaismoan urtu da. Gizartea «judukeriatik» askatuz gero, desagertu egingo lirateke juduak ezinbestez.

Hona artikulua azken hitzak:

*Gizarteak judaismoaren izaera enpirikoa, dirugrina eta premisak iraungi orduko, ezinezko bilakatuko da judua, honen kontzientziak ez baitu objekturik izango, judutasunaren oinarri subjektibua, behar praktikoa, gizartean egingo baita, gizakiaren existentzia generikoaren eta existentzia indibidual-sentigarriaren arteko burruka gauditua izango baita.*

*Gizartea judaismotik emantzipatzean datza juduaren emantzipazio soziala.*

Judu arazoaz textu antisemita da, nolabait esateko<sup>6</sup>. «Juduen naziotasun kimerikoa merkatariaren naziotasuna da, diruzalearena, alegia». Diruak ez bestek egiten du juduen «naziotasun kimerikoa». Horrek ematen dio bere izaera berezia.

Marxek ez du kontuan hartzen hainbeste bidegabekeria jasan duen judu herri historikoa. Marxek ez dauzka juduak herritzat. Naziotasuna ukatzen die. Hortik ez da segitzen, ordea, XX.mendean judu herriak pairatu dituen oinaze eta sarraskien erantzule eta errudun denik. Ezta hurremanik ere.

Askotan bi zentzu edo adiera desberdinetan erabilia izan den izkribu inportante honi dagokionez, zera azpimarra daiteke konklusio modura. Gizarte burgesean diruak agintzen duela jabetzen da Marx, baina ez da oraindik hegeldar pentsaeratik erdizka baizik irten. Textua Feuerbachen pentsaeraren menpetasun estuan dago gizakiaren definizioan (beharrak dituen izaki sentikorra, gizakiaren existentzia generikoa eta indibiduala...) nahiz alienazio nozioaren erabileran. Feuerbachengandik garbiki bereizten duen puntu bakarra erlijiozko alienazioari egiten dion lekua da: Feuerbachengan erabakiorra dena, Marxengan ez da Estatuaren eta diruaren mailako alienazioaren ondorena baizik.

Beraz, diruaren teoria dela eta ez dela, *Judu arazoaz* eta *Kapitalaren* artean ahaidetasun harremanik edo filiazio zuzenik ezarri aurretik, behar da galdetu ea Marxek beti zintzo eta leial eutsi zion Feuerbachen problematikari.

## 2.4 HERRIAREN OPIOA

Arnold Rugerekin batera ateratzeko asmoa zuen *Franko-aleman Urtekariak* aldizkari berriaren argitarapena prestatzera abiatu ziren Marx eta bere emazte Jenny Parisa 1843ko urrian. Oharkabean, amairik gabeko exilioaldiaren bidetara heldu zioten egun hartan.

Marx sinestuta zegoen prusiar zentsurapean ezin zitekeela ezer pultamentuzkorik eta probetxuzkorik egin. Frantzian, agian bai! Itxaro-

<sup>6</sup> Gure arteko bi intelektual ezagun bat datoz iritzi honetan. Gotzo Garatek dio: «Liburu honetan, era askotara izugarritzko baliokoa izanik ere, berebiziko asmakizunez beterik dagoelarik ere, judutar herriaz karikatura gogaitgarria aurkezten digu», ik. *Marx eta Nazioa*, Gero, Bilbo, 1972, 40 or, Joxe Azurmendik: «Marxek ere usu darabilzki antisemiten izengaiztoak», *Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa*, Euskal Elkargoa, Baiona, 1971, 69 or. Bada lan luze bat Marxen antisemitismoa eta norberegorrotu patologikoa frogatzeko propio egina: A. Künzli, *Karl Marx, Eine Psychographie*, Viena, 1966. Beronengan oinarritu bide bat G. Garate berea idazteko. halare, puntu hau oso eztabaidatua da, iritzi desberdinak azaltzen dira eta arazo honetaz. Frantsesez, ondoko bi liburuok gomendatuko nizkiok irakurde interesatuari: E. de Fontenay, *Les figures juives de Marx*, Galilé, Paris, 1973; eta R. Misrahi, *Marx et la question juive*, Gallimard, Paris, 1973.

pen guztiak jarriak zeuzkan, behinik-behin, frantsesen burrukatasunaren eta alemanen teori grinaren batasuneen. Aldizkari berria frantses eta aleman ezkeriarren arteko lokarri izan zedila nahi zuen, tituluak berak aditzera ematen duenez. «Garbi dago zer egin behar dugun une honetan: dagoen ordenu guztia erro-errotik kritikatu», idazten zion Rugeri 1843ko irailean.

Paris! «Mundu berriaren hiriburua» Marxek orduan deitu ohi zion bezala, garaiko zentru intelektualik ospetsuena zen. Idazle eta artista sonatuen paradisua ezezik, iraultzaile eta pentsatzaile sozialisten biltoki ere bazen. Parisen mundu berri bat zabaldu zitzaion Marxi. Hainbeste miresten zituen 1789 eta 1830eko Erreboluzioen tradizio politiko bizia eta proletargo jadanik ugaritsu eta aktiboa aurkitu zituen bertan.

Vanneau kalean jarri ziren bizitzen Marx senar-emazteak. Hantxe izan zuen Jennyk lehenengo haurra 1844eko maiatzaren batean. Amaren izen berbera jarri zioten osasun urri eta ahulekoa izango zen alaba-txoari: Jenny.

Frantsesek huts egin zuten, askenean, eta jaio orduko lur jo zuen errebista berriak. Lehen —eta azken— zenbakia 1844eko martxoan atera zen. Egia esan, aldizkariak oso harrera hotza eta eskasa izan zuen, eta inprimaturiko 3.000 aleak saltzen lanak izan zituzten<sup>7</sup>. *Urtekariak* porrot egitean, zer esanik ez, Marxen diru problemak larriagotu egin ziren. Diferentzia ideologikoak zirela eta, Rugerekiko harremanak ere ozpintzen hasi ziren handik aurrera.

Marx eta Engelsek bina artikulu idatzi zituzten. Marxen lehen lana, aipatutako *Judu arazoaz* izan zen, eta bigarrena *Hegelen Deretxo Filosofiaren kritikaren Sarrera* izenburukoa. jadanik klasikoa bihurtu den pasarte ezagun honekin hasten da berau: «Alemaniari dagokionez, erlijioaren kritika funtsean bukatu dago eta erlijioaren kritika da gainerrako kritika guztien aurrealdintza».

Alienazioaren teoriak humanismoa eta ateismoa defenditzera dararama Marx 1843-1844eko testuotan. Erlijioari gogor erasotzen dio artikulu honen zati famatu batean:

*Erljio kritikaren oinarria hauxe da: gizakiak egiten du erlijioa eta ez erlijioak gizakia. Hain zuzen, bere nortasuna oraindik iritsi ez duen edo lortuta gero berehala galdu duen gizakiak bere buruaz daukan kontzientzia eta sentimendua da erlijioa. Baina gizakia ez da mundu errealetik kanpoko izaki abstraktu bat. Gizakia zera da: Estatu, gizartea, hots gizakiaren mundua. Estatu honek, gizarte honek sorterazi du erlijioa, munduaren kontzientzia okerra. Erljioa horixe baita, mundu faltsu bat.*

Mundu aldrebes honen agerpen eta justifikazioa dela esan ondoren, erlijioaren izaera bikoitza agererrazten digu Marxek:

<sup>7</sup> K. Marx-A. Ruge, *Los Anales franco-alemanes*, Martínez Roca, Barcelona, 1970.

*Erljioaren miseria, miseria errearen adierazpena eta miseria erreal honen kontrako protesta da aldi berean. Erljioa kreatura zoritxarrekoaren negarra da. gupida gabeko munduaren bihotza, mundua ere izpiritua ukatzen duten kondizio sozial batzuen adierazpena den bezala. Herriaren opioa da.*

Marxek, arrazoi historiko oso konkretuengatik, bere denborako Eliza jatorriaren eta protestantearen portaera zapaltzaileengatik (Erljio itxurapean bere klase interesak estaltzen zituen prusiar Estatua defenditzen baitzuten), Eliza eta erlijioitasuna bata bestearekin nahasteko joera izan zuen.

Eta segituan gaineratzen du:

*Herriaren egiazko zorientasunak erlijioaren —ilusiozko zorientasunaren— desagertzea eskatzen du. Norbere egoerari buruzko ilusioei uko egitea, ilusioen beharra duen egoerari uko egitea da. Erljioaren kritika, funts-funtsean, negar herri honen kritika da, heronen aureola baita erlijioa.*

Textu zati klasiko hau hartu izan da Marxen ateismoaren alfa eta omegatzat. Marxek, ordea, Feuerbachen erlijio kritika onartu eta berretsi besterik ez du egiten hemen<sup>8</sup>. Giza miseriaren adierazpena eta bere aurkako protesta, biak batera da erlijioa. Miseria errearen aurrean eroapena, konformitatea eskatzen du. Explotazioa justifikatzen du. Umiltasuna, morrontza eta etsipena predikatzen ditu. Dena lehengoan uzten du. Ihespide eta lilura huts da. Jainkoa indartuz, gizakia zikiratzen eta indargabetzen du. Atzerakoa da, hiz batean<sup>9</sup>.

Kritikak jendoldeak irabazi behar dituela eta indarrari indarrak erantzun behar zaiola dio Marxek beste pasarte ezagun batean: teori-gintza («kritikaren armak») eta politikagintza («armen kritika») batera doaz:

*Dударik gabe, kritikaren armak ezin dezake armen kritika ordeztu, indarra burrukatzeko indarra behar baita, baina teoria bera ere indar materiala bihurtzen da jendoldeez nagusitzen denean. Teoria jendoldeez nagusitzeko gai da ad hominen frogatzen duenean, eta ad hominem frogatzen du erradikala bihurtzen denean. Erradikal izatea, gauzak beren sustraietatik hartzea da. Noski, gizakiarentzat sustraia, gizakia bera da... Erljioaren kritikatik irakaspen hau ateratzen da, gizakia gizakiarentzat izaki gorenena dela, alegia.*

<sup>8</sup> Gehienetan, Marxen asmaziotzat hartu ohi diren erlijio kritikak. Feuerbach-i mai-leguz hartutako ideiak besterik ez dira; Marxek zuzenean, ia hitzez-hitz askotan, haren-gandik jasotako pasarteak, alegia. Oso garbi utzi beharra dago: testu hau 1843koa da, eta urte honetan erabat feuerbachianoa zen Marx, arestian esan dugunez.

<sup>9</sup> Mirande izan da gurean esklabu moralaren edo kristautasun konformista honen kritikarik zorrotzenetakoa, ik. J. Azurmendi, *Mirande eta Kristautasuna*, Cap. Donostia, 1978.



Alemania, nahiz eta iraganaldi iraultzaile baten jabe izan, teoriaren mailan gelditu da Marxen ustez. Aleman filosofiari oinarri materiala falta zaio; ez da mugimendu soziala izatera iritsi. Aleman erreboluzioa erradikala izango da, ala ez da ezer izango. Alemaniak ezin dezake iraultza politiko burgesik egin. Proletargoa da esperantza bakarra; proletargoaren eta filosofiaren arteko batasunaren fruitu izango da erreboluzioa:

*Filosofiak proletargoarengan aurkitzen ditu bere arma materialak, proletargoak filosofian bere arma intelektualak aurkitzen dituen bezalaxe. Alemanen emantzipazioa, gizakien emantzipazioa da. Emantzipazio honen burua filosofia da, proletargoa bere bihotza. Filosofiak ez dauka errealizatzerik proletargoa deuseztatu gabe, eta proletargoa ezin da deuseztatu filosofia errealizatu gabe<sup>10</sup>.*

Hauxe da proletargoak eta filosofiak klase burrukaren baitan duten zereginaren lehen agerpen zehatza. Hortik, erreboluzioa dela medio, mundu berri bat sortuko da.

Marxek, beraz, alde batetik ideologiaren kritikagintzari ekin zion Parisen, Hegelen filosofiari bereziki, eta bestetik ekintza politikoari lotu zitzaion, frantses erakundeekiko harremanen bidez batez ere. Ahalegin eta iharduera bikoitz honetatik sortuko da, apurka-apurka 1844eko *Eskuizkribuen* problematika berezia.

## 2.5 1844eko MARTXOKO BALANTZEA

Frantziako Erreboluzioak kutsatutako Rhenanian jaioa, giro liberal eta arrazionalistan hezi eta hazi da Marx. Batxiler ikasketak bukatu, abogatu izatera bultzatu nahi dio aitak. Berak, ordea, lege karrerarako grina haundirik ez, eta filosofi estudioak hasten ditu Berlinen.

40.hamarkadan, Hegel da Alemanian filosofi figurarik distiratsue-na. Honen jarraile mordoska batek, liberalismo ateorantz lerratuz eta eboluzionatuz, ezker hegelzalea osatzen du. Mugimendu honetan egiten ditu Marxek bere lehen pausoak politikaren zein teoriaren alorrean.

1841ean, bere doktoradutza lortu eta gero, kazetaritza politikoan enplegatzen da Rhenaniako burgesia liberalak pagatutako *Rheinische Zeitung* egunkarian. 25 urterekin zuzendari egiten dute. Poliki-poliki, arazo sozial eta politikoek arduratzen hasten da, Arrazoiarekin eta Logikarekin ados dauden ideia zuzenak bilatu nahirik. «Herri» interes defenditzaile suhar agertu arren, komunismoaren etsai deklaritzen da.

<sup>10</sup> K. Marx-A. Ruge, *Los Anales franco-alemanes*, aip. lib. 116 or.

Zentsura, Rhenaniako lege feudalak eta prusiar despotismoa erasoztean, giza filosofia liberalean oinarritzen du bere burruka. «Historia ezin daiteke konpreni gizakiaren esentziaren bidez ez bada, zeina askatasuna eta arrazoia baita».

Askatasuna: gizakiaren zerizana da, pisua gorputzena den bezala. Gizakia askatasunera deitua da, honen izatea bera baita. Honak uko egiten badio ere, beraren baitan dirau betirako: «Askatasuna halako moldez da Gizakiaren muina, ze bere etsaiek haren kontra burrukatzen ere, praktikan jartzen baitute». Arrazoia: arrazoimenaz hornitua delako da gizakia aske. «Beti existitu den arrazoi hori, beti tankera arrazionala izan ez badu ere».

1843ko martxoan *Rhenaniako Kazeta* ixten dutenean, pentsamendu liberalaren ahuleziaz eta mugatasunaz ohartzen da. Estatu liberalaren atzean zer interes eta burruka izkutu mamitzen diren konturatzen da.

Feuerbach da une honetan hegeldar gazteen buru teorikoa. Beraren pentsaerak zeharo kutsatzen du Marx. Hegelen sistema idealista «irauliz», gizaki konkretu eta sentikorra dela egiazkoa errealitatea baieztatu du Feuerbachek. Marxek, espekulazio erlijiosora baino ekintza politikora emanagoa, Estatuari eta ekonomiari egokierazten die Feuerbachen problematika.

Laburbilduz: orain artekoaren balantze moduan zera esan daiteke. Bere pentsamenduaren ardatz eta bizkarrezur Feuerbachen problematikak segitzen du izaten. Halaz guztiz ere, puntu askotan aberastu eta gaititu du Marxek bere maisuaren pentsaera. Erlijioaren kritika, kritika politikoaren aurretikoa izanik ere, nahiko eta aski ez dela dioenean, esate baterako. Dagoeneko, ateismoa ez da ardatz nagusia, kritika zabalago baten elementu bat gehiago baizik. Alienazio politikoaren (Estatua) eta sozio-ekonomikoaren (dirua) bidez explikatzen da alienazio erlijiosoak, eta ez aldrebes. Erreboluzioak, erlazio sozialak eta gizartearen oinarriak berak irauli behar ditu. Horretarako, masen indar materiala behar da. Filosofiak jendoldeen intelektual arma behar du izan.

Zer da proletargoa? «Gizakiaren galera osoa». Zer da erreboluzioa? «Gizakiaren berreskurapen osoa», dio Marxek. «Sufritzen dutenak», proletargoak izango da erreboluzio honen «bihotza», eta «pentsatzen dutenak», filosofia beraren «burua». Bestela esanda, proletargoaren baitan dago gizadiaren geroa. Proletargoak, erabateko klase alienatuak, eginkizun unibertsal baten erantzunkizuna du bere gain: gizateria osoa ispilatu eta ordezkatu, gizakia gizakiarentzat izaki gorengo bihurtuz eta gizakiaren existentzia generikoaren eta indibidualaren arteko etena ezabatuz<sup>11</sup>.

<sup>11</sup> Honen gainean egin izan dira proletargoaren eta erreboluzioaren interpretazio mesianiko eta erlijioso batzuk. Azpimarra dezagun berriro: textuok 1844ekoak dira. Marxismoaren azken hitz eta puntutzat jo aurretik, Marxek ez zituela gerotxoago alde batera zokoratu egiaztatu beharko litzateke.

Marx oraindik ez da komunista. Textuotan ez da «komunismo» edo «sozialismo» hitzik aipatu ere egiten. Aldi honetako eskutitzetan bai, hor ageri da. «Komunismoa, idazten dio Rugei 1843ko irailean, abstrakzio dogmatiko bat da», eta «gizakien existentzia teorikoa ahaztuz, beraien baldintza materialetaz bakarrik axolatzen den sozialismoak ez dezake gizateria osoki emantzipa».

### 3. Kapituluia

## KOMUNISMO HUMANISTA

(1844)

Zenbat eta aberastasun gehiago sortu, orduan eta pobregoa da lan-gilea... Bere lanean zenbat eta gehiago objektibatu, zenbat eta berak sorterazitako mundua boteretsuago izan, hainbat eta behartsuago bihurtzen da bera, hainbat eta ezteusago.

(Marx, *44eko Eskuizkribuak*, 1844)

Kontua ez da proletario batek edo bestek, nahiz proletargo osoak, zer uste duen dela bere egitekoa. Proletargoa berez zer den jakin behar da eta honen arauera historian zer eginkizun dagokion aztertu. Bere helburu eta ekintza historikoak, gizarte egoerak berak markatzen dizkio ezinbestean.

(Marx, *Familia Santua*, 1844)

#### 3.1 1844EKO ESKUIZKRIBUAK

Parisen ekonomia politikoaren aurkipeña egin zuen Marxek. *Urte-karietako* bi artikuluri eta Pariseko lagunekin izandako eztabaidei esker iritsi zen aurkikuntza horretara. *Ekonomia politikoaren kritika baten hasimasiak* izena zeraman Engelsen idazlanak jabetza pribatua eta kapitalismoaren mekanismoak zorrotz eta latz kritikatzeko zituen. Ekonomistak sakon estudiatu behar zituelako ondorioa atera zuen Marxek irakurketa hartatik<sup>1</sup>.

Moses Hessen eragina ere oso garrantzitsua izan zen. *Parisetiko lau gutun* delako artikuluan etorkizuneko gizarte komunistaren perspekti-

F. Engels, *Escritos económicos varios*, Grijalbo, México, 1962, 3-21 orr. «Jenialtzat» zeukan artikuluko honek, askotan merezi duen inportantziarik ematen ez bazaio ere, in-fluentzia sakona eragin zion Marxi.

ka agertzen zuen<sup>2</sup>. Mesianismoa, Spinoza eta Hegelen filosofiak, eta Fourier eta Babeuf utopikoen dotrinak bateginez, geroko gizartea Jainko erreinuaren tankerapean helduko zela esaten zuen. Munduari berdintasuna, harmonia eta erosotasuna ekarriko zizkion Erreboluzioa amesten eta itxaron zuen.

Komunismo mesianiko hau gorabehera, Hessek ideia berririk ere ekarri zuen: ekintzaren filosofia. Arazo sozialari ematen zion lehentasuna. Munduaren transformakuntza zuen helburu eta jomuga.

Giro eta interes berri honetatik erne ziren 1844eko *Eskuizkribuak*, urte honetako otsailetik abuztura bitartean, seguruenik<sup>3</sup>. Abuztuaren 28an ikustaldia egitera joan zitzaion Engels, hain zuzen, eta *Familia Santua* idazteari ekin zioten elkarrekin.

Arnold Rugek 1844eko bi eskutitzetan ematen digu Marxen estudio grinaren eta lan egiteko moduaren berri. Beraren jakinmina aseezina eta neurritik kanporakoa bide zen. Langile aspergaitza eta porrokatua oso, gau eta egun iharduten omen zen irakurri eta irakurri. Idatzi ere aterrunerik gabe egiten zuen nonbait. Bolara hartan, buruan zerabiltzan bizpahiru gairi ekin arren, bukatzeke utzi omen zituen azkenean, zuzenduz eta aldatuz aritzen baitzen behin eta berriz.

Pariseko *Eskuizkribuak* hitzaurrean kontatzen du Marxek nola utzi zuen bazterrera Hegelen Deretxo filosofiaren kritika. Honela, filosofia gainontzeko «gai desberdinekin» ez nahastearren, «liburu berezitan» deretxoaren, moralaren eta politikaren kritika izkribitzea erabaki zuen. Langintza anbizioa inondik ere, baina, ekonomia politikoa aurkitu berria zuelako edo, burutzerik izan ez zuena. «Oraingo estudioaren lehen elementuak» *Franko-aleman Urtekarietako* orrietan aurkitzen direla dio. Eta proletargoaren zeregin emantzipatzailea azpillerrotuz amaitzen du Sarrera.

Parisen, 1844eko otsailetik maiatzetainokoa, ekonomistak irakurtzen aritu zen Marx nagusiki: Adam Smith, V. W. Schulz, C. Pecqueur, Sismondi, E. Buret, J. B. Say, David Ricardo. Autore hauengandik hartutako pasarteak laburtzen eta komentatzen ditu bere lehen *Eskuizkribuan*. Lau gai nagusiren inguruan biltzen ditu aipamen guztiak: alokairua, kapitalaren irabazia, lur errenta eta lan alienatua.

<sup>2</sup> HESS, Moses (1812-1875). Bonnen jaiotako filosofo eta idazlea. *Rhenaniako Kasetaren* berriemaile Parisen eta *Vorwärts* aldizkarian lankide gero, Komunisten Ligaren sorreran eskuhartu zuen (1847). Pentsaera sionistaren oinarritzko obra bilakatuko zen *Erroma eta Jerusalem. judu nazionalismoaren buruzko estudioa* deitu lanaren autorea da. M. Hessi buruz berri gehiago jakiteko, ik. J. Azurmendi, *Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa*, aip. lib. 71 or.

<sup>3</sup> Makinatxo bat eztabaida eta istilu sortuko zuten 44eko *Eskuizkribuak* direlakoak, *Pariseko Eskuizkribuak* izenez ere ezagutzen direnak, ez ziren 1932. urtearte publikatu. Moskuko Marxismo-Lenismoaren Institutoan aurkitzen da jatorrizko textua. Eskuizkritutako bat desagertua dago; bestalde, errematea ere falta zaio, ordurako *Familia Santua* idazten hasia baitzen. Ik. *Manuscritos: economía y filosofía*, Alianza, Madrid, 1968.

Hona hemen, llaburki, Marxen aurkitze ekonomikoak: «kapitalistaren eta langilearen arteko burrukak erabakitzen du alokairua». «Kapitala lan metatua da». «Langilea bere burua eta gizatasuna saldu beharrean aurkitzen da». Langilea merkantziarik miserableena da Marxen iritzian.

Kapitalistaren helburu bakarra irabazia da. Zer da kapitala? «Lana eta honen produktuekiko boterea. Kapitalistak ez du aginte hau bere dohain bereziengatik, kapitalaren jabe delako baizik».

Bide batez, kapitalaren metatzea, kontzentrazioa eta konkurrenziaren ondorenak aztertzen ditu. Marx zeraz ohartzen da, «ekonomia politikoa jabetza pribatutik sortzen dela... baina honek ez dituela haren legeak ulertzen».

Marxek luzaz dihardu lanaren alienazioaz, Feuerbachen erlijio teoria ekonomia politikoa iri aplikatuz. Lanean «arroztua», «besteratua» dago gizakia; beste norbait da beraren lanaren eta emaitzaren jabe: ondasunen jabetza pribatua duen kapitalista. Langilea ez da bere buruaren jabe: beste beti saltzen dio bere izatea denboraldi baterako. Lan alienatua da jabetza pribatuaren, alokairuaren, eta besteren kausa.

Lanean, beraz, bere «esentzia», bere «izatea», bere gizatasuna galitzen du langileak. Bere buruarengandik bakanduta eta etenda, «gizakia gizakiari arrotz zaio». Lanaren alienazioak sistema kapitalistarekiko morrontza dakar, erlijiozko arrozketak Jainkoarenganako menpetasuna dakarren bezala<sup>4</sup>.

*1844eko Eskuizkribuen* bigarren atala edo zatia, kapitala eta lanaren etsaigoaz aritzen dena, ia guztiz galdua da (43 orritatik 39). Gelditzen diren pusketek klase burruka dute azterkizun. Eta oinarritzko testua bihurtu da «sozialismo gizatiarraren» zale direnentzat.

Hirugarren eskuizkribua, lehenbiziko kapitulu biak izan zezik, oso rik dago. 35 orrialdeetan zehar, jabetza pribatuaren, lanaren eta komunismoaren harremanak ukitzen ditu Marxek.

Azkenik, ondorio honetara iristen da Marx. Ekonomiazko alienazioa desegiteko, alderantziz korritu behar da bidea: ekonomiazko alienazioa jabego pribatutik datorrenez, jabego pribatua desegin behar da lanaren arrozketara deuseztuko eta iraungiko bada. Jabetza pribatua («gizartea bere azpiestruturan bertan arrak jota dagoelakoaren konkretapena») eta diruaren premia desegingo duen erreboluzio komunistak, gizakia bere buruarekin eta naturarekin adiskidetu du. Giza-kiak bere izatea berreskuratuko du. Bere baitara itzuliko da, norbera

<sup>4</sup> Pariseko *Eskuizkribu ekonomiko-filosofiko* hauek lortutako arrakasta izugarria sozial demokrateri zor zaie lehenik (S. Landshut eta J. P. Mayer editoreei, batez ere) eta filosofia izpiritualistei, existentzialistei, etab. gero. Textu hauetan oinarritu dira Marxen interpretazio humanista, etiko, erlijioso eta antropologiko zenbait. Kristau inspiraziozko pentsalari sail batek ere Marxen pentsamendu osoa alienazio kategoria ardatz gisa harturik interpretatu izan du. Azken hauetan ezagunena J. I. Calvez izango da beharbada, ik. *El pensamiento de Carlos Marx*, Taurus, 1958.

izateko. Bere batasuna birraurkitu duen gizaki berriaren historiaren hasiera izango da komunismoa. Giza emantzipazio guztizkoa, alienazio mota guztien askapena, giza esentziaren gauzapena, amodioaren erreinua...<sup>5</sup>.

Hegelen filosofia eta haren dialektika kritikatu, ematen zaio amaiera hirugarren eskuizkribuari.

## 3.2 EKONOMIA ETA FILOSOFIA

*Zein da 44eko Eskuizkribuen berezitasuna? Zer berririk eskeintzen dute?*

Marx ekonomia politikoarekin topatzearen ondorio eta emaitza dira *Eskuizkribuak*. Ez da lehenengo aldiz Marx ekonomi arazoetaz (oroit egur lapurretaren auzia, etab.) bere iritzia eman «beharrean» aurkitzen dela. Baina, orain arte, eztabaida politikoeekin erlazionatutako ekonomi arazoak izan dira beti (*Hegelen Deretxo Fisisofiaren Kritikan*, adibidez). 1844ean, ordea, ekonomia politikoa bera aurkitzen du Marxek. Engelsek ireki zion bidea Inglaterri buruzko «zirriborro jeinutsuaz». *Eskuizkribuak*, hortaz, ekonomia politikoaz ari den «liburuxka berezietako» bat da. «Ekonomia politikoa eta filosofia» du azpiztituluz, ekonomia politikoa filosofiaren adarretako bat bezala hartzen du eta.

Baina ekonomia politikoaren aurkipen hori, filosofiaren barrutik egiten da, problematika feuerbachtiarraz kutsatutako filosofiatik, alegia. *Eskuizkribuak* ekonomia politikoaren kritika filosofiko bat dira: «ekonomia politikoaren kritika positiboak Feuerbachen aurkikundeei zor die bere egiazko oinarria». Feuerbach hartzen du Marxek «iraultza teoriko benetakoaren egiletzat», beraz.

Ekonomista klasikoen nozioak oso-osoki errepikatzen eta berresten ditu, fitsik ere aldatu gabe, kontzeptu berririk eransteke. Gonparazio baterako, Smithen «kapital ezarria» eta «kapital aldakorren» arteko bereizkuntza berrartzen du, gero *Kapitalan* kritikatu egingo duena. Ez du teoria propioki ekonomikorik lantzen. Puntu pilo bat (lanaldia, haur eta emakumeen lana, irabazi tasa, etab.) ia ikutu gabe pasatzen ditu. Bere helburua ez baita kontradikzio ekonomikoak aztertzea, kontradikzio filosofikoak baizik.

<sup>5</sup> Guztiz nabarmena da Marxen utopia textu honetan. Horrexegatik, kristau eskematan kalkatutako «gizakiaren erlijio» berri baten fundatzailatzat hartu du askok marxismoa. «Marxengan badago eskatologia nabarmen bat». Txillardegiren ustez, Euskal Herrian gertaturiko marxismoaren fenomeno erlijioaren ondorio bat omen da: «Tradizino gotorra duen heri bateko seme garenez gero, San Tomas bezalaxe hartu dugu Marx». Nolanahi ere den, Marxen asmoa ez zen inondik ere izan erlijio berriren bat sortzea; 1844ean, halare, oraino ez da espekulazio filosofikotik irten...

*Eskuizkribuak* ekonomia politikoaren kritika humanista dira. Ekonomia politikoaren aberastasunaren zientzia da batetik, baina baita miseriaren (langileen) zientzia ere bestetik. Proletarioa langileztat kontsideratzen da han, ez gizaki bezala. Moralarekin kontradikzioan dago, beraz. Hauxe da ekonomia politikoaren lehen ezaugarria: ezer ez dakiela gizakiaz. Horregatixe, gizakiaren izenean kritikatu du Marxek.

Ekonomia politikoaren giza alienazioaren zientzia da. «Kapitalismoaren existentzia zientifikoa». Zehazkiago esanda, ekonomia politikoak xuxen ikusten ditu gertakari ekonomikoak: langileen premia gorritzko egoera, kapitala, buges gizartearen aberastasuna; baina ez ditu gertakariok «kateatzen», ez du hauek produzitzen dituen mugimendua agertzen. Ez da osotasunaren zientzia bat, gizakiaren abstrakzioa egiten baitu. Ekonomia politikoak ez ditu, beraz, «lan alienatuaren legeak» baizik adierazten. Bestela esanda, ekonomia politikoaren zientzia bat da, dio Marxek, baina lan alienatuarena, gaurengungo gizarte kapitalistarena soilik.

Honela, Marxek ekonomia politikoari egiten dion kritika guztia «lan alienatuaren» kategoria filosofikora biltzen da. Politikak gizakiaren eskubideak hiritarren eskubideetatik bereizten dituen bezala (gizakia bere buruarengandik banatuz), ekonomia politikoak gizakia langilearengandik edo kapitalistarengandik bereizten du (gizakia bere izatetik banatuz).

Zertan datza langilearen alienazioa? Langilea bere lanaren produktioan arrotzen da, produkzio gintzan, alegia. Alienazioak bere buruarentzat arrotz bihurtzen du gizakia. Trukea eta lan banaketa alienazioaren isladapen eta agerpeak dira. Alienazioan, dirua bilakatzen da premia nagusia. Marxek, hortaz, Feuerbachen filosofi eskema (gizakiaren alienazioa Jainkoagan) ekonomia politikora aldatzea besterik ez du egiten.

*Eskuizkribuek*, nola mamiz hala azalez, liluraturik uzten dute irakurlea; lehen begirada batean, toki ezagunean aurkitzen baita: jabetza pribatua, alokairu, irabazia, langilearen alienazioa eta askapena. Kontzeptu hauek denak, edo ia denak, *Kapitalan* aurkitzen dira, eta beraz, beronen aurreaio eta ziriborrotzat jo daitezke. Gauzak besterik dira, ordea.

44eko *Eskuizkribuak* ez dira inolako teoria ekonomiko edo politiko berririk. Ekonomia zko alienazioak eta erlijiozkoak ez dute funtsean izaera desberdinik; ekonomistaren «langilea», gertutik begiratuta, filosofoaren «gizakia» besterik ez da; ekonomistaren teoria ez da gizakiaren teoriaren ohiartzun zuzena baizik. *Eskuizkribuotan*, pentsaeraren eta giza ekintzaren arlo guztiak filosofiaren atal eta alderdiak baino ez dira<sup>6</sup>.

<sup>6</sup> L. Althusser, «Los Manuscritos de 1844» de Marx, in *La revolución teórica de Marx*, aip. lib., 126 or.



### 3.3 44EKO ESQUIZKRIBUAK: MARXEN AZKEN HITZA?

Honatz marxistak aspaldion bitan banatu dituen galdera funtsezkoa.

Marxek idazki honetantxe bertan adierazten duenez, inporta duena «galderak jartzeko era» da. Ez kontzeptu isolatu bat edo beste, kontzeptuen multzoa baizik. «Problematika», alegia.

Zein da, orduan, *Eskuizkribuen* problematika? «Hizkuntza bat», «forma» filosofiko bat ezezik, pentsakera jakin bat ere aurkitzen da *44eko Eskuizkribuetan*: «Gizakiaren problematika». Marxek jartzen duen galdera berria, gizakiaren galdera da. Feuerbachek Hegelen sistema «irauliz» aurkitu duen egiazko gizaki mugatu, sentigarriarena. Hegeliar idealismoa Feuerbachen sasimaterialismoan «iraulerazi» nahi du Marxek: «Hegel Feuerbach baitan» itsatsi eta txertatu<sup>7</sup>.

Hegelen dialektikaren «gainazpikadura» hau, *1844eko Eskuizkribuen* ezaugarri den «humanismo» hau al da Marxen pentsamenduaren azken hitza? Hauen ondorio, jarraipen eta luzapen huts ote dira *Manifestua* eta *Kapitala*?

Makina batek mugatu ditu bere erreferentziak *1844eko Eskuizkribuotara*, gainerako guztia gehigarri hustzat joz. Gaztaroko obra tinko honetan ikusi bide dute Marxen teoriaren giltza eta gakoa.

Hortxe dago, beraz, kokka: ea Marxek 1844 ondoko lanetan *Eskuizkribuen* problematika filosofikoari fidel irauin eta eutsi izan zion ala ez. Ea hausturarik gertatu izan zen ala ez. 1844eko Marx gaztea, «marxista» al zen?

Galdera honi emango zaion erantzunak baldintzatuko du marxismoari buruzko interpretazio guztia<sup>8</sup>.

### 3.4 UDA BATEZ PARISEN

Pariseko egonaldia guztiz erabakiorra izan zen Marxen bizitzan. Parisen egin zen komunista. Parisen ezagutu zituen, besteak beste, Blanc, Heine, Proudhon, Bakunin eta bere adiskide mamia izango zen Engels. Teoria aurkitu zituen klase burruka, hezurramitutako kapitalismoa, «gizartearen anatomia» den ekonomia, eta proletargo

<sup>7</sup> Althusserrek azpimarratzen duen moduan, *Eskuizkribuak* dira Marxen testu hegeliario bakarra (Doktoradutzako Tesia baztertuz). Unibertsitateko urteak kenduta, Marx gaztea ez zen sekula hegeldarra izan. Eskuarki defenditu ohi den Marx gaztearen hegeliismoaren teoria mito bat besterik ez da. Ik. *La revolución teórica de Marx*, ip, lib. 26 or.

<sup>8</sup> Problemaaren gakoa eta ikuskeren diferentziak xehekiago aztertu nahi duen irakurleak jo beza Ricardo Alberdi eta Rafael Beldaren *Introducción crítica al estudio del marxismo* liburura, CEASO, Madrid, 284 orritik aurrera.

antolatua. Parisen hasi zen frantses langile elkarteekin eta alemanez osaturiko «Zuzenen Ligarekin» harremanetan.

Aleman burgesia liberalak eskaini ez ziona topatu zuen Marxek frantses mugimendu koministaren baitan: «egiazko praxia, egiazko teoria positioaren baldintza». Hala eta guztiz ere, beti gorde izan zuen halako urruntasun bat ixilpeko erakunde haiekiko, ez baitzen geiegi fido beraien pentsakera nahasiaz. Engelsek berak ere azpimarkatu izan zuen haien «kristautasunaren» izaera kontradiktorioa, 1843ko artikuluetan.

1844eko ekainean, Silesiako ehuleen errebolta gertatu zen. Errebolta horrekin bere lehenengo agerpena egin zuen plaza politikoan aleman proletargoak. Friedrich Gilen IVaren errepresiozko erantzuna ikaragarri gogorra izan zen<sup>9</sup>.

Pariseko egonaldi honetan, Heinrich Heine, orduko aleman poeta haundienaren adiskide egin zen Marx. Behin batez, Heinek berak bainatu zuen Jenny txikia, sukar haundi batek konbultsioak eragin zizkion batean, hala heriotzatik libratuz. Silesiako erreboltariei, omenaldi gisa, *Ehule errukarriak* izeneko poema hunkigarria eskaini zien Heinek, *Bruselaseko aleman kazetan*. Beste poema batean, *Alemania, neguko ipuina* delakoan, etorkizuneko gizarte komunistaren «Urre Aroa» kantatu zuen sutsuki.

Parisen, sarritan ikusten zuen Marxek Proudhon<sup>9</sup>. Hitzaspertu eta solasaldi franko izaten zuten elkarrekin, zenbait aldiz garratz samarrak gertatzen zirenak, gainera. Sozialismo frantsesaren burutzat zeukan Marxek hamar urte zaharrago zen laguna. *Vorwärts*, Pariseko aleman egunkariko artikulua batean Weitling, aleman langile jostunarekin gonbaratu zuen, hark bezala honek ere lan haundia egin baitzuen langileen artean. Azkenik, Baueren kritiketatik defendituz, mirespenezko omenaldia eskeini zion bere «maisuari» *Familia Santuan*, 1844eko bukarran.

Sozialismoaren historiako beste pertsonaia famatu bat ere ezagutu zuen Parisen: Bakunin<sup>10</sup>. Lagun haundiak egin ziren. Marxen jakintza

<sup>9</sup> Ruge «prusiarrek» inportantzi gabeko gertakizuntzat jo zuen *Vorwartsen* argitara emandako artikulua batean. Marxek oso gogor erantzun zion. Handik aurrera, ean gabe doa, hautsi egin zituen erabat Ruge antikomunistarekiko harremanak.

<sup>9</sup> PROUDHON, P. Joseph (1809-1865). Frantses pentsalari eta ekintzaile anarkista. 14 urterekin tipografo, beka bati esker Parisen estudiatu ahal izan zuen. 1840ean argitaratu zuen bere obrarik entzutetsuena: *Zer da Jabegoa?*, Marxek *Rhenaniako Kazetan* laudorioz aipatua. Bizpahiru urte gerotxoago, ordea, beraren *Miseriaren filosofia* izeneko liburua Marxen erantzuna eta «kritika garratza» jaso zuen *Filosofaren miseria* deritzon liburuan. Proudhonen ideiak ederki azaltzen ditu: J. Bancal, *Proudhon: pluralisme et autogestion*, Paris, 1970, 2 t.

<sup>10</sup> BAKUNIN, Mikhail (1814-1875). Noble jatorriko errusiar iraultzailea. Artile-riako ofizial zelarik, arma karrera bertan behera utzi eta Berlineko Unibertsitatera joan zen 1841ean. Fichte, Hegel eta Feuerbachen eraginez, *Alemanian erreakzioa* argitaratu zuen 1842an. Pragako erreboltan parte hartu zuen 1848an. 1860ean *Manifestua* itzuli

maila miresten eta goersten zuen Bakuninek. Marxi, berriz, ez zion bere lagunak grazia haundirik egiten, ez zen guztiz fidatzen errusiar anarkistaz. «Berak idealista sentimentaltzat tratatzen ninduen —dio Bakuninek— eta arrazoia nuen nik ere». Handik urte batzutara, elkarren arteko haustura gertatu zenean, burruka beltzean arituko ziren biak.

Baina batez ere, 1844eko uda hartan, abuztuaren 28an hain zuzen, bere bizitzako lagun eta lankiderik zintzoena aurkitu zuen Marxek: Engels. Engelsen familia, elizatiarra eta politikoki atzerakoia izan arren, ekonomi mailan aurrerapenaren puntan zegoen gizarte klase burgesekoa zen<sup>11</sup>. Engels Manchesterera aldatu zen 1842an, bertan kotoi lantegi bat baitzuen bere aitak: Ermen eta Engels, jostaria fabrikatzen zuen 800 bat langileko enpresa. Han britainiar industrigintzaren eta aldaketa tekniko berrien lekuko zuzena izan zen. Kapitalismoaren indarra bete-betean nabari zen.

Manchester, 400.000 bizilaguneko industrigune ikaragarri indartsua ezezik, kartismoaren, langile klasearen lehen mugimendu zabalaren hiriburua ere bazen. Mugimendu kartista sufragio unibertsalaren eta gainontzeko eskubide politikoen alde burrukatzen ziren langilez eta burgesez osatua zegoen. Kartismoaren barruan benetako langile mugimendu politiko bat hasia zen indartzen. Inglatera, baitare, Tradedunion elkarte ezagunen sorterrria zen. Engelsek, bada, industri langileen ezagutza in situ egin zuen; haien bizikondizio gogorrek txundituta utzi zuten. Orduantxe izan zuen lehenengoz explotazio kapitalistaren esperientzia zuzen-zuzena.

*Franko-aleman Urtekarietan* bi artikulua agerterazi zituen Engels-ek: *Inglaterrako egoera bata, eta Ekonomia politikoaren kritika baten hasimasiak* bestea, Marxi hain zirrara bortitza eragin ziona. Kapitalismoa desegiteko bortxaren eta indarkeriaren bidetik jo behar zela zioen berak.

Urte honetako abuztuan hamar egun igaro zituen Marxekin Parisen, Vanneau kalean:

*1844eko udan, Marxi ikustaldia egin nionean Parisen, gai teoriko guztietan irizkide ginela konturatu nintzen. Harez gero, elkarrekin egin genuen lan.*

Nahiz eta bide ezberdinetatik ibili, hura liburu artean eta hau lantegi barruan, puntu berdin-berdinerara helduak ziren bi-biak. Manches-

zuen errusierara. Lehen Internazionalako partaide 1867an, italiar lehen sekzioa sortu zuen Napolesen, baina La Hayako Kongresuan, 1872an, Elkartetik jaurtikia izan zen bere jarraitzaileekin batera. Anarkismoaren aitzat hartu izan da.

<sup>11</sup> Engelsei buruz are gehiago jakiteko, ik G. Mayeren biografia klasikoa: *Friedrich Engels, Eine Biographie*, La Haya, 1934, 2 t. Frantsesez irakur daiteke: L. Ilitchev, *Friedrich Engels. Sa vie, son oeuvre*, Ed. du Progrès, Moscou, 1976. Espainieraz, J. M. Bermudo Avilaren *Conocer Engels y su obra*, Doposa, Barcelona, 1979.

tereko denboraldi emankor hartan ezagutu zuen Engelsek, bestalde, bizitza guztiko laguna izango zuena ere: Mary Burns, ehundegi batean lan egiten zuen irlandar neska gaztea.

### 3.5 FAMILIA SANTUA

Berlineko «Askatuen» kontrako kritika gupidagabe bat izan zen elkarren arteko lanaren lehen ondorio eta fruitua: *Familia Santua*. Hasiara batean, liburuxka soil bat izatekoa zen, *Kritika kritikoaren kritika Bruno Bauer eta beronen kideen kontra* izenarekin. 1844eko abuztua eta azaroa bitartean idatzia, inprentarakoan, Marxek izenburua aldarazi zion eta, Bauer anaiei erreferentzia eginez, *Familia Santua* izen ironikoaz kaleratu zuen, «Kritika kritikoaren kritika» azpituularen pean, 1845eko otsailean<sup>12</sup>.

B. Baueren *Literatur Kazeta Orokorra* Berlineko hegalezale gazteen expresibide nagusia zen. Marx eta Engelsek, haien iritziak kritikatu eta «aldebeteaz» gain, zenbait puntu desberdin jorratzen eta sakontzen dituzte izkribu honetan: Hegel eta honen ondoko filosofia, Proudhon, judu arazoa, sozialismoa, 1789ko Erreboluzioa, frantses materialismoa eta Eugene Sueren *Pariseko misterioak* elaberria.

44eko *Eskuizkribuetako* gogoetarik gehienak birraurkitzen dira *Familia Santuan*, zenbaitetan aurreraka eginez. Proudhon defendituz, jabetza pribatuaren eta «beronen kontrakoa den proletargoaren» harremanak aztertzen dira. Kontraesan honen baitan, «jabe pribatua da alderdi gordetzaille edo kontserbatzaillea, eta proletarioa alde sunsitzaille edo desegilea. Lehenbizikoa, egoera mantentzen ahalegintzen da, kontradikzioa deuseztatzen, aldiz bigarrena». Hegeldar kritika erreboluzioaren zerbitzuan ezarria da, hitzetatik eta espekulaziotik ekintza mailara pasatuz. Bere gisa, ideiek ez dute ezer sortzen ez eraldatzen. Ideiak eragileak izan daitezten, giza praktika behar da.

Feuerbachen paradigma humanistari jarraituz, historia gizakiak egiten duela gogorazten du Marxek. Historia ez da jainkorik, «historiak ez du bere kabuz deus egiten; ez du neurrigabeko ahalmenik». Gizakia bera da histori-egile nagusia; baina ez gizaki bakartua, «atomizatua»; elkarrekiko harremanean, giza-arteetan bizi dena baizik. «Masek» egiten dute historia.

44eko *Eskuizkribuen* komunismo azterketa filosofi mailakoa zen osoki. Ez zen bertan langileen klase burrukaren aipamenik egiten. *Familia Santuan*, ostera, eginbide explizitu eta konkretuagoa du proletargoak:

<sup>12</sup> K. Marx-F. Engels, *La Sagrada Familia*, Akal, Madrid, 1981. Berau da Marx eta Engelsen lehen liburu inprimatua; Frankfurturten ikusi zuen argia 1845ean.

*Manchester eta Lyoneko lantegietan diharduten masa langile hauek, komunistak alegia, ez dute sinesten beraien industri ugazabak pentsamendu hutsaren bidez desargertarazi litezkeenik... Badakite jabetza, kapitala, dirua, lan alokatua eta antzerakoak ez direla inondik inora fantasmagoria hutsak, beren autoestrainamenduaren emaitza guztiz objektibo eta praktikoak baizik, eta beraz, era praktiko eta objektibo batez ezabatuharrekoak.*

Edukinari dagokionez, berrikuntza bat dakar textuak: proletargoaren «eginkizun historikoarena».

*Proletargoak ezin du bere burua askatu bere bizikondizio propioak abolitu gabe. Ezin du bere bizikondiziorik abolitu gaurko gizarteko baldintza lazarriak abolitu gabe.*

Proletargoak burges gizartearen sutsiera dakar berekin. Bere burua askatuz, gizarte osoa askatzea da proletargoaren egiteko historikoa<sup>13</sup>.

Bauer, garai bateko lagun zaharra gogor astindu ondoren, Eugène Suren *Pariseko Misterioak* elaberri herritara aztertzen du Marxez. Haren sozialismo humanitario eta sentimentala mespretxatzen du. Idazle on izateko, populuaren burruka eta sufrimenduez ihardutea ez zaio aski iruditzen. Bide batez, Bauerek ezarritako «Masa» eta «Izpirituaren» bereziketari erasotzen dio. Baurek uste du Izpiritua dela historiaren motorra, eta mundua aldatzeko aski dela «kritika kritikoaren burulana».

Berriro ere judu arazoaz ari dela, teori mailako emantzipazio hutsa ameskeriatzat jotzen du Marxez. Ezinbestekoak dira baldintza materialak: ideien mailako burruka soilaren kontra, ekintzak, «praxiak» du axola.

Judu arazoari buruzko aipamen berri honek ederki du adierazten antisemitismoaren eta antikapitalismoaren arteko lotura. Judaismoak, gizarte burgesak eta diru sistemak berebiziko zerikusia dutela iruditzen zaio. Juduen berezitasuna, judu «izaera», dirua da; berau da desegin behar dena. Diruaren kontra burrukatzea, judaismoaren kontra burrukatzea da. Arazoa ez da erlijioaren aurka aritzea (ateismoa, dio, «teismoaren azken maila» da), diruaren aurka baino.

Marxez politikazko emantzipazioa baino harago joan nahi du:

<sup>13</sup> Marxismoa «mesianismo» proletariotzat edo, Rubelen hitzak erabiltzeko, «eskatologiatzat» daukaten interpretazioek textu honetan oinartzten dute. «Proletargoa» izeneko Mesias berri baten profeta izango litzateke Marx. Egia besterik da da, ordea. *44eko Eskuizkribuek* bai, iritzi horiei bidea ematen die, baina ez *Familia Santuak*, ze, lerro horietxen segidan, salaketa aurretiaz igerri izan balu bezala, proletarioak ez direla jainkoak eransten baitu: garaipena lortzean, proletargoa ere iraungi egingo baita jabetza pribatuarekin batera.

*Giza eskubideek ez dute gizakia erlijiotik askatzen, baizik eta erlijio askatasuna segurtatzen dute, ez dute jabetzatik askatzen, baizik eta jabetza askatasuna ahalbidetzen, ez dute bere bizimodua irabazteko premia-tik askatzen, baizik eta enpresa askatasuna garantizatzen.*

Askatasun formalen kontradikzioak ageri-agerian jartzen ditu hor Marxek. Kontuz: ez ditu demokraziaren ekarriak arbuiatzen, haien muga eta hutsuneak salatzen baizik. Beharrezkoak izanagatik, ez zaizkio nahiko iruditzen.

Obraren atal oso bat frantses eta ingeles materialismoaz ari da. Materialismoaren baitan filosofi joera edo mota bi bereizten ditu: bata, mekanizista da, gaitzetsi beharrekoa; eta bestea, sozialismora daramana da, onargarria dena. Marx XVIII mendeko frantses materialisten alde dago puntu askotan, baina metafisikakerian erori gabe, jakina.

Sasoi hartan, Pariseko aleman erbesteratuen kolonia ugariari zuzendutako *Vorwärts* aldizkari erradikalean aktiboki parte hartu zuen Marxek. Hango zenbait artikuluk sutan jarri zuten Prusiako Erregea. Beronek eraginda, Guizot, Barne Arazoetako ministroak, errebista itxi eta Marx Frantziatik botatzea erabaki zuen. Horren ondorioz, 1845eko otsailaren lehenean Paris utzi, eta Bruselasen finkatu zen 1848ko Erreboluzioa lehertu zen arte. Honela, 1845eko apiriletik irailararte Engels eta biak elkarrekin ibili ziren Bruselas aldean.

Belgikan pasatutako hiru urteotan, estudioan eta politikagintzan murgildu zen osorik. Bere bizitzaldiko urterik zorionsuenak izan ziren haitxek, beharbada.

Engelsek moldatua eta bukatua zuen ordurako *Inglaterrako langile klasearen egoera* izeneko lan mardula<sup>14</sup>. Bitarte horretan, Inghaterratik itzuli berri bat egin zuten, Zuzenen Ligakoekin, Weitlingekin eta ingeles sozialistekin harremanak estutzeko eta sendotzeko.

<sup>14</sup> Bertan, Manchester eta Salfordeko fabrika langileen bizimodu gogor eta latza xehetasun haundiz deskribitzen du. Bestalde, «industri erreboluzio» hitza edo esamoldea beronek erabili zuen lehen aldiz liburu honetanxe bertan.

**BIGARREN PARTEA**

**HAUSTURA**  
(1845)

## 1. Kapituluia

### HISTORIAREN TEORIA BERRIA (1845)

Filosofok mundua desberdinki interpretatu besterik ez dute egin; berau aldaraztea da kontua.

(Marx, *Feuerbachi buruzko tesiak*, 1845)

Aleman kritikak ez du utzi filosofiaren alorra, ezta bere azken saioetan ere. Bere presupostu teoriko orokorrak aztertu beharrean, problema guztiak sistema filosofiko jakin batean desarroilatu ditu: hegeldar sisteman. Mistifikazioa ez da erantzunetan bakarrik aurkitzen, galderetan bertan baizik.

(Marx-Engels, *Aleman Ideologia*, 1845)

Guk ez dugu zientzia bat besterik ezagutzen, historiaren zientzia.

(Marx-Engels, *Aleman Ideologia*, 1845)

«1, 67 m. luze, ile eta betondo beltzak. Kopeta zuzena. Begi beltzaranak. Aurpegi borobila. Kolore zuria. Sudur zapala. Aho kaskarra. Kokots biribila». Hara nola deskribitzen zuen Marx ixpia prusiar batek 1845. urtearen hasieran.

27 urte zituenerako, sustrairik gabeko «judu erratu» aberrigabea zen Marx, beraren jatorriari uko egin bazion ere. Treveris, Bonn, Berlin, Colonia, Kreuznach eta Paris ibili zituen bohemia bidean. Eta orain Bruselas. Urtetan gaztea izanagatik, esperientziaz aberatsa zen jadanik bere bizitza.

Europa aldean gauzak ez zihoazen batere ondo. Prusia era Alemania despotismoan murgildurik erabat. Austria, Metternichen zuzendaritzapean, politikoki guztiz kontserbakorra. Nikolas Lehenarekin errusiar inperioa inoiz baino autokratikoagoa. Louis-Philipperen Frantzia gero eta burgesagoa iduri. Ingalaterra viktoriarra liberalagoa izanik ere, sufragio unibertsala onartu nahi gabe eta kartismoa pott eginta. Erreinu Batua industrializazioaren puntuan egon arren, langileriaren egoera



benetan trajikoa izaki, Engelsek esan bezala. Leopoldo Lehenaren Belgikari dagokionez, berriz, industri aldetik begiratuta nahiko aurreraturik ibili arren, bere neutraltasuna gorde ezinik.

Marxen emaztea eta alaba otsailean iritsi ziren Bruselaseran. Marx sosik gabe zebilen beti bezala, baina Engelsen diru laguntzari esker, go-seak hiltzeke bizitzeko moduan. Leopoldo Erregeri «Belgikan bizi izaten jartzeko baimena» eskatu behar izan zion. Bai lortu ere azkenean, nahiz eta horretarako «momentuko politikari buruzko lanik ez zuela argitaratuko» zin egin behar izan.

Gogotik eta afantsu ekin zion lanari. 1845eko martxotik 1848ko otsailean Bruselasetik aldegin zuen arte, gutxienez hamabost bat koaderno bete zituen irakurritako liburuen oharrekin. 1846ean, *Libregan-bioari buruzko Diskurtsu bat* idatzi zuen frantsesez.

Denetarik eta etengabe irakurri ohi zuen, gizon konformagaitza baitzen honetan ere. Bestalde, ezkutitzez harreman estuan jarraitu zuen Engels, Moses Hess, Jung Weitling eta besteekin. Kontratu bat ere izenpetu zuen Karl Leske editorearekin *Politikaren eta ekonomia politikoaren kritika* izeneko obra bat argitaratzeko, trukean 3.000 franko jasotzekotan.

*Familia Santua* zarata haundirik gabe plazaratu zen, testu elkor samarra eta irakurgaitza baita, izan ere. Engelsek berak aitortu zuen 1846ko eskutitz batean, «diburu zeharo harrigarria», «duzeegia» eta ulertezina zela, nahiz eta oso bikaina izan.

Lehen egunetan, Le Bois Sauvage ostatuan gela bat hartu zuen Marxek, baina gero, familiarekin juntatzean, apartamentu txiki batean bizi izan ziren hiringuruan, Pacheco kaleko 35ean. Jenny familia izateko zegoen berriro.

## 1.1 FEUERBACHI BURUZKO TESIAK

Fetxa hauetan idatzi zituen *Feuerbachi buruzko tesiak*<sup>1</sup>. Esan bezala, Feuerbachen problematika humanista eta antropologikoa bete-betean bereganatu zuen Marxek. Baina, 1845eko martxoan, kontuak garbitu beharra sentitu zuen inondik ere, harekiko diferentziak eta «ikusmira kontrasta» azaldu beharra, alegia.

Hamabi tesi dira denera. Lehenengoan, Feuerbachen materialismoa kritikatzan du, errealtatea ez baitu giza aktibitate sentikortzat

<sup>1</sup> Hasiera batean beste titulu bat zuten: *Ad Feuerbach*. Tesiok ez zituen Marxek argitaratzeko asmoz egin. Engelsek aurkitu zituen haren koaderno zaharren artean eta 1887an argitara eman. Begira zer dioen Engelsek: «Berauek geroago aintzineratzeko oharrak dira, luma arinez idatzirik ohar batzuk, eta ez inola ere publikatzeko asmoz eginak, baina hala ere balio preziazgaitz batekoak, zeren hura mundulerkuntza berriaren ernamuin jentiaia dadukan lehen dokumentua baita». Ik. *L. Feuerbach eta aleman filosofia*, aip. lib. 117 or.

hartzen. Horregatik, praktika «iraultzailea» ezin du ulertu ere egin Feuerbachek:

*Orain arteko materialismo guztiaren akatsik nagusia —Feuerbachena barne— objektua, errealtatea, zentzubidezko mundua, objektu edo intuizio bezala bakarrik atzeman izana da, ez, ordea, giza iharduera konkretu bezala, praxi bezala, subjektiboki...<sup>2</sup>.*

Bigarren tesiak dioenez, giza pentsamendua egia objektibora heldu ote daitekeen jakitea ez da teori kontua, arazo praktikoa baizik: «Praktikan frogatu behar du egia gizakiak».

Hirugarrenak praktika (praxi) iraultzailea azpimarratzen du berriro:

*Gizakiak zirkunstantzien eta hezkuntzaren produktu, gizaki aldatuak hortakoz zirkunstantzia eta hezkuntza aldatuen produktu omen direlako teoria materialistak ahaztu egiten du zirkunstantziok, hain zuzen, gizakiek aldatzen dituztela, eta hezitzailea bera ere hezi beharra dagoela...*

Halabada, ingurune sozialak, bizi duen giroak zertzen eta baldintzatzen du gizakia, noski, baina une berean, gizaki honek berak ere aldatu egiten du giro hori. Hezigai eta hezitzaile, era batera. Elkarrekin-tza dinamiko bat ematen da gizabanakoaren eta ingurunearen artean.

Seigarren tesi famatuan, Feuerbachi aurpegiratzen dion okerra zera da, «erlijiozko izpiritua» mundu honetako prozesu historiko errealeetik kanpo balego bezala kontsideratu izana. Gizakia, bere horretan, «erlazio sozialen multzoa da». Alegia, gizakia ez da abstrakzioaren bat, gizarteko harremanen osotasuna baizik.

Orobat, zazpigarren tesia ere: «Feuerbachek ez du ikusten erlijio izpiritua ere emaitza sozial bat dela eta berak aztertzen duen indibiduo abstraktua ere forma sozial jakin bati lotua dagoela». Erlijiozko ideologiaren jatorria gizarte egituretan aurkitu behar da. Feuerbach, sus-traietara jo beharrean, metafisika edo psikologiaren mailan gelditzen da. Doktrina abstraktua eta filosofikoa den ateismoari erlijioaren kritika praktikoak jarraitu behar dio<sup>3</sup>.

Bide eta hari beretik doa zortzigarrena ere: «Bitziza sozial guztia funtsean praktika da. Teoria mistizismora lerrarazten duten misterio guztiek giza praktikan eta praktika honen ulerkuntzan dute beren irtenbide arrazionala». Marxek azken ondorioetaraino darama Hegelen esatera sonatua: «Erreal den guztia arrazoizkoa da eta arrazoizkoa den

<sup>2</sup> *Tesis sobre Feuerbach*, in *Ideología Alemana*, Grijalbo, Barcelona, 1970. Marxen testua Moskuko Marxismo-Leninismoaren Institutoak publikatu zuen lehen aldiz 1932an, Engelsen zuzenketarik eta gehigarririk erantsi gabe.

<sup>3</sup> Erlijiotasuna produktu sozial huts-hutsera mugatuz eta murriztuz, erlijio sentimenduen izaera era sakontasuna gutietsi egiten du Marxek.

guztia erreala». Baina, bere arrazonamenduaren ardatz eta oinarritzat praxia eta beronen ezagutza jartzen ditu.

«Materialismo zaharren ikuspuntua burges guzartea da, dio harrigarren tesiak. Materialismo berriaren ikuspuntua giza gizartea edo gizateria soziala da».

Ezgunena hamaikagarren tesia da, batere dudarik gabe:

*Filosofoek mundua desberdinki interpretatu besterik ez dute egin; berau aldaraztea da kontua*<sup>4</sup>.

Marxek ez du munduari buruzko interpretazio edo ulermen hutsaren mailan geratu nahi, baizik eta, beronen gain arituz, aldatzea eta iraulkatzea nahi du. 1845ean, ba, aldebat uzten du munduaren kontentplazio hutsezko filosofia eta aldaketari ematen dio lehenetsuna. Gizartea ezagutzaz eraldatzea, horixe izango da aurrerantzean Marxen ardurara eta ahalegin nagusia. Hala, gero eta garbiago, politikagintzak eta teorizintzak bat-bat egiten dute Marxengan, hautsiezinezko bikotea osatuz. Ez dago teoriarik politikarik gabe, ez eta politikarik teoriarik gabe.

Marxen objektzio nagusia honako hauxe da: Feuerbach bide erdian gelditu da; ez da egiazko materialista izatera iritsi. Bere pentsakera materialista azken ondorioetaraino eramateke utzi du. Hankaz gora zebilen Hegel zutik jartzen saiatu arren, ez da haren dialektika gainditzeko gauza izan. Hegelek *Izpirituan* mamitutako mitologia xuxen desmuntatuz, erlijioaren kritiko zorrotza izan da, baina, bestetik, «gizaki» konzeptua era ezkritiko, ezdialektiko eta metafisiko batez darabil<sup>5</sup>. Marxen arauera, Feuerbachek hegeliar problematika filosofikoaren preso bihurri eta asaldua izaten jarraitzen du.

1845eko apirilean, Marxtarren bizitzan garrantzi apartekoa izango zuten pertsona bi elkartu zitzaizkien Bruselasean. Engelsen zen bata, eta Helene Demuth, Jennyren amak bere alabari etxeko gobernuan laguntzeko hartu zuen 21 urteko neska gaztea, bestea.

Lehenengo adiskide zaharrekin topo egin ezezik, lagun berri ugari ere egin zuen Marxek Bruselasean. Kafetegi batean bildu ohi ziren tertulia ederrean munduaren aldaketaz eta komunismoaren premiaz elkarrekin eztabaida luzeak edukiz. Bestalde, Leskeri agindutako liburua ere idazten hasita zegoen. Bertan, Estatuaren historiari buruzko planketa inte-

<sup>4</sup> Engelsek aldaketatzko bat egin zion: «Filosofoek mundua desberdinki interpretatu besterik ez dute egin; kontua, *ordea*, berau aldaraztea da». Alabaina, Marxen textuan «ordearik» ez dago: munduaren transformakuntza ez baitzaio beronen ulerkuntzari kontrajartzen inola ere.

<sup>5</sup> Hara zer dioen honi buruz Althusserek: «*Feuerbach* buruzko tesieta aurkitzen diren argi-izpiek liluratuta uzten dituzte hurbiltzen zaizkien filosofoak, baina denok dakigu argi izpiak itsutu egiten duela argitu beharrean, eta ez dagoela deus zailagorik gauaren ilunbetan hausten den argi leherketa non aurkitzen den jakitea baino», ik. *La revolución teórica de Marx*, aip. lib. 27 or.

resgarri baten barruan, «nazionalitatea eta herria» zeritzon atala ageri zen. Tamalez, ezerezean geratu zen proiektu hau ere.

1845eko udapartean, Jenny beraren alabatoarekin eta Helene Demuthekin Treverisera itzuli zen, amarenera. Marx Ingalterrara eramateko egokiera izan zuen hala Engelsek. Bi hilabetez egon ziren bertan, lehenbizi Manchesteren eta gero Londresen. Kapitalaren habia eta industri iraultzaren seaska bertatik-bertara ezagutzeko aukera izan zuen horrela Marxek. Engelsek beraren lantegia, eta bertako langileen egoitza errukarriak erakutsi zizkion. Mary Burnsen eskutik, modu berean, langile askoren eta berauen elkartean ezagutza egin zuen, G. J. Harney, buruzagi kartistarena, besteak beste.

Karl eta Jenny abuztuaren azkenean juntatu ziren berriz Bruselaren. Irailaren 26an, Laura, bigarren alaba ekarri zuen Jennyk mundura.

## 1.2 ALEMAN IDEOLOGIA

1845eko irailean erabaki zuten Marx eta Engelsek, Bauer, Max Stirner eta Feuerbachen aurkako obra berri bat izkiriatzea. *Aleman Ideologia* izan zen liburu hau, 1845eko iraila eta 1846eko abuztua bitartean egina<sup>6</sup>.

Aurreko beren kontzientzia filosofikoarekin kontuak zeharo garbitu nahi izan zituzten:

*1845ean, biok Bruselan geundela, aleman filosofiaren ideologiaren kontra, geure ikusmira kontrasta —hau da: Historiaren konzepzio materialista, berau batez ere, Marxen estudioen fruita zena— elkarrekin laboratzea erabaki genuen; egiaz, gure aurreko filosofi kontzientzia garbitzea besterik ez zena. Erabaki hau Hegel ondoko filosofiaren kritika baten itxuraz bete zen<sup>7</sup>.*

Autokritika egin nahi izan zuten, beraz. «Liburu hau geuron buruan garbi ikusteko idatzi genuen», oroitaraziko zuen Marxek berak geroago.

Gai desberdin franko ikutu eta harrotzen duen liburukote honen zatirik ezagunena, eta teorikoki nabarmenena, lehenbizikoa da, Feuerbachi buruzkoa, burutzen azkena izan zen arren. Bertan finkatzen ditu Marxek «materialismo berriaren» oinarri teorikoak.

<sup>6</sup> Hasieran bi liburutzarrez moldatua eta osatua egon behar zuen lan hau ez zen Engelsen eta Marxen bizitzan agertu. Eskuizkribuok «saguen kritika marraskatzaileari» botoak izan ziren literalki, orri mordoak karraskatu eta hondatu baitzuten. Moskuko Marx-Lenin Institutoak argitaratu zuen 1932an. Euskaraz ere argitaratuko al da noizpait, asko luzatzeke. Ik. *La Ideologia Alemana*, Grijalbo, Barcelona, 1970.

<sup>7</sup> F. Engels, *L. Feuerbach eta aleman filosofia*, aip. lib. 115 or.

Hasteko, filosofia posthegeldarraren kritika gupidagabeari ekiten dio. Hain zabalduak zeuden doktrina «utopista» eta joera burges koxkorren aurka altxatzen da. Filosofiaren eta erlijio kritikaren mailan geratu izana leporatzen dio Feuerbachi. Bauerek filosofoen indarrean sinesten zuen, kontzientzia ganbiatuz gero mundua alda zitekeeka, alegia. Stirnerek, berriz, ideia faltsuen kritikaren poderioz nahi zuen errealitatea aldarazi. Marxek, bere aldetik, komunismoa mugimendu guztiz praktikoa dela dio, helburu eta bide guztiz praktikoa di-tuena.

*Aleman Ideologiaren* tesietako bat hauxe da: proletargoa praktika iraultzailearen bidez bihurtzen dela klase iraultzaile. Gizakia produkzioak determinaturik dago, hor ari baita lanean, errealitate objektibo horrek bultzatzen baitu burgesiaren aurka burrukatzera. Lehendabizi, beraz, oinarri ekonomikoa da, eta ondorenean kontzientzia.

Lehen parte honetan, existentzia eta kontzientziaren arteko harremanak argitzen ditu Marxek. Ez da kontzientzia bizitza determinatzen duena, alderantziz baizik: «Errealitatea ezin da ideietatik abiatuz explikatuz, neohegelzaleek egiten duten bezala, baizik eta praktika materialaren bidez explikatzen dira ideologiak».

Egia esan, ez zaio positibismo kutsuko esaldirik falta

*Beraz, moralak, erlijioak, metafisikak eta berauei dagozkien beste ideologia eta kontzientziatzko formek autonomia itxura guztia galtzen dute. Ez dute hiztoriarik, ez dute garapenik; aitzitik, gizakiak dira beraien produkzio eta elkartruke materialak desarroilatzean, errealitate honekin batera, beraien pentsakera aldatzen dutenak<sup>8</sup>.*

Hegeldar gazteen «erreboluzioa» ironikoki aipatuz, berauen «filosofi berritsukeria» bere neurri juxtuari epaitzea erabaki dute Marx eta Engelsek:

*Aleman kritikak ez du utzi filosofiaren alorra, ezta bere azken saioetan ere. Bere presupostu teoriko orokorrak aztertu beharrean, problema guztiak sistema filosofiko jakin batean desarroilatu ditu: hegeldar sisteman. Mistifikazioa ez da erantzunetan bakarrik aurkitzen, galderetan bertan baizik.*

<sup>8</sup> Positibismoa da, noski, ideologia oro (filosofia, erlijioa, artea, formazio sozial baten fenomeno soil eta hutsa erreduzitzea. Marxek gutxietsi egiten du betire ideologiaren autonomia. Lehen ataleko eboluzionismoarekin batera, horixe da *Aleman Ideologiaren* huts haundienetakoa: ekonomizismoa. Askoz beranduago (handik 44 urtera), 1890ko irailaren 21ean J. Blochi egin eskutitzean, horren autokritika egin zuen Engelsek. Gutun soil bat besterik ez da, noski, baina dokumento teoriko erabakiorra da eskematismoaren arbuioari buruz, eta zentzu honetan paper historiko bat jokatu du. Engelsek adierazi nahi du gainestrukturak ekonomia-aren agerpen huts eta soil izan beharrean, eraginkortasun propio eta berezia duela.

Marx, hortaz, ez dago bakarrik hegeldar ezkertiarren filosofiazko erantzun eta ondorioen kontra, baizik baita egiten dituzten galderen kontra ere. Beraien problematikaren kontra, alegia.

Historiaren teoria oinarri barri batzuen gainean eraikitzen da:

*«Gizakia hamaika modutarra bereiz daiteke animaliatik; gizakiak eta animaliak kontzientziarengatik, erlijioarengatik, edo nahi denarengatik bereiz daitezke. Nolanahi ere, gizakiak berak hasten dira animalien-gandik bereizten existitzeko behar dutena produzitzen hasten diren momentuan.»*

Gizakiak, animaliek ez bezala, bere lanaren poderioz, bizitzeko medioak eta bideak eraikitzen ditu. Produktzioa da, hortaz, beraren izaera zertzen duena. Gizakiak produktioko kondizio materialen menpeko dira. Nazio baten «barne egitura» eta nazioen arteko harremanak «indar produktiboen garapen mailaren» pean daude.

Historiaren kontzeptzio berriaren formulazio berri eta polemiko hau eginez bukatzen dituzte lehen orrialdeok. Gizabanakoek, indibiduoek alegia, beren ekintza produktiboan adierazten dute beraien bizi-modua, beraiek «direnena» «egiten dutenarekin» bat dator eta. Iharduera produktibo honek harreman sozial eta politiko mugatu batzuk sortzen ditu. Nazio baten gizartezko eta politikazko egitura ez da gure borondatearen kontua, produktio ihardueratik datorren zerbait baizik.

Egitura politiko eta sozialak ezezik, gizakien ideiak eta usteak ere —ideologiak, hitz batez— bizitza materialaren ondorenak dira. Material produktioaz batera aldatzen da intelektual produktzioa ere. Kontzientziaren edo bizitza intelektualaren mailako ekarpenak gizakien aktibitate errearen bitartez expikatzen dira: «bizitzako prozesu errearen ispilu eta oihartzun baitira». Ez dute, bada, autonomia osorik, «behetik gora, lurretik zerura abiatu behar da haiek expikatzeko, eta ez zerutik lurrera, filosofia idealistak egin ohi duen bezala».

Bruno Baueri buruzko atala, «kritika kritikoaren» antzutasun osoa berriz aipatzen duena, oso laburra da. Baina, liburu zatirik luzeena eta aspergarriena Stürneri («San Max») dagokiona da, filigrana eta hitz joku korapilatsu ugaziz hornitua. Azkenengo partean, «egiazko sozialistak» kritikatzten dira, eta berauen artean Karl Grun, Frantziako eta Belgikako *sozial mugimenduz* liburua egin zuena, eta Dr. Kühlmann.

Industri kapitalismoa bere hartzaroan zegoen garai hartako Alemanian. Oraindik ez zen proletargo modernorik jaio. Halako leku eta herri batean —langile mugimendurik gabeko gizarte batean— ezinezkoa zen marxismoa sortzea eta garatzea. Askatasuna, arrazoia, gizakia, praxia, alienazioa, kritika, anaitasuna eta bestelako zera ederrei buruzko espekulazio filosofiko bat zen «aleman ideologia». Bertan ez zegoen ia batere lekurik eta tarterik klasearteko burrukarentzat, explotazioaren eta historiaren zientziako teoriarentzat.

Hautsi beharra zegoen Historia eta gizarteak mugierazten eta gobernatzen dituzten mekanismoak estali baizik egiten ez zuten historiek. «Aleman ideologiaren» erropak zeharo erantzi. Terrenoz aldatu.

### 1.3 HAUSTURA POLITIKOA ETA TEORIKOA

1845 inguruan, «haustura» gisako zerbait gertatzen da Marxen pentsamenduari bilakabidean<sup>9</sup>. Nolabaiteko eten bat. Zientziaren filosofoek paradigma aldakuntza deiten duten horietako iraultza teoriko bat. Oso dudamudazko itxurapean askotan, bere objektuaren eta terminologia berriaren bilaketan aldrebesa batzutan, edo eta aurretiko filosofo kategoriaz zaharrei lotua maiz aski, mundura irteteko beldurrez bezala, zerbait zeharo berria sortzen da politikaren zein teoriaren mailan<sup>10</sup>.

Aski garbi konstata daiteke *Aleman Ideologiaren* duda eta zalantzetan bertan ere, Marxen textuetan orain arte azaldu ez diren kontzeptu teoriko berri-berrien agerpena: produkzio modua, produkzio harremanak, produkzio indarrak, produkzio indar eta harremanetan oinarritutako klase sozialak, klase dominatzaile/klase dominatuak, ideologia dominatzaile/ideologia dominatuak, klasearteko burruba, etab.

Gonbarazio baterako, *44eko Eskuizkribuen* sistema teorikoa oinarritzko hiru kontzeptuon gain eraikia dago: Giza esentzia/Alienazioa/Lan alienatua. *Aleman Ideologian*, aldiz, Produkzio modua/Produkzio harremanak/Produkzio indarrak hirukote berriak hartzen dio lekua aurreko hirukoteari. Hizkera aldaketa honek, une berean, pentsakera aldaketa oso bat dakar.

Marxek, gazte denboran, gizartearen muina eta garapena azaltzeko zerabiliztan nozioak (gizakia, subjektu ekonomikoa, beharrak, gizarte zibila, alienazioa, injustizia, izpiritua, askatasuna) desagertuz joango dira aurrerantzean. Ez du gehiago proletargoaren eta filosofiaren arteko elkartasunaz hitzegingo, ezta filosofiaren errealizazioaz ere. Ez dago, ba, jarraipen erlaziorik edukin kontzeptualaren aldetik. 1845 ingurura arte, kontinuitate bat somatzen da Marxen politikazko nahiz

<sup>9</sup> «Haustura» edo «ebaketa» kontzeptua Bachelarden epistemologiaren ardatz eta ekarririk interesgarriena da. Ik., besteak beste, *La formación del espíritu científico*, Buenos Aires, 1974. Frantses epistemologo haundi honi maileguz hartuta, «1845az gero, Marxen obran marrazten eta obratzen den experimentazio politiko-teoriko harrigarria» izendatzeko darabil Althusserrek kontzeptu hau.

<sup>10</sup> Handik 40 urtera (1888an), *Aleman Ideologiari buruz* zera zioen Engelsek: «Bukatutako zatia Historiaren kontzeptzio materialistaren erakuspen bat besterik ez da, orduan historia ekonomikoaz genituen ezagutzeak oraino zein osagabeak ziren, eta ez besterik, agertzen duena».

filosofiazko jarretetan. 1845etik aurrera, zerbait berri-berria, erabat desberdina sortzen hasten da, testuak eskuan ikus daitekeenez<sup>11</sup>.

Dispositibo kontzeptual berri honen agerpenak ekonomia politiko klasikoaren kontzeptu banaketa berri bat eragingo du *Aleman Ideologian* lekuz, esanahiz eta zereginaz aldatuko dira. *Eskuizkribuetako* «kritika filosofikoarekin» zerikusirik ez duen kritikamolde berri bat agertzen da orain. Klase burrukan eta produzio modu kapitalistaren prozesu kontradiktorioan oinarritutako kritika, eta ez «Feuerbachen aurkiketa haundietan».

Nahikoa da Feuerbachi buruzko Marxen bi iritzi parekatu eta gonbaratzea. Feuerbach biziki aupatzen eta goraiatzen du Marxek 1844eko *Eskuizkribuetan*, aurkiketa izugarriak egin dituen filosofotzat joz. Eta handik hilabete batzutara, egundoko jipoa eta egurra ematen dio *Tsietan eta Aleman Ideologian*.

Oso bestelakoa da bataren zein bestearen funtzionamendu modua ere. Terreno aldatze bat ematen da. «Terreno berri» honetan, aipatutako kontzeptu berriek teoria zientifiko baten oinarriak ezarriko dituzte. Ohizkotik kanpoko zentzia bati, zientzia iraultzaile bati bidea irekiko diotenak. Zientziei dagokien zera guztia duen teoria bat, ezagutza objektiboak produzitzen eta erdiesten dituena baita. Terreno berri honen gainean eraiki eta jaso daitezke, lehen aldiz, historiako problema konkretuak zientziatzko problema gisa, eta frogatutako ondorio teorikoe-tara iritsi; hots, praktika zientifikoan eta politikoan egiaztagarri edo gezurtagarri diren ondorioetara<sup>12</sup>.

Praktikan, teoria marxistak kontzeptzio premarxisten aldean guztiz bestela funtzionatzen du: bere objektuaren «infininitasunera» irekitako «oinarrizko» dispositibo kontzeptual baten modura, hau da, etengabe ezagutza berriak eskaintzeko, etengabe problema berriak jarritz eta argituz.

<sup>11</sup> Jakina, zientzia bat ez da ezerezetik bapatean, guztiz osotua sortzen. Horregatik, ez da batere harritzekoa, tantean-tartean, gaztetango kategoria filosofiko zenbait agertzen bada Marx helduaren idazlanetan; ez da zertan harriturik hegelmismoaren arrastoak edo eraginak azken ordurarte izkutatzen eta iraungitzen ez badira. Alienazioa eta ukapenaren ukapena, adibidez, azken obretan baizik ez dira erabat desagertzen. Teoria marxista, gainerako edozein disziplina zientifiko bezala, ez da linea zuzenean hazi: pentsamendu zientifikoaren ezaugarri nagusienatako bat zera da, hain zuzen, ez duela akumulazio-bidez aurrera egiten, erorketa eta eraiketa-bidez baizik. Entseiu eta erroreen bidez. Ik. T. S. Kuhn, *La estructura de las revoluciones científicas*, FCE, México, 1975.

<sup>12</sup> Zer da zientzia delako gauza hori? Zein baldintza bete behar ditu teoria batek zientifikoa dei dadin? Non ezarri mugarriak? Zientzia hitzaren azpian dagoena ez dute guztiek berdin-berdin ulertzen. Duela hogeit urtetik hona, filosofoek elkar ziztaka diharduten liztorkabia bihurtu da zientziaren filosofia. T. Kuhn brankagizonagandik hasi eta Lakatos zenarengandik barrena Feyerabend bitxiarenganaino, eztabaidak ez du amaitzeko itxurarik. Harik eta zientziaren filosofoak bat etorri arte, badugu «paradigma» edo «ikerketarako programa» marxistaz hitzegiteko eskubiderik. Gutxiengutxienez, Pascalek zioen «esprit de science» delako hura baduela marxismoak esan dezakegu. Ik. A. F. Chalmers, *¿Qué es esa cosa llamada ciencia?*, Siglo XXI, Madrid, 1982.



Ezagutza berriak lortu ahal izateko (infinitu) egia (probisional) batzuk eskaintzen ditu teoria marxistak. Kontzeptio zaharren oinarritzko teoriak, ordea, Historiaren hutsezinezko egiazat agertzen zuen bere burua, eta ez ezagutza berriak eskuratzeko egia probisionaltzat. Hemen ere, Marxen teoriaren eta ordurarteko kontzeptioen artean badago sustraizko diferentziarik, azken hauek egia absolutu, aldaezin eta betiko lez aurkezten baitziren.

#### 1.4 MARXEN IBILALDI LUZEA KONTINENTE BERRIAREN BILA

Lau urtetako tarte laburra dago *Rhenaniako Kazetako* artikulu liberal-erraldikaletatik 1845eko hausturaraino. Haustura hau *Feuerbach* buruzko tesietan eta *Aleman Ideologian* nabaritzen da: mundua interpretatu ezezik aldatu egin behar da; «gure aurreko filosofi kontzientzia garbitzea». Horrexegatik esan daiteke 1845.urte honen, seinale baten antzera, lurralde berri baten mugarrria markatzen duela.

Lau urteotan, rhenaniar burgesiaren seme bat jarrera politiko eta filosofiko burges erradikaletatik, lehenik jarrera burges txiki humanistetara eta, azkenik, jarrera komunista materialistetara pasatzen ikusi dugu. Zehatz ditzagun gehiago «eboluzio» honen uneak eta epealdiak.

Marx gaztea batera gogoetagaiz (Deretxotik Estatuta lehenik, eta Ekonomia politikora gero), filosofi jarreraz (Hegelengandik Feuerengagana, eta beronengandik materialismo historikora), eta, azkenik, posizio politikoz (liberalismo erradikal burgesetik humanismo burges txikira eta komunismora) aldatuz joan da<sup>13</sup>.

Prozesu honetan, politika da gai batetik bestera pasarazten diona (oso laburki: prentsari buruzko legeetatik Estatuta lehenik, eta Ekonomia politikora ondoren) baina pasaera hau posizio filosofiko berri baten tankeraz eman eta expresatzen da aldi bakoitzean. Filosofia, azken instantzian, klase burruka da teori mailan<sup>14</sup>. Politikaren agerpide teorikoa da filosofia. Era honetan, Marx gaztearen filosofi jarrerak bere gogoetaren klase kondizioak adierazten ditu. Ez da harritzekoa, beraz, 18-45eko haustura aurreko filosofi hontzientziaren «garbiketa» moduan agertzea.

<sup>13</sup> L. Althusser, «Sobre la evolución del joven Marx» saiakera in *Elementos de auto-crítica*, Laia, Barcelona, 1975, 69or. eta hur.

<sup>14</sup> Filosofiaren lekua zientzien eta politikaren bideguntzean dago. Bien arteko tartekari da. Platonengandik hasi eta Hegelenganaino, filosofiako gertaerak ezin dira konprenitu artikulazio bikoitz honen barruan ez bada. Teoria/politika bikoteak erabakitzen ditu filosofi problematikaren posibletasun baldintzak eta ulergarritasun irizpideak. Zientzia eta klase burruka, teoria eta politika, horra hor filosofiaren elementu nagusiak.

1844eko *Eskuizkribuetan* garbiro ikus daiteke dialektica harrigarri hau. Hurbiletik aztertzen bada, textu honetan Marxek bere kolkoan bizi izan zuen drama teorikoa soma daiteke (horregatik edo, ez zuen inoiz publikatu, ezta aipatu ere egin sekula). Edukinari dagokionez, ekonomia politikoan kontrajartzen diren posizio politikoaren eta filosofikoaren arteko kontraesanean mamitzen da *Eskuizkribuen* krisia. Politikoki, komunista gisa idazten ditu Marxek lanok, ekonomista burgesen analisis eta kontradikzioak bere konbikzioen zerbitzuan jartzen saiaatuz. Teorikoki, filosofi jarrera burges txikitzen idazten ditu, Hegel Feuerbachengan sartzen alferrik entseiatuz. Bi jarrera kontrako horien arteko tentsio eta tirabiren ispilu dira 44eko *Eskuizkribuak*. Teoriaren eta politikaren artean gertatzen den desegokitasun nabarmenaren adierazle garbiak.

Krisi honen amaiera *Feuerbachi buruzko tesietan* eta *Aleman Ideologian* aurkitzen dugu, amaieraren lehen urratsak gutxienez: mundu kontzepzio berriaren «ernamuina» (Engels). *Tesietan* aldatzen dena ez da posizio politikoa, Marxen filosofi jarrera baizik. Marxek behin betiko uzten du Feuerbach. «Munduaren interpretaziozko» tradizio guztiarekin hautsi eta «materialismo berriaren» lur eta eremu ezezagunetan barnatzen da. Posizio berri honek Marxen jarrera politikoa adierazten du filosofoi mailan. Marxek lehen urratsa eman du langile klasezko posizio teorikoetarantz.

Hemen ere politka izan da indar eragilea eta ebazkorra: gero eta konpromiso sakonagoa proletargoaren burruka politikoetan. Hemen ere, teori ikuspegitik, filosofiak du eginkizun zentrala. Izan ere, klase jarrera teoriko honetatik abiatuz hartuko du zentzu zeharo berria Ekonomia politikoari buruzko Marxen hausnarketak: kontzepzio ideologiko guztiekin hautsi Historia zientziaren oinarriak landu eta aurreratze-ko.

Proletargoaren klase posizio politiko eta teorikoetara desplazatuz, bada, aurkitu zuen Marxek Historia deituriko Kontinente berria. Marxek Frantzia eta Engelsek Ingalaterran errealtate guztiz berri bat aurkitu zuten: langile klase organizatua, kapitalismo aurreratua, bere lege propioak dituen klase burruka. Esperientzia berri honek, bizi zireneko ilusiozko munduaren estalkiak urratu zizkien. Errealtate honen arrastorik ez, jakina, «aleman ideologian»!

Lau urteren buruan, Marx gaztea ongi jabetu zen «aleman ideologiaren» atzekaldeaz. 1840eko desenganioak hegelzale gazteen sistema teoriko guztia pitzatu eta erorerazi zuen. Friedrich Gilen IV sasiliberala despota bihurtu zenean, *Rhenaniako Kazetan* Arrazoiaren izenean saiatu zuten erreboluzioak lur jo zuenean, aleman burgesiak bere kasa utzi zuenean, egintzekin erakutsi zioten aleman miseria famatuak zer estaltzen zuen: klase harreman zehatz-mehatz batzuk. Orduantxe aldatu zen guztia, eta Marxek aurkitu egin zuen, azkenean, «zientzi lurralde» berria: Historiaren zientzia. Baina ez nolana hiko zientzia ordea, klase burrukaren zientzia iraultzailea baizik.

Handik hona iristeko, zernolako burruka latza egin behar izan zuen! Luberri bila, zein bide luze eta nekosoan urratu eta ibili behar izan zuen!

Itzulerarik eta bueltarik ez duen bidea, ordea.

**HIRUGARREN PARTEA**

**MARX HELDUA**  
(1845-1883)

## 1. Kapituluia

### ALDERDI KOMUNISTAREN SORRERA ETA MANIFESTUA (1845-1848)

Orain arteko gizarte osoaren historia klase arteko burrukaren historia besterik ez da.

(Marx-Engels, *Alderdi Komunistaren Manifestua*, 1848)

Komunisten proposamendu teorikoak ez dira inola ere ideien gainean oinarritzen, ez eta honelako edo halako mundu-erreformatzailerak asmatutako hastapenetan ere.

Dauden klaseen burruka baten, gure begien aurrean berez eboluzionatzen den mugimendu historiko baten kondizio errealean adierazpen globala besterik ez dira.

(Marx-Engels, *Alderdi Komunistaren Manifestua*, 1848)

Langileek ez dute aberririk. Ezin ken dakieke ez dutena. Herrialde bakoitzeko proletargoak, lehen lehenik, botere politikoa konkistatu, bere burua bertako klase nazionalki zuzentzailatzat eraiki, eta berberak nazio bihurtu egin behar duenez gero, horrexegatik berorregatik bera ere nazional da, baina inola ere ez hitzaren zentzu burjesean.

(Marx-Engels, *Alderdi Komunistaren Manifestua*, 1848)

Londresko egonaldian, Korrespondentzia komunistarako Komitea sortzea erabaki zuten Marx eta Engelsek, eskutitzen bidez Europa guztiko komunistekin harremanetan egoteko. Eztabaida eta konfrontazio leku ezezik, Internazional komunista baten gisako zerbait ere bazen.

1846ko martxoaren 30ean, hamabost bat lagun (Marxek gainera, Engels, Jennyren anaia Edgar, Gigot, Weitling, Weydemeyer, Anneonkov...) Marxen etxean bildurik zeudela, honen eta Weitlingen artean eztabaida garratza piztu zen. Marx ikaragarri amorratu zen eta su bizian, zutik ipinita, ukabilaz mahaia indartsu joz, honela oihu egin

omen zuen: «Ezjakintasuna ez da inoiz arrazoi bat izan». Eta atea danba itxiz, bere onetik aterata aldegin zuen bileratik. Ateraldi sonatu honen ondotik, zer esanik ez, hautsi ezin zuen komunista alemanarekin. Marxen historia, izan ere, bere «hausturen» historia dela esan daiteke: Hegelekin, Bauer eta Berlineko «Askatuekin», Ruge eta Feuerbachekin, Weitling eta Hessekin baita Proudhon eta Kriegerekin ere jarrera, zirti-zarta hautsi egin zuen guztiekin.

Urte honetako maiatzaren 5ean, gutun bat bidali zion Proudhoni, Parisen Komitearen ordezkotza betetzeko eskatuz, Honek hainbeste eragozpen eta aitzaki jarri zizkion, ez zuela azkenean onartu nahi izan. Hermann Kriege «komunista kristauaren» kontra, berriz, zirkular bat zuzendu zuen, haren ideiak «fanfarroikeria metafisikotzat» joz.

Langileriaren alde bere bizitza guztia eskaini eta erre zuen gizona kondizio material kaxkar eta txarrenetan lan egin beharrean gertatu zen. Une hartan, bost ziren familian, Marx, beraren emazte Jenny, bion alaba Jenny eta Laura, eta neskamea, Lenchen (Helene Demuth). Pobrezia eta behar larriak aurkitzen zen berriro, familia aurrera atera ezinik. Lana, etxeko eginkizunak eta diru estuasunak izan zituen bere kezkarik larrienak eguneroko bizitzan barne, 1871 arte gutxienez. Eta gero, berehala, gaixoaldia eta zahartzaroko egunak helduko ziren.

Engels, Ostenden bizi zena, Parisera bidali zuen Bruselaseko Komiteak frantses eta aleman sozialistekin harremanetan jartzeko. Weitling eta Karl Grünen ideiek oihartzun eta indar handia zuten langileen artean eta beraien eraginetik apartatu eta libratu nahi zituzten. Bitarte horretan, Marx lan eta lan ziharduak Bruselasean. *Aleman Ideologia* «saguen kritika maraskatzaileari» botata, ekonomi ikerketei heldu zien oraingoan.

Londreseko jendearen eraginez eta inizatibaz, Marx eta Bruselaseko Komitekoak Zuzenen Ligako kide egin ziren, 1847an. Zuzenen Liga hau aleman langile atzerriratuen elkarte erdiklandestinoa zen. Lehendabiziko langile elkarte internazionala izango zen Liga honek, *Komunisten Liga* izena hartu zuen Londresen ospatutako biltzar nagusian.

## 1.1 MISERIAREN FILOSOFIA ETA FILOSOFIAREN MISERIA

1847ko neguan landu eta eratu zuen Karl Marxek *Filosofiaren Miseria*<sup>1</sup>. Proudhonek bere *Miseriaren Filosofian* sostengaturiko argu-

<sup>1</sup> Liburua 1847ko apirilean bukatu eta urte bereko ekainean argitaratua izan zen Parisen (800 ale). Marxek frantsesez idatzi zuen lan hau: Parisen 14 hilabete besterik egin ez dituen aleman batentzat ez da marka txarra, alajaina. Ikus *La Miseria de la Filosofía*, Aguilar, Madrid, 1973. D. Negro Pavonen hitzaurre guztiz irakurgarria dakar.

dioak eta sasiarrazoiketak errebatitu eta gezurtatzea beharbeharrezkotzat jo zuen. «Liburua, oro har, txarra, oso txarra iruditu zait», idatzi zion Anenkov errusiar adiskideari.

Produkziobideen jabetza pribatua abolitu gabe ere lortu zitekeela langileen askapena uste zuen Proudhonek. Filosofia hau «irrigarria da, ez baitu egungo gizartearen egoera bere mekanismotan ulertu». «Erudituaena egiten duen autodidakta», zientzigizon izan nahi duen «langile ohia», filosofiaren eta ekonomiaren gainean tutik ez dakien pentsalari kaxkartzat jotzen du Proudhon.

Marxen lehen galdera, hauxe da: «Zer da gizartea?». Eta bapateko erantzuna: «Gizakien elkarrekintzaren emaitza». Berehala, bigarren galdera ere: «Gizakiak gizartekera bat edo bestea hautatzeko libre al dira?». Erantzuna ezin argitsuagoa da:

*Inola ere ez. Demagun produkzio ahalbideen garapen une bat, eta kometzio eta kontsumo era mugatu bat edukiko dugu. Demagun komertzioaren eta kontsumoaren garapen maila jakin bat, eta egitura sozial zehatz bat izango dugu, familia, ordenu eta klaseen antolaketa jakin bat, hots, gizartekera zibil bat. Demagun gizarte zibil bat, eta beronen adierazpena baizik ez den estatu politiko bat ukanen dugu.*

Hona Marxen pentsaera 1846.urtearen hondarrean. Sekula lehenago ez ditu hain garbiro azaldu gizakiaren eta gizartearen harremanak. Ideien mailan geratu izana eta egiazko historia ez ezagutzea egozten dio Proudhoni. Historiaren ikuspegitik azterten ditu Marxek ekonomiaren mailako legeak eta gertakariak. «Ekonomiazko kategoriak, berriek adierazten dituzten erlazioak bezain iragankorrak dira. Sorkari historiko eta pasakorrak». Burges gizartea betiketozten duela leporatzen dio, produkzio modu kapitalistaren egonkortasuna eta iraunkortasuna arinki gutxietsiz, beharbada.

*Filosofiaren Miseria* bi partetan bereizita eta banatua dago. Lehen zatian, balioaren teoriaz dihardu, eta bigarrena langile klaseari buruzko atal garrantzitsu batekin amaitzen da.

1847an, David Ricardo, ingeles ekonomilari haundiaren ezagupidea egin zuen Marxek. «Burges produkzioaren egiazko mugimendua erakusten digu honek... Ricardoren balio teoria gaurko bizitza ekonomikoaren zientzi adierazpena da». «Lana bera ere merkantzia bat da». «Lan merkantzia, produzitzeko beharrezkoa den lanaldiak neurtzen du... Honela, lanaldiak neurtutako balio erlatiboa langileriaren murrizpena modernoaren formula da».

Filosofikeriak arbuiauz eta uxatuz, ekonomiaren ikusgunitik aplikatzen ditu langile zapalkuntzaren kausak. Hala, «denbora kontua da guztia», gizabanakoa ezer ez da izan, denboraren itzal eta errainu huts izatekotan ere. Kontua ez da kalitatea, kantitateak soilik erabakitzen du den-dena».

Marxek mirespen itzela dio Ricardori: «Inglesak, gizonak txapel bihurrerazten dituen bitartean, alemanak ideia bihurrerazten ditu txapelak; Ingles eredia Ricardo da, bankari aberats eta ekonomista entzute-tsua; alemana, berriz, Hegel da, Berlineko Unibertsitatean filosofiako irakasle huts eta soila». Gonbarazio adierazgarria hauxe: David Ricardok ekonomia politikoaren mailan jokatu duen papera, Filosofian Hegelena bezainbatekoa da.

Proletargoak behar duena zientzia erreboluziogile bat da. Hone-tan saiatuko da Marx ondorengo urteetan, ekonomi lanen bidez batipat. Ez du filosofi sistema berririk asmatu nahi: explotazio kapitalistaren mekanismoak zehaz-mehazki deskribitu eta explikatu nahi ditu. Beraren iharduera teorikoa eta burruka politikoa langintza horretara zuzenduko ditu zeharo aurrerakoan. Ez da «filosofo» izango, «ekonomista» baino. Hainbeste urtetan zehar zientziazki burututa-ko ikerketa lan horren fruitua eta emaitza erraldoia *Kapitala* izango da.

Gainerantzeko izkribuak, aldian-aldiko politika premiei erantzuten dieten kojuntura lanak dira gehienbat. *Alderdi Komunistaren Manifestua* bera, *L. Bonaparteren Brumarioaren 18a* edo *Frantziako gerra zibila*, propagandazko liburuak dira neurri haundi batean, gertakarien hari-an prestatutako panfletoak. Ez dira langela batean burututako lan sakonak, lan «militanteak» baizik. Horrek ez du esan nahi, inola ere, interes eta garrantzia gutxikoak direnik, ezta gutxiago ere.

*Filosofiaren Miseriaren* bukaerako bost orrietan, klase burrukari buruzko gogoeta mamitsuak datoz:

*Klase zapalduaren askapenak gizarte berri baten eraiketa eskatzen du derrigor. Zer esan nahi du honek, antzinako gizartea erortzean, botere politiko berri bat, klase dominazio berri bat sortuko dela? Ez. Langile klasearen askapenerako baldintza, klase guztien abolipena da... Bere aurrerabidean langile klaseak, gizarte zibil zaharraren lekuan, klaseak eta berauen antagonismoa desegino dituen elkartea ezarriko du; ez da gehiago botere politikorik izango, aginte politikoa klasearteko etsaigoa-ren agerpena besterik ez baita.*

Utopista klasikoak baino utopistago ageri da hemen Marx. Klaseen, diruaren eta Estatuaren irauingiera esan nahi du komunismoak. «Proletargoaren eta burgesiaren arteko jazargoa klaseen arteko burruka bat da, azken bururaino eramanez gero, erroboluzio gutzitza bilakatuko dena».

«Burruka ala hil». Erreboluzioaren ikuskera apokaliptikoa du Marxek. Iraultza zeharokoa izango da, ala ez da ezer izango. Erabateko txikizoa. Kataklismoa. Erromantizismo erreboluziozale suhar eta sutua nabari zaio lerro hauetan. Botere politikoaren eta Estatuaren deuseztapenari buruzko jarrera hori anarkista batena dirudi.

Marxek 29 urte bete berriak zituen. Europa osoan zehar errebolta



eta erreboluzio haize beroak zabaltzen hasiak ziren. Krisi ekonomi-koak, aspirazio liberalek, erreibindikapen sozialek eta nazional mugimenduek europar Estatu nagusien enonkortasuna astindu, koloka jarri eta dardarazi egin zuten.

1848ko ekaitz handia ez zegoen hain urrun.

## 1.2 KOMUNISTEN LIGA

*Filosofia*ren *Miseria* amaitu ondoren, militantzi lanetara itzuli zen Karl Marx. Parisera joatea ere pentsatu zuen, Engelsen gonbiterik ez zitzaion faltatu, behinik-behin, 1847ko martxoaren 9ko gutun batek adierazten duenez. Engels eta Marxen mentalitatea ezagutzeko oso aipospa da gainera eskutitz hau:

*Hemendik apirilaren zazpirako, etxex aldatuko nauk, eta diru pixha bat ere edukiko diat. Biok elkarrekin parranda batzuk botatzera joan gintezkek, hortaz... 5.000 franko errentan banitu, lan egin eta neska motekin ahal dudan guztia dibertitu besterik ez nitek egingo, pott egin arte. Neskatila frantsesengatik ez balitz, bizitzak ez likek bizi izaterik mereziko... Hirekin botela batzuk hustutzeko amorratzen negok.*

Engelsen hitzok —Marxen garai honetako kartak desagertu egin baitira, hain zuzen ere!— ederki erakusten dute gure bi lagunek bizitzari buruz zuten jarrera alai. «Parranda egin, ardo botela batzuk hustu, emakumez ase, bizitza sakonki gozatu». Zer gauza naturalagorik, bestalde, orduko aleman gizaseme burgesengan? Haien zat komunista izateak ez zuen mixeria gorritan bizitzea adierazi nahi. Marx ez zen santu bat prexio<sup>2</sup>. Beste intelektual askoren modura, ideien mundua eta norberaren bizitza pribatua bereiztu egiten zituen, nolabait. Portaera horrek, dena dela, ez ditu haren merezimendu gaitzak batera ttipitzen.

Marxek ez zuen, azkenean, Pariserterik izan, ezta Londresera joaterik ere 1847ko ekainaren 2tik 9ra ospatu zen Komunisten Ligaren lehen Kongresura, diruz oso eskas zebilen eta. Batzarrak zenbait dokumentu onartu zituen, hauen artean estatutoen eta programaren aurre-projektu bat. Programa hau *Alderdi Komunistaren Manifestuaren* aintzindari eta oinarritzat jo daiteke.

Estatutoetan, «gizaki guztiak anaiak dira» lemaren orde, denborarekin hain ezaguna izango zen esaldia ezarri zen: «Herrialde guztietako

<sup>2</sup> Horixe frogatu nahi izan du, hain zuzen, Françoise Lévyk bere *Marx, un bourgeois allemand* liburuan (Grasset, Paris, 1976), XIX mendeko burges bizizale baten ezaugarri guztiak omen zituen: parranderoa, gonazalea, falokrata, tripazaina; halakoa bide zen Marx. Dena dela, Engels baino etxekoiaogo ei zen!

proletariok, elkar zaitezte». Kongresuaren erabakietako bat, «Weitlingiarrak» Elkartetik botatzea izan zen.

Bruselasen, ekonomia politikoa estudiatzen eta sakontzen jarraitu zuen Marxek, eta artikuluren batzuk ere idatzi zituen *Deutsche brüsseler Zeitung*erako, *Grünen aurkako agiria*, esate baterako. Horrez gainera, Komunisten Ligaren zirkulua eta aleman langileen Elkartearen fundatu zituen 1847ko abuztu hartan. Antolaketa kontuan, erabat autoritarioa eta zentralista zen Marx.

Eskubiko eskuan gaizki sendatutako ebaki gaizto batengatik odol-galtze haundi bat izan zuen egun haietan. Jenny haurdun zegoen berriro, hirugarrengo aldiz, lau urtetan.

Komunisten Ligaren bigarren Kongresua 1847ko azaroaren 30ean bildu zen Londresen. Engelsek doktrina gisako «fede aitorten» bat idatzita eraman zuen bertara. Aurretik, bezperan alegia, Londreseko *Fraternal Democrats* delakoak 1830eko poloniar altxamenduaren 17. urteurrena ospatzeko eratu zuen mitinean hartu zuten parte Marx eta Engelsek, baita hitzaldi sutsu bana egin ere, nazioarteko langile mugimenduak Poloniaren independentziaren alde burruratu behar zuela defendituz.

Hamar egunez iraun zuen Kongresuak onartu egin zuen Estatuto berrien testua. «Ligaren helburua zera da, burgesia kentzea, proletargoaren nagusitasuna, klase antagonismoaren gain eraturako burges gizarte zaharraren suntsiera eta klaserik eta jabetza pribaturik gabeko gizarte berriaren eraikuntza» zioen argi eta garbi lehen artikulua. Bartzarrak, azkenik, fede aitortenaren ordeztatu manifestu bat idatz zezatela agindu zien Marx eta Engelsi.

### 1.3 MANIFESTUA

Abenduaren 13an, Marx bueltan zegoen Bruselasen, juxtu bere seme Edgaren jaiotzarako. Aleman Elkartearantz zenbait hitzaldi egin zituen; horietako bat oinarritzat hartuko zuen 1849ko *Lan alokatua eta Kapitala* liburutxoaren lantzeko. Elkartea honek berak gaupasa eder bat antolatuko zuen Bruselaseko Plaza Nagusian 1847ko Urte Zaharrra festa giroan ospatzeko. Antzerkia, abesti saioa, orkestaren musika emanaldia, hitzaldiak, denetarik egon zen. Jenny Marxek «bere talentu dramatiko apartaz gozarazi zien bertara bildu ziren 130 pertsoneri. Eredu guztiz hunkigarria, benetan, proletargoaren heziketaz kezkatutako andereak distingitu honena», zioen *Deutsche Brüsseler Zeitung*ek. 1848ko urtarrilaren 6an. Ongi etorri alai hau egin zioten 1848. urte berriari Bruselaseko komunista haiek.

Komunisten Ligaren agindua beteaz, «Alderdiaren programa xehe bat, batera teoriko eta praktikoa», taxutu zuten Marx eta Engelsek. *Alderdi Komunistaren Manifestua* otsaileko erreboluzioa baino

aste batzuk lehentxeago bidalia izan zen Londresera, argitaratua izan zedin<sup>3</sup>.

*Manifestuaren* idazketa Marxi zor zaio gehienbat, Engelsek berak 1883ko aleman edizioaren hitzaurrean aitortu izan zuenez: «*Manifestuaren* funtsezko ideia Marxi dagokio bakar bakarrik»<sup>4</sup>.

*Manifestua* hogetasei horrialdeko liburuxka da izan, era honetan-txe sailkatua: historiaren expikabidea —berrogeita hamalau parrafo—, komunisten eta gainontzeko langile klasearen arteko harremanak —hirurogeita hamasei parrafo—, komunisten politikabidea 1848ko kojuntura hartan —hamaika parrafo— eta, bukatzeko, garaiko zenbait korronte sozialista eta komunistaren kritika —berrogeita hamasei lerroalde—.

*Manifestua* eta beronen zenbait zati edo pasarte hitzez-hitz hartu izan dira sarritan, gustiz lan sakon eta zehatza bailitzan. Gogoan izan ez dela teoriko hutsa, militanteentzat egindako agiri bat ere badela —«batera teoriko eta praktikoa»—. *Manifestuaren* arrakasta izugarriaren arrazoa oso ximplea da: publiko zabalarentzat Marxen obra irakurgarri bakarra delako. Bizi zela argitara eman zituen idazlan biak, *Familia Santua* eta *Filosofia*ren *Miseria* ia irakurtezinak dira, eta berdintsu hilondoko 1844eko *Eskuizkribuak* eta *Aleman Ideologia* berbera. *Kapitala* irakurtzen inor gutxik hautsi ohi du burua, zoritxarrez. *Manifestua*, berriz, erraz irakurtzen eta ulertzen den liburuxka da alde batetik, eta teoria marxistaren laburpen xehe eta argitsua, bestetik.

Erabat klasikoak bihurtu dira *Manifestuaren* sarrera hitzok:

*Iratxo bat dabil Europan zehar: komunismoaren iratxoa. Europa zaharreko Potentzia guztiak, iratxo horri erasotzeko, Aliantza Saindu batetan bildu dira: Aita Saindua eta Tsarra, Metternich eta Guizot, frantses erradikalak eta aleman poliziak.*

<sup>3</sup> Lehenbizikoz alemanez publikatua izan zen, autoreen izenik gabe, 500 aleko tirada eginez. Bibliarekin batera munduko liburutik zabalduena denaren lehen euskal edizioa 1971ean irten zen argitara: *Komunista Alderdiaren Agiria* izenaz, Pariseko Librairie du Globek agerrerazi zuen, Espainiako Partidu Komunistaren babesean. Euskaratzailea, «Irrintzi» delako bat izan zen, Rumanian bizi izandako azkoitirra berau, oker ez bainaiz. Ik. *Alderdi Komunistaren Manifestua*, Hordago, Donostia, 1980. X. Kintanak prestatutako hirugarren edizio honetatik egin ditut aipamenak.

<sup>4</sup> Engelsek, 1883ko aleman edizioaren hitzaurrean, testu honen lerro nagusien laburpentxoak dakar: «*Manifestuak* daukan funtsezko ideia hau da: produkzio ekonomikoak eta beronetatik nahiz eta nahi ez ateratzen den sozial estrukturak, historiaren epoka bakoitzean epoka beronetako historia politiko eta intelektualaren oinarria osotzen dutela; beraz (lurraren jabego komuna desgertu denetik) historia osoa klase burruken historia bat izan dela, klase hurrupatu eta klase hurrupatzaileen arteko, klase zapaldu eta klase zapaltzaileen arteko burruken historia bat, berauen sozial aurrerabidearen etapa ezberdinetan gertatua; baina egungo egunetan burruka hau halako etapa batetara heldu dela, non hurrupaturiko eta zapalduetako klaseak (proletargoak) ezin libera baitezake bere burua, bera hurrupatzen eta zapaltzen duen klasetik (burjeseriatik), batera, eta behin betiko, gizarte osoa hurrupatzetik, zapalkuntzatik eta klase burrukatik liberatu gabe». Ik. *Alderdi Komunistaren Manifestua*, aip. lib. 11or.

Erdibiketa ezin garbiagoa da: alde batetik, zapalduta daudenak, eta bestetik mundu honetako ahaltsuak. Kasualki, *Manifestua* kaleratu zen egun bertan desagertu zen frantses monarkia, eta handik aste batzutura Metternich bera ere, erreboluzioak garaitu eta gero.

Era guztietako salakuntza eta etiketa iraingarrien kontra, «bada sa-soia komunistek, mundu guztiaren aurrean, beren helburuak eta beren joerak erakuts ditzaten, eta komunismoaren iratxoaren ipuinari Alderdiaren beraren Manifestu bat kontrajar diezaioten».

*Manifestuaren* lehen atala «Burjesak eta proletariak» titulatzan da. «Orain arteko gizarte osoaren historia klase arteko burrukaren historia besterik ez da»<sup>5</sup>. Klaseen existentzia eta burruka ez zituen Marxek aipatu lehen aldiz; bestek egin zuten haren aurretik.

Mugatu eta murriztu ote daiteke, ordea, gizarte osoaren historia klase arteko burruka hutsetara? Ez, gauzak ez dira horren ximpleak, noski. Marxek, formula txokagarri honekin, ordurarte behar adina azpimarratu eztao errealitate bat agerian jarri nahi zuen: klase burruka da historiaren motorra.

Klase burrukaren azalpen historiko bat eginez, zera konstatatzen du gero:

*Burges gizarte modernoak, feudal gizartearen hondarren gainetik eraikitakoak, ez ditu klaseko kontrastasunak abolitu. Beste klase berriez, beste zapalkuntza bide berriez eta burruka modu berriez aldatu ditu aintzinako garaietakoak; hori besterik ez.*

Hau guztiau egia izan arren, esan ote daiteke, halare, gure epoka honetan klase kontradikzioak sinpletu egin direla?

*Gizartea gero eta banatzenago ari da alor kontrast bitan, zeharo etsai diren klase haundi bitan: burjeseria eta proletargoa*<sup>6</sup>.

Gutziz ohargarria da burgesiaren goraldiaren deskribizioa. Burgesia, dio Marxek, «aurreramendu luze baten produktua da, produkzio eta komunikatze moduen iraultza batzuren ondorioa». Baina «gober-

<sup>5</sup> Hain borobil, hain zirt-zart, hain lapidario adierazirik, erredukzionismorik arlo-teenera eragin dezake. Engelsek berak ondoko ohartxo hau erantsi zien 1883ko inglesezko eta 1890eko alemanezko argitalpeni: «Edo hobeki esateko, historia eskribatua. 1847an, historia eskribatu guztiaren aurrean egon zen sozial erakundearen historia, hots, historiaurrea, ia guztiz ezezaguna zen». Ik. *A. K.ren Manifestua*, aip. lib. 47 or.

<sup>6</sup> Gaurregungo gizarte modu kapitalista eta Marxen garaikoa ez dira guztiz berdinak. Gizartea, funtsean, klase haundi bitan —burgesia/proletargoa— banatzen dela egia da abstraktuan hitzeginez gero, baina historia konkretuan, formazio sozial zehatzak aztertuz gero, beti klase bi baino gehiagorekin aurkitzen gara. Marxek berak Alemania, Ingalaterra edo Frantziako gizartea xeheki arakatzen duenean, bi klase baino gehiago aipatzen ditu beti (L. Bonaparteren Brumarioaren 18an, esate baterako).

nu modernoa burjes klasearen arazo komunetarako erakunde administrazioaile bat besterik ez da» esatea sinplista samarra dirudi. Gauzak «sinpleztatzeko» modu bat da hori; gaur egun, burjes hegemoniaren mekanismoak askoz ere korapilatsuagoak dira, zalantzarik gabe.

Marxek garbi ikusten du burgesiak historian barrena paper iraulezailea jokatu duela:

*Boterea konkistatu duen toki guztietan, feudal, patriarkal eta idiliozko harreman guztiak ostikoperatu ditu. Gizon feudala bere nagasi naturalarekin lotzen zuten lakio nabarrak urriki gabe hautsi ditu, gizona eta gizonaren artean interes hotza, «esku-diruzko pagua» besterik utzi gabe. Kalkulu berekoiazen ur izoztuetan ito ditu erlijiozko extasisa, zaldunen oldarra eta burjes tikiaren sentimentalismoa.*

Eta aurrerago ekiten dio:

*Pertsonaren duintasuna trukerako balio bihurtu du; hain prezio handitan lortutako askatasunak, merkatalgorako askatasun bakar eta nahi eta nahiekoak bilakarazi ditu. Hitz batean, erlijiozko eta politikazko ilusioez ezkataturiko esplotazioaren orde, esplotazio ageri, lotsagabe, zuzen eta basati bat sartu du. Burjeseriak ordurarte beneragarri eta errespetu sainduz kontsideratuak ziren bizimodu guztiei beren aureola kendu die. Bere lengile alokatuen artean, medikua, legegizona, apeza, poeta eta jakintsua ere sartu ditu.*

*Manifestuaren indarra zeran dago, «kalkulu berekoiazen ur izoztuetan» ito egin diren giza harreman zaharren heriotzaren konstatapenean. Gure zibilizazio guztia auzitan jarria da: sortzen duen giza harremanen hoztasuna, dakarren ilusiorik eza, eragiten duen diru eta irabazi grina. Explotazioaren garrantzia, «esku-diruzko pagu» hotza, jende harremanen arruntkeria ederki azpimarratzen ditu testu labur baina mamitsu honek. Baina, aldi berean, Marxen joera murriztailearen agerpen nabarmena da ideologi mailari dagokionetan: esplotazioa esaltzen duen ilusio bat besterik ez zaio erlijioa, eta burgesiaren langile alokatu bat besterik ez apaiza. Familiarteko erlazioak ere diru harreman hutsean oinarritzen omen dira.*

Burgesiaren merituak aitortzeko lotsarik ez du Marxek: «Giza ekintzatasunak zer egiteko gauza den lehenik erakutsi duena bera izan da. Egiptoko piramideak, Erromatar akueduktuak, katedrale gotikoak ez besteko mirariak kreatu ditu»<sup>7</sup>.

<sup>7</sup> 1848tik hona, mirariok oraindik miragarriago bihurtu dira. Aldaketak gero eta sakonagoak eta azkarragoak izan dira. Gizakiak ilargia iritsi du. Hiru ordu t'erditan hel daiteke Parisetik New Yorkera. Telebista, zinema, automobila, informatika, mikroelektronika, teknikaren aurrerakada izugarria, Marxek sumatu ere ezin zitzaizkeen

Intuizio harrigarritz igarri zion Marxek munduaren eboluzioari 1848an. Beharbada, ondorioak ez zituen xuxen atzeman. Burges gizartearen kontradikzioen deskribapena apokaliptikoa da oso, erabateko leherketaren bezperetan dagoela uste baitu. Baina, gertatzez, berak pentsatu baino sendotasun eta erresistentzi ahalmen haundiagoa erakutsi izan du kapitalismoak aldian-aldiko krisietatik irteteko.

Kapitalismoa, azkenik, bere ehorzleak sortzen ari da, eta herioak jota dago honez gero:

*Burjeseriari muturka ari zaizkion klase guztietatik, proletargoa, ez beste, da egiazko klase iraultzailea. Beste klaseak arriskutan daude eta hil egiten dira industria haundiaz; proletargoa, aldiz, haren produkturik jatorrena da.*

Burgesiari dagokionez, «berari herioa ekarriko dioten harmak egin ez eze: harma hauk erabiliko dituzten gizonak ere sortu ditu, hots, langile modernoak, proletarioak»<sup>8</sup>.

#### 1.4 «LANGILEEK EZ DUTE ABERRIRIK»

*Manifestuaren* bigarren parteak «Proletariak eta komunistak» izenburua darama. Marxentzat, «komunistek ez dute alderdi ezberdin bat osotzen, beste langile alderdien kontrako denik». «Alderdi» hitzak adiera guztiz zabala du Marxen baitan, mugimendu sozial batena edo. Komunistek, zergatik osotzen duten herrialde guztietako talderik erabakitzaileena? «Proletal mugimenduaren kondizioen, martxaren eta helburu jeneralen ulermen argi bat» daukatelako.

*Manifestuan* Marxek eta Engelsek errebindikatzen dutena, hain zuzen ere, hauxe da: heuren tesi teorikoak —«komunisten proposamendu teorikoak»— «ez direla inola ere ideien gainean oinarritzen, ez eta honelako edo halako mundu-erreformatzaileak asmatutako hastapenetan ere». Aitzitik, «dauden klaseen burruka baten, gure begien aurrean berez eboluzionatzen den mugimendu historiko baten kondi-

aldakuntzak gertatu dira gure garaiotan. Aldi berean, planeta hondatzeko lain armamentu pilatu du gizonak; arimarik gabeko hiritzarretan milioika gizaki metatu eta beste milioika asko, XIX mendeko langile haien gisan, mixeriarik gorrienean abandonatu. Herri batzu gero eta aberatsago diren bitartean, beste asko gero eta pobreako bihurtzen ari.

<sup>8</sup> 138 urte ez dira alferrik pasa *Manifestua* idatzi zenetik hona. Garbi asko dago jadanik ez dagoela bizpahiru sasiazalpen axial-axaleko eta dogmakoi eginez segitzetik. Marxen analisisetatik abiatuz, gaurregungo klase eta estrato sozialen arteko kontrastak zehatz-mehatz ikertu behar dira. Kapitalismoaren gaurko fasean zernolako klase erlazio eta aldaketa ematen diren sakon aztertu duen autoreetako bat Nicos Poulantzas zena izan da. Ikus, besteak-beste, *Las clases sociales en el capitalismo actual*, Madrid, Siglo XXI, 1977.

zio errealean adierazpen globala besterik ez dira». Hau da, Marx eta Engelsentzat sozialismoaren aldeko aukera ez dela aukera idealista bat, ezpada errealitate sozialaren analisi materialistan —zientifikoan— funtsatutako hautapena eta eskakizuna.

Komunisten teoria slogan bakar honetan labur daiteke: «jabego pribatuaren abolitzea». Hauxe izango da gaitz guztien erremedioa Marxen iritzian.

Ondorenean egiten duen analisisa *Manifestuaren* zatirik ahulena da, beharbada. Komunistei egiten zaizkien kritikei erantzun nahi die. Komunistek ez dute familia abolitzerik nahi, burgesia bera da familia ezereztu duena. Komunistek ez dute emakumeen komunitaterik nahi, «burges ezkontza da, egiatan, andre ezkonduen komuntasuna». Zehazkiago oraindik: «gure burjesek, beren eskuetan proletariaren emakume eta alaba edukitzeaz aski ez dutelarik, prostituzio ofiziala alde batera utzita, halako plazer berezi bat aurkitzen diote elkarren artean adarrak ipintzeari».

Gainera, komunistak aberria, naziotasuna abolitu nahi izateaz akusatuak dira. Baina, dio Marxek, nola kenduko zaie ez daukatenik? «Langileek ez dute aberririk. Ezin ken dakieke ez dutena». Hona hemen eskandako eta gaizkiulertu franko sortutako hitzak. Marxen parrarteetan gutxi izango dira esatera hau bezain manipulatuagorik. Bere kontextutik aterata, ez bururik ez hankarik baitu, har dezagun pasarte oso-osorik:

*Langileek ez dute aberririk. Ezin ken dakieke ez dutena. Herrialde bakiotzeko proletargoak, lehen lehenik, botere politikoa konkistatu, bere burua bertako klase nazionalki zuzentzaitzat eraiki, eta berberak nazio bihurtu egin behar duenez gero, horrexegatik bera ere nazional da, baina inola ere ez hitzaren zentzu burjesean.*

Azter dezagun testu zati mamitsu hau: a) naziorik bada, izan; b) gertakari politiko bat da; c) klase dominatzaile oro klase nazionalizatzen eraikitzen da; d) klase nazional oro beraren nazioarekin identifikatzen da; e) burgesiak halaxe egin du, proletargoak horixe bera egin dezake; f) naziotasuna zentzuz alda daiteke, eskuratzen duen klasearen arauerara. «Teoria» interesgarri hau, tamalez, ahaztua eta baztertua izan da tradizio marxistan<sup>9</sup>.

<sup>9</sup> Pierre Vilarek azpimarratzen duen tesi mamitsu eta interesgarri hau gorabehera, nazio arazoari buruz Marxengan ez dugu azterketa edo teoria sistematikorik, ez «nazio» kontzeptuaren definizio zehatzik, ezta proletargoarentzako estrategia politiko orokorrik, ik. Haupt-Löwy-Weill, *Los marxistas y la cuestión nacional*, Fontamara, Barcelona, 1982. Gai Honi buruz libururik klasikoena Salomón F. Bloomen *El mundo de las naciones. El problema nacional en Marx* izenekoa dugu (Siglo XXI, Buenos Aires, 1975). Aipatu liburu biak dira zinez gomendagarriak eta bazterrezinak. Marxen hutsunerik nabarmenena nazio teoria baten falta dela esan daiteke, arazo nazionalaren eta soziala-

Nazio problemaren garrantzia bigarren mailakoa da proletargoaren interesen ondoan: «Proletariaren nazional burruka ezberdinetan, haiek, duten naziotasuna dena dela, aurrean proletargo osoaren interesak jartzen dituzte» eta «beti eta leku guztietan mugimendu osoaren interesak errepresentatzen dituzte». Langile interesak herri interesen aurretik jartzen dituelako bereizten da komunista beste langileetatik.

Europar barrena nazionalismoa gorantz zihoan sasoian —XIX mendea nazionalismoaren mendea izan zen—, bere begien aurrean gertatzen ari zena konprenitu ezinda zebilen Marx: «burjeseriaren aurre-ramenduaz... nazional mugak eta herrien arteko kontrastasuak gero eta ezereztuagoak agertzen dira honez gero... boterean jarriko den proletargoak are ezereztuagorik utziko ditu oraindik». Noiz esango hau eta, hein haundi batean, erreboluzio nazionalak izan ziren 1848ko erreboluzioaren atarian eta bezperan! Horretan irristatu eta huts egin zuen Marxek: 1848az gero, nazio berezitasunak eta burruak ez dira «gainditu», alderantziz baizik. Abertzaletasuna ahulduz eta desagertuz joan ordez, berebiziko indarra hartuz joan da.

Komunismora daraman bidea nolakoa izango den explikatzen du gero: «langile iraultzarako lehen pausoa proletargoa klase agintarizat eratzea da, hots, demokraziaren konkista». Beraz, demokraziaren osotasuna da sozialismoa, ez haren ukapena. Lerro batzuk aurreraxeago ere gauza bera: «Herrialde bakoitzeko proletargoak, lehen lehenik, botere politikoa konskistatu, eta berberak nazio bihurtu egin behar du». Agintea eskuratu eta gero, «proletargoa bere nagusitasun politikoaz baliatuko da, burjeseriari, pittinka-pittinka, kapital guztia ateratzeko, produkzio-tresna guztiak Estatuaren eskuetara zentralizatzeke, hau da, klase agintarizat jarritako proletargoaren eskuetara, honela, lehenbailehen, produkzio indarren kopurua handiago dadin».

Adierazgarria da «pittinka-pittinka» hau, burges gizartetik komunistarako trantsizioaldiaren auzia jartzen du eta. Produkzio modua oso-osorik aldatzeko erabakiok, jakina, «oso ezberdinak izango dira herrialde bakoitzean». Herrialderik aurreratuenetarako, hamar neurri proposatzen ditu. Hauetako zenbait, gizarte burgesetan ere aplikagarri dira, eta bete ere egin dira nolabait. Adibidez:

2) «Gero eta zerga haundiagoak jarri».

10) «Haur guztientzako heziera publiko eta dohainekoa. Orain praktikatzen denari uko egin, fabriketan haurren lana abolitu».

4) «Kanpora joandako eta bihurri guztien jabegoa konfiskatu».

Gainerako neurriek zentzu sozialistago bat dute<sup>10</sup>:

ren arteko artikulaziorik eta baterapenik eza. Honez gero, denok bat gatzoke honetan (Txillardegi, J. Azurmendi, G. Garate, e. a.). Nolanahi ere, Marxek eboluzio handia egin zuen gaztaroko posizio teoriko eta politikoetatik zahartzarokoetara: Marx zaharra gero eta abertzaleagoa agertuko da (Irlandaren kasua).

<sup>10</sup> Engelsek 1872.ko aleman edizioaren hitzaurrean: «Azken hoge eta bost urteotan zirkunstantziak asko aldatu diren arren, *Manifestu* honetan azalduko hastapen



«1) Lurdunak beren jabegoaz desjabetu eta lurren gaineko errenta Estatuaren gastuei eranstea.

3) Heredentzien abolitzea.

5) Kapitala Estatuarena izaten den eta hartaz monopolio eksklusibo batez baliatuko den nazional banku baten bitartez, kreditua Estatuaren eskuetara zentralizatu.

6) Garraiabide guztiak Estatuaren eskuetara zentralizatzea.

7) Nazional fabrikak eta produkzio-tresnak ugaltu: landu gabeko lurrak goldatu eta landuriko arloak hobatu, plan jeneral baten arauera.

8) Lana guztientzat beharrezkoa jarri: industri armadak eratu, lur-lantzarako, batez ere.

9) Nekazal lana industri lanaz tartekatu: honen bitartez hiri-base-ri arteko ezberdintasuna pittinka ezerez dadin».

Ikusten denez, produktibista, estatuzale eta nahiko utopiko agertzen da Marx behin eta berriz. Hamar neurriok izendatu ondoren, sistema berria «lagun elkartuen eskuetan bildutako produkziozat» jotzen du berak, «indar publikoak bere izaera politikoa galduko duela» ohartaraziz.

Proletargoa, Erreboluzioaren bitartez, klase dominatzailea bihurtuko da, baina klaseak birrintzera iristen denean, bere klase zapalkuntza bera ere desagertu egingo da. «Aurreko gizartea barik, zituen klase eta klase arteko kontrastak barik, elkargo berri bat sortzen da, eta honetan lagun bakoitzaren aurreramendu librea guztien aurreramendu liberako baldintza bihurtzen da». Klaserik gabe, Estaturik gabe, gizateria komunismoaren aroan sartuko da.

*Manifestuaren* hirugarren parteak sozialismoaren eta komunismoaren historiaurrea aipatzen du: «Literatura sozialista eta komunista».

«Sozialismo atzerakoia» deitzen duena aztertzen du lehenbizi. Feudal sozialismoa (aristokratikoa, legitimista eta kristaua) burges ttikitar sozialismotik (Sismondi) bereizi ondoren, aleman edo «egiazko sozialismoa» eta sozialismo kontserbadorea edo burgesa (Proudhon) kritikatzin ditu. Eta azkenez, sozialismo eta komunismo kritiko-utopikoak (Saint-Simon, Fourier, Owen, etab.) erreparatzin ditu. Sistema hauen egileak alderdi askotan iraultzailatzin baldin badauzka ere, «berauen ikasleek osatzen dituzten sektak beti dira atzerakoi, klase arteko burruka ahuldu eta beronen kontrastak adiskidetzin» bilatzen baitute.

Laugarren zati labur-laburrean, eraturik dauden langile alderdiekiko komunisten jarrera zein den explikatzen da. Frantzian, Alderdi de-

jeneralek, oro har, beren zehaztasun osoa gordetzen dute oraindik gaur egun. *Manifestuak* berak azaltzen du hastapenen aplikazioa, une eta leku guztietan, orduan dauden zirkunstantzia historikoen menpean dela, eta beraz, ez zaiela garrantzi haundirik eman behar». Ik. *A. K.ren Manifestua*, aip. lib. 7 or.

mokratiko-sozialistarekin baturik azaltzen dira. Suitzan, Alderdi erradikalari ematen diote laguntza. Polonian, «komunistek lurlangintzaren iraultza batetan nazional emantzipaziorako kondizioa dakusan alderdiari eusten diote, hau da, 1846.ean Krakoviako matxinada egin zuen alderdiari»<sup>11</sup>.

Alemanian jarrita zeuzkaten beren itxaropenak Marxek eta Engelsek: «Komunisten ardura, batez ere, Alemaniari adi adi dago, Alemania burjes iraultza baten bezperan dagoelako», eta Alemaniako burjes iraultza «ondo ondoko proletar iraultzaren preludea besterik izanen ez delako». Arrazoi zuen Marxek lehen puntuan; bigarrengoan, ez zen erreboluzio honen nazional jiteaz ohartu, eta Alemaniako proletar erreboluzioaren ahaltasunak soberetsi egin zituen, gainera.

Sonatua eta txit ezaguna da, azkenik, *Manifestuaren* amaierako pasartea:

*Komunistak ez dira makurtzen beren iritziak eta proiektuak ezkutuan estaltzera. Beren helburuak lortzeko, aldez aurretik, sozial ordena tradizional osoa hurrera gogorki bota behar dela, zabal zabalik aldarrikatzen dute, Ikara bitez klase zapaltzaileak iraultza komunista baten ideiarean aurrean! Proletarietiek ez dute ezer galtzeko, beren kateak izan ezik. Mundu oso bat dute irabazteko, baina.*

*Herrialde guztietako proletariok, elkar zaitetze!*

Gaur egun, *Manifestua*, literatura sozialista guztiaren obrarik zabalduena eta internazionalena da, batere zalantzarik gabe. Berau da, arkaismo, utopia eta hutsune guztiak gorabehera, proletargoaren askatasunari eskainitako himnorik ezagunena.

Horrexegatik izan du hain arrakasta izugarria, bizikondizio mixrabletan bizi diren ehundaka milioi gizakiren hasarrea eta klaserik gabeko gizarte berri eta hobeago baten itxaropena adierazten dituelako. Hurbildik begiratuta, hango iragarpen askok huts egin du, mundua de-xente aldatu baita 1848tik hona; baina, urrundik ikusiz gero, giza askatasunari eraikitako monumentu hilezina izaten jarraitzen du<sup>12</sup>.

Eta hala jarraituko ere, sekula sekulotan!

<sup>11</sup> Krakoviako matxinada honen helburua Poloniaren askatasuna izan zen, bate-tik, eta lur banaketaren erreforma ausart bat, bestetik. Poloniar abertzaleen alde zegoen Marx, ba, testu honetan bertan ikus daitekeenez. Ik. J. Azurmendi, *Hinkuntza, Etnia eta Marxismoa*, aip. lib. 130 or. eta hur.

<sup>12</sup> 1872.ko aleman edizioaren hitzaurrean, «zuzenketatxo» bat egin zioten idazki honi Marx eta Engelsek: «Industria haundiak azken hogeit eta bost urteotan egindako aurrerapen izugarriak eta berauekin batean langile klaseak, alderdi gisa eratu izan den neurrian, egin dituen pareko aurrerapenak kontuan hartuta, eta Otsaileko iraultzatik lehen, eta batez ere geroago, proletargoari bi hilabeteen lehenbiziko botere politikoa entregatu zion Pariseko Komunatik ateratako esperientziak kontuan harturik, programa hau, zenbait puntutan zahartua dateke. Komunak, hain zuzen, argi erakutsi du «ez dela aski langile klasea Estatuaren makinaz jabetzea berau bere helburu propioetara erabiltzeko». Ik. *A. K.ren Manifestua*, 9 or.

## 2. Kapituluia

### ITXAROPENAREN ETA DESESPERAZIOAREN ARTEAN (1848-1858)

Gizakiek egiten dute beren historia, baina ez dute beraiek nahi bezala eta beraiek hautaturiko baldintzen pean egiten, iraganaldiak zuzenean emaniko zirkunstantzien pean baizik.

(Marx, *L. Bonaparteren Brumarioaren 18a*, 1849)

Neri dagokidan aldetik, ez da nire meritua izan, gizarte modernoan klaseak badirela asmatzea, ez eta berauen arteko burruka salatzea ere. Nire aurretik, historialari burges batzuk izan dira klasearteko burruka honen eboluzio historikoa adierazi dutenak eta beronen ekonomiazko anatomia azaldu dutenak. Nik egin dudak ekarpen berria, hau da: 1) klaseen existentzia produkzioaren aurrerabidearen fase historiko determinatuei bakarrik loturik doala; 2) klasearteko burrukak nahitaz proletargoaren diktadurara eramaten duela; 3) diktadura hau, berez, klase guztien deuseztapen eta klaserik gabeko gizarterako abiabide besterik ez dela.

(Marx, J. Weydemeyeri egindako gutuna, 1852)

#### 2.1 1848KO ERREBOLUZIOAN MURGILDURIK

Erreboluzioa lehertzera zihoan Europa guztian. Nonahi somatzen haren hurbiltasuna. Suitzan, 1847ko azaroan, jesuiten expulzioa erabaki zuten kantoï erradikal gehienek. Egozketaren kontra jeikitako kantoï katolikoak menperatuak izan ziren. Italian, errege borbondarra uzkaile eta errepublika aldarrikatu zuten Napolesen, Turinen eta Florentzian. Urtarrilean, Bi Sizilia eta Palermoraino iritsia zen erreboluzioarenugarra<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Marx eta Engelsen jokabidea 1848ko erreboluzio gorabeheretan aztertzen duen liburu guztiz irakurgarria honako hau da: F. Claudin, *Marx, Engels y la revolución de*

Engels, 1848ko urtarrilean Frantziatik kanporazia, Marxen ondora itzuli zen berriro, eta Pariseko Komunisten Ligaren egoera narras eta larriaren berri zehatza eman zion: «Sekula ez diat halako nagikeria eta jelsia ziztririk ikusi. Weitlingismoa eta Proudhonismoa, inbezi horien adierazpenik egokienak dituk benetan».

Otsailaren 24ean, Louis-Philippek abdikatu eta iraultza garaile aterra zen Parisen, Bigarren Errepublikak sortuz. Bruselaseko komunistak bazterrak endredatzen ari zirela ikusirik, Marx jaurtikitzea erabaki zuen Ministrari Kontseiluak martxoaren leian.

Gobernu probisionalak Frantziara itzultzeko aukera eman zion Marxi. Martxoaren 5ean, senar-emazteak Parisera ailegatu zirenean zeharo aldatua aurkitu zuten hiri maitatua: kaleak bandera gorri eta hirukoloreko josiak, barrikada eta tiroen arrastoak bazterretan, askatasun giroa nonahi. Alemaniara burrukatzera joateko herri armada edo Legioa antolatu nahi zuten aleman errefuxiatuei aurka egin zien Marxek, halare.

Jeikialdiak, asaldurak eta errebolta gero eta ugariagoak ziren mendebaldeko Europan. Martxoaren 13an, erreboluzioa lehertu zen Vienan. Italian ere matxinadak zabaltzen ari. Martxoaren 18an, Konstituzioa onartarazi zioten Friedrich Gilen IVari Berlingen.

Optimismo haundiak zebiltzan Marxek. Ez zuen ezertarako astirik. Lana eskuartean pilatzen zitzaion. Jenny, berriz, kexu zen: «erabat lanpetua etxeko lanekin eta hiru kaurrekin». Batasun nazionalaren aldeko altxamendua gertatu zenean, *Alemaniano alderdi komunistaren eskakizunak* izeneko programa idatzi zuen Marxek, burgesia liberalaren eta proletargoaren arteko ekintzazko batasuna proposatuz. *Manifestuan* aipatutako hamar neurrietatik lau bakarrik sartu zituen: banku estatala, garraiabideen nazionalizazioa, zergen tasa progresiboa eta heziketa librea.

Prusian, *Rheinische Zeitungeko* diruzain izandako Camphausen Lehen Ministro izendatu berria zuten. Marx, apirilaren 10ean, Coloniara heldu bezain laster, «Elkarte Demokratiko» berri bat eraikitzeari lotu zitzaion. Ez zuen basamortuan predikatzen ibili nahi, ezta sekta kaxkar bat zuzentzen ihardun ere. Alderdi zabal eta eraginkorra nahi zuen; hortik, Komunisten Liga alde batera baztertu izana. Alemanian, gainera, komunistak izeneko elkarte batek ez zukeen inola ere harrera berorik bilduko.

Marx eta beraren lagunen kezka eta ardurak nagusia eragin haundiko egunkari nazional bat argitara ematea zen. Horretarako diru bila zebiltzan jo eta ke. Halatan, *Rhenaniako Kazeta Berria* —*Neue Rheinische Zeitung*— 1848ko urtarrilaren leian kaleratu zen «demokraziaren organo» gisa. Engelsek aurreraxeago esango zuenez, bi helburu nagusi

zituen: «aleman errepublika bakarra, batua eta demokratikoa», bategatik, eta «Polonia bereraikitzeke Errusiari gerra» bestetik. Europa osoan hedatzen hasia zen kontrarreboluzioa salatu eta bata bestearen ondotik zanpatuak ziren mugimendu iraultzaileak (Pariseko matxina-tuak, bereziki) goretsi zituzten bere orrietan.

Colonian langile elkarteko buruzagi bi atzeman eta espetxeratu zituztenez, protesta jo zuelako, juizioa sartu zioten *Kazeta* berriari. Marxek adierazpen askatasunaren alde sutuki hitzegin zuen berriro epaileen aurrean. Esan ohi denaz bestaldera, politikazko demokrazia nahitaezkozkat zeukan. Funtzionarioen despotismoaren aurkako kontrol eraginkor bakarra irizten zion prentsa askatasunari.

Marx Alemanian zehar batetik bestera ibili zen, gertaeren berri zuzen-zuzenean jakin ahal izateko. Coloniara itzultzean, lau artikulua idatzi zituen *Krisia eta kontrarreboluzioaz*, Berlinen Friedrich Gilen IVak Asanblearik gabe gobernatzea erabaki zuela eta: «Erreboluzio baten ondorenean, edozein gobernu probisionalek diktaduraren beharra dauka, diktadura gogorra gainera. Hasieratik, diktadurazko bideak baliatu ez izana aurpegiratu diogu Camphsuseni, instituzio zaharren aztarnak ezabatu eta suntsitu ez izana». Eta aurreraxeago oraindik: «Trantsiziozko egoera batean, garrantzikoena ez da holako edo halako printzipioren bat, guztien osasuna baizik».

1848ko irailean, setio egoera proklamatu zuten Colonian eta egunkari guztiak galerazi, *Rhenaniako Kazeta Berria* beraien artean. Erabaki hau, halare, deuseztu egin zuten handik laster. *Burgesia eta kontrarreboluzioa* zeritzon artikulua sailean Alemaniako erreboluzioaren berezitasunak aztertu zituen Marxek. Frantziako langileriaren hondamena zela eta, «barbareriak zibilizazioa menperatu duela» zioen beste batean. «Polonia, Italia eta Irlanda berriro ere bortxatuak, asasinatuak izan dira prusiar, austriar eta ingeles lekaioen aldetik».

Marx optimista beti erreboluzioari buruz! «Frantses langile klasearen altxamendu iraultzailea, mundu gudatea, horra hor 1849. urterako egitaraua». Gertakariak, ordea, ez ziren ondo ezkondu haren uste eta aurreanekin: ez frantses langileriaren jeiki aldirik, ez gerrate mundialik gertatu zen.

Marxek eskaturik, «magiarren burrukaz» lan bat prestatu zuen Engelsek. Ohargarriak dira Marxen eskaera hitzak: «Idatziez adak artikulua xehe bat Proudhoni buruz, eta geografo ona haizenez gero, beste bat hungariar kaka horretaz (herri erlauntza horretaz). Ez hadi Proudhonez ahaztu». Marx, bistan da, ez zen geografo ona, eta ez zituen ongi eza-gutzen nazionalitate arazoak. Hausburgotar Inperioa osatzen zuen «herri erlauntza» hura, batez ere, erabat arrotza gertatzen zitzaion<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Izugarriak bezain tamalgarriak dira Engelsek artikuluan jaurtitako astakeriak nazionalitate txikiei buruz. Beraren ustez, txekoak, serbioak bretoiak, eslaboak eta euskaldunak, beste batzuen artean, «historiaren martxak gupidarik gabe ostikopetuta-

1849ko otsailean, *Atxilotzeak* izeneko artikulu batengatik auzia jarri zioten berriro Marxi. Egokiera hartaz baliatuz, prentsari dagokion kritika eskubidearen alde mintzatu zen orduan ere guztiz irmo eta sendo. «Gizartea ez da zuzenbidean oinarritzen, hau fikzio legal bat baita; alderantziz, gizartean behar du oinarritu zuzenbideak», erantsi zuen. Bien bitartean, kontrairaultza indartuz zihoan Europan. Vienan, Pragan eta Parisen nagusi zen dagoeneko. Berlinen, Erregea aginte uhalen jabe egina zen berriro.

Maiatzaren 19an kaleratu zen, gorritz inprimiturik, *Neue Rheinische Zeitungen* azkenengo lumeroa, 20.000 ale salduz. «Gotorlekuari» lur joerazi zioten, azkenean. Marxek, irakurleak agurtzen zitueneko azken artikuluan, bere iritzirik ez zuela inoiz ere izkutatu esan zuen, eta egunkariak hasiera-hasieratik errepublika soziala defenditu izan zuela. Zenbaki berean, Hungriako errusiar interbentzioa kondenatzen zuen Engelsek, «Erreboluzioa laster da Parisen» esperantzazko hitzez bukatzen zuelarik. Hélas, Erreboluzioak ez zuen eztandarik egin Parisen! Errusiarrek hungariarrei irabazi zieten eta alemanek ez zuten ikararik egn. Kondairaren kurrupila, ezin uka, kontrarreboluzioaren aldera bueltatu zen oraingoan ere.

*Rhenaniako Kazeta Berria*, dena den, burges erreboluzioa proletargoaren ikuspuntutik defendituz, historiako lehenbiziko egunkari komunista izan zen. Politikazko eragozpen eta diru larritasun guztiak alde batera, kazetari dohain apartekoak erakutsi zituen Marxek. «Adio esanez, egin diozuen abegi bikaina eskertzen dizuete *Neue Rheinische Zeitungeko* idazleek. Gure azken oihua nonahi eta beti hauxe izango da: langile klasearen emantzipazioa!». Horiexek izan ziren azken hitzak.

Engels Badengo erreboluziolarien armadan sartu zen boluntario, eta Marx, egun batzutan Alemanian burrukan segitu ondoren, atzera Parisera bihurtu zen 1849ko ekainaren 3an edo 4an. Jenny eta haurrak, berriz, Treverisera bideratu ziren. Louis-Naoleon Bonaparteren agintaritzapean, «Ordenuaren Alderdiak» gobernatzeko Frantzia. Marxek, bestalde, ez zuen harrera berorik izan aleman erbesteratuen artean. Okerrago oraindik: frantses gobernuak, Marxen ibilerei susmoak harturik, Britainiako Morbihanera bidaltzea erabaki zuen.

Gauzak horrela, Marx ez zegoen geldi teoriztaren mailan, ez horixe. Bazuen asmo eta proiektu berririk buruan eta eskuartean. *Lan alokatua eta Kapitala* liburuxka gisa argitaratu nahi zuen<sup>3</sup>, baita hila-

ko hondakinak» dira; «kondairatik ateko herriak», «nazio errektionarioak funtsean»... Arazo hau xeheki aztertu du honako autore honek: R. Rosdolski, *F. Engels y el problema de los pueblos «sin historia»*, Cuadernos México, 1980.

<sup>3</sup> Marxek, 1847ko abenduaren 14etik 30era arte Bruselaseko langileei egindako hitzaldiak. Aparteko liburuxka gisa, 1891ean, Berlinen, Engelsen hitzaurre eta zuzentza pean berrargitaratua izan zen. X. Kintanak aleman textuaren arauera euskaratua, ik. *Lan alokatua eta Kapitala*, Lur, Donostia, 1971.

betekari politiko-ekonomiko berri bat sortu ere. Beronek, *Rhenaniako Kazeta Berria-Aldizkari politiko eta ekonomikoak* alegia, 1849ko abenduan ikusi zuen argia.

Abuztuaren 23an, azkenik, Paris utzi eta Morbihaneko departamendura aldegitiko agindua etorri zitzaion. Berak, ordea, frantsesen preso iraun bano Londresera ihes egitea nahiago izan zuen. Hantxe bizi izan zen 34 urte neketsu eta luzez, 1883an hil zen arte<sup>4</sup>. Bizitza erdia baino gehiago pasa zuen, beraz, bere «exilio gau logabea».

## 2.2 ERREBOLUZIOA BETI ATZERATZEN ARI

XIX mendearen erdialdean, Britainia Handia munduko Estaturik boteretsu eta aurreratuena zen. Industriarik garrantzitsuenaren jabe ezetik, itsaso, merkatalgo eta finantza arloan ere nagusigoa zuen. Londres, 2.600.000 bizilagunekin, hiririk populatu eta aberatsena zen. City delakoa, negozioen eta boltsaren erdigunea zen. Beste inon baino hobeto azter zitezkeen han kapitalaren mekanismoak eta sistemaren kontradikzioak. Aberastasuna eta miseria elkarren alboan bizi ziren bertan, bi lurralde ezberdin eta aparteko bailiran<sup>5</sup>.

1837az gero Ingalaterrako Erregina zen Viktoriak, 1848ko erreboluzio ostean ihesi etorritako erbesteratuak liberaltasunez hartu zituen. Europarik gehienez porrot egin zuen iraultzak. Lekutan zeuden Marxen usteak eta iragarpenak!

Pariseko lagunei esker, Jennyk Londreserako bidaia egin ahal izan zuen irailaren 17an, bere hiru haurrekin batera. Hiriko auzoalderik txiroenetakoan, Chelsean, Anderson Streeteko 4ean, jarri ziren bizitzen. Gela bakarra zazpi pertsonentzat! Etxe alokairurik ordaintzeko adina dirurik ez eta bizilekuz aldatu beharra izan zuten behin baino gehiagotan.

Charles Dickensek errerealismu garratzez deskribitutako pobre haien antzera bizi ziren Marxtarrak, mixeria gorri-gorrian, alegia. Berehala, azaroaren 5ean jaio zitzaizen Guido, bere laugarren haurra —mutiletan bigarrena—. Jennyk, J. Weydemeyeri egindako eskutitz batean bihotz bete tristuraz agertzen dio zenbat eta zenbat sufritu behar izan zuten 1849-1850eko negu luze eta samín hartan.

Marxek aldizkaria zuen eginkizun guztietan kutunena. Lehen lau zenbakietan *Frantziako klase burrukak* izeneko artikulu saila publikatu

<sup>4</sup> «Hemen aurkitu zuen Marxek bilatzen ari zena, beharrezko zitzaiona: beraren lanerako adreiluak eta argamasa. *Kapitala* Londresen bakarrik idatz zitezkeen. Ingalaterran bakarrik irits zitezkeen Marx izan zena izatera», izkribitu zuen W. Liebknechek.

<sup>5</sup> Kontraste hau ederki deskribitu zuen gero Lehen Ministro Kontserbadorea izan zen Disraelik, *Sibyl* izeneko nobelan.

zuen<sup>6</sup>. 1848ko otsaileko erreboluzioaz gero Frantzian gertatutakoen azterketa historiko honetan hirutan aipatzen du «proletargoaren klase diktadura» hitza. Baina inola ere ez demokraziaren kontrako zentzuan. Ez zuen alderdi edo talde txiki baten diktadurarik adierazi nahi, behinik-behin.

Aldizkarian Marx eta Engelsen izkribu gehiago ere argitaratu ziren, hala nola zenbait liburu kritika. Baina, inolako laguntzarik ez, eta oso bizitzaldi laburra izan zuen honek ere.

1850eko azaroan Guido txikia hil zitzairen, urtebete egin baino lehen. Jenny, Marxek berak esatera, heriotza horrek aragindako txokeagatik, nerbioetatik gaiso egon zen. Ezbeharrok gorabehera, Marxek aktiboki segitu zuen aleman atzerriratuen aldeko Komite sozial demokrotan eta Komunisten Ligan militatzen. Engelsekin batera, Ligakoei zuzenduriko «gutun» bat idatzi zuen. Textu honetan, «demokrata burges txikiengandik» zertan bereizten diren azpimarratzen dute. Proletargoak bere helburu propioak eduki behar ditu. Erakunde ofiziale-tatik at, langileek beren erakunde paralelo eta bereziak behar dituzte. Botere armatua lortu<sup>7</sup>.

Akordio batera iritsi zen Marx britainiar kartistekin eta Londresen erbesteratutako frantses blankistekin, komunisten Elkargo mundial bat sortzeko. Baina taldekoen arteko sesioek, frakzioen arteko estiluek eta pertsonarteko ezinikusiek Komunisten Ligaren hondamendia eta eroria ekarri zuten.

1850.urtea amaitzean, Marx eta Engels azken gertaeren ondorioak ateratzen ahalegindu ziren. Komunisten Liga hautsita, aldizkaria desagerturik, erreboluzioa beti atzeratzen ari, egoerak birplanteamendu bat eskatzen zuen edozein modutara. Engels Manchesterera zuzendu zen, Ermen and Engels Co., aitaren fabrika kontulari bezala lan egitera. Bere lanpostuari esker, bizitza eroso ahal izan zuen eta, neurri handi batean, Marxtarrei ekonomi estualdietatik irteten lagundu ere bai. Goizetik ofizinan eta arratsaldetan, berriz, artikuluak, panfletoak eta eskutitzak idazten, hizkuntzak ikasten edo-eta militar kontuak lantzen ihardun ohi zuen.

Marxi dagokionez, gertakizunen martxaz etsita, British Museum-rako bidea hartu zuen, 1847az gero baztertuta zeuzkan ekonomi estudioei buru-belarri ekiteko. Jenny haur esperantzetan zen berriro: 1851eko martxoaren 28an bere bosgarren haurra ekarri zuen mundura, Frantziak. Marxek hitzokoin jakinerazi zion berria Engels lagunari: «Ene emazteak, zoritxarrez, nexka bat izan dik eta ez mutikorik»<sup>8</sup>.

<sup>6</sup> *Frantziako klase burrukak* izenpean, aparteko liburutxo batean argitaratu zituen Engelsek 1895ean.

<sup>7</sup> 1905 eta 1917ko errusiar sovietak, eta Hungria eta Alemaniako kontseilu errepublikak gogorazten dizkigu guzti honek.

<sup>8</sup> Inkontziente hutsa ote zen, ba, Marx? Nola zitekeen, bestela, mixerian bizi eta horrenbeste ume ekartzen segi bata bestearen segidan? Garai hartan, noski, ez zegoen



Eta ez hori bakarrik. Lehengoz aski ez bailuten, urte honetako otsailaren 23an, Marxtarren neskamea, Helene Demuth, seme batez erditu zen. Gaurregun eskuarki onartua den iritziaren arauera, Marx ei zen Frederick haurraren aita (Engelsek berbera aitortu omen zuen hil aurretixoan). Baina berau ez da inoiz modu seguru batez frogatu ahal izan, ezta gezurtzat ukatu ere, bestalde.

1850. urtearen amaieraz gero, munduko ekonomi liburutegirik hobereena zuen British Museumera joan ohi zen egunero Marx. Hala zioen Jennyk Engelsi 1851eko urtarrilean: «Nire senarra bibliotekan dago denbora ematen». Museo Britainiarra ez zegoen Marxen etxetik oso urruti ere eta oinez joan ohi zen bertaraino, bazkaria hartuta. Zenbat joanetorri «hango dokumentazio harrigarria» pazientzi eta ardura haundiz miatzeko! «Denborarik gehiena British Museumean pasatzen diat, goizeko bederatzietatik arratseko zazpirak arte», idazten zion Engelsi. Irakurgela huraxe izan zen beraren despatxua urtetan; G-7 maiahan esertzen omen zen, kontsulta liburuen sailaren alboan.

Harrapatzen zituen egunkari eta errebista guztiez aparte —*The Economist*, batez ere—, ekonomia politikozko liburua irakurri eta arakatu ohi zituen nagusiki. —Gobernuaren «diburu urdinak», besteak beste—. Ez zituen, horregatio, ilusi makalak egiten. Hara zer zioen 1851eko apirilaren 2an:

*Hain aurreratua nabil, bost aste barru ekonomiaren kakazahar honi amaiera eman ahal izango diodala. Hau egin eta gero, beste zientzia bati helduko diot: honekin aspertzen hasia bainago. Funtsean, Adam Smith eta David Ricardoz gero, zientzia honek ez du deus aurreratu»<sup>9</sup>.*

Marxek, halare, «ekonomiaren kakazahar» berari bueltak eta erre-bueltak ematen arituko zen azkenerarte. Ez zitzaion gauzak erdipurdika egitea gustatzen. Datuak bilduz, ideiak sakonduz, lanak orraztuz, aldaketa eta zuzenketa mordera eginez ihardun ohi zuen etengabe, harik eta lana bere puntuan utzi arte. Eta orduan ere ez zen konforme gelditzen, beti zeukan ukituren bat emateko edo libururen bat irakurtzeko. Hori zela eta, ezin konta ahala orri utzi zituen inprimitzeka. Urteetan zehar landu eta landu ibili ondoren, bizi guztian barrena hainbeste neke eta afenez burututako obra gorena, *Kapitala* publikatzerakoan, hala idatzi zion Kugelman adiskideari: «Nire lanek, behin inprimituez gero, nazka ematen didate, lehen begiratuan batez ere». Hain aspergarria egiten zitzaion ekonomia politikoari gaina hartu

gaurko sorkuntz kontrolik, baina hala eta guztiz ere! Bat baino gehiago ez zuenik ere bazen.

<sup>9</sup> Amsterdamen gordetzen diren nota koadernoiei esker, zerbait badakigu Marxen irakurketen berri. 1850etik 1853ra, hogei koadernotik gora zirriboratu eta bete zituen gutxienez.

ezinda hilko zen, azkenean, ahalegin eta enpeinu horretan osasuna bera erabat hondatzeraino iritsiz.

Marxen idazki askoren helburua ez zen politikoa edo teorikoa soil-soilik. Zorrez janda zebilen, eta mantenua irabazteko nonbaitetik atera behar zuen dirua. Zer erremedio, ezingo zen beti eskale gisa ibili! Horregatik, moneda eta kredituari buruzko eskuizkribu bat idatzi zuen 1851ean. Baina gogotik ahalegindu izan arren, editorerik aurkitzen ez. «Nire emazteak errukia ematen zidak: berak zeramak pisurik astunena eta, azken batean, arrazoia dik. Industriak ezkontzak bano produktiboagoa izan behar dik inondik ere», aitortuko zion Engelsi, autokritika eginez bezala.

Proudhonek, urte honetan bertan, *Erreboluzioaren ideia orokorra XIX mendean* izeneko liburua atera zuen. Marxek zioenez, Proudhonek «gizarte burges sano bat egin» nahi zuen. Dagoena hobetu, alegia. Marxek, alderantziz, gizartearen zeharoko eta erabateko eraldaketa nahi zuen. Hauxe da, hain zuzen, 1851az gero kondairak jarri digun galdera nagusienetako bat: erreforma ala erreboluzioa? Hortxe dago gakoa!<sup>10</sup>.

### 2.3 L. BONAPARTEREN BRUMARIOAREN 18A

Marxek gertutik eta interes haundiz segitzen zien Frantziako arazo eta gorabeherei, ez bakarrik Parisen ibilitakoa zelako edo frantsesa ondo menderatzen zuelako, baizik eta Frantzia Erreboluzioaren bihoz-tzat zeukalako. Engelsekin luzaz hitzegin ohi zuen frantses politika kontuetaz.

1851eko urriaren 15ean, zera esaten zion bere adiskide minari karta batean: «Nolanahi ere, erreboluzioa ez zegoek barrikada zentzuan hartzerik. Sufragio unibertsalarekin ezin duk horrelakorik pentsatu ere egin». Gogoeta esanguratsua hauxe, haren erreboluzio ideari buruzko eboluzioa ulertzeko. 1851etik aurrera, konturatzen hasten baita sufragio unibertsalak kondizio politiko berriak sortu dituela, eta hauek burruka era berriei bidea ireki dietela. Eta hori Engelsek *Frantziako klase burrukei* egindako hitzaurre famatua baino askoz lehenago hauteman zuen Marxek.

Estatu kolpea abenduaren 2an jo zuen Louis Napoleon Bonaparte, Napoleon «Txikik»; Asanblea desegin, II Inperioa ezarri eta bere burua enperadore egin zuen, Napoleon III izena hartuz.

<sup>10</sup> Dilema gisa planteatu behar al da, ala dialektikoki? Erreboluzioa ez ote da erreforma bidez egiten? Non dago bien arteko muga? Erreboluzioa, Marxek ulertzen zuen moduan behintzat, ez ote da XIX mendeko mito bat? Herri aurreratuetan ez da hark amestu zuen erreboluziorik gauzatu. Errusiara, Txinara, Kubara, Vietnamera edo Nikaraguara jo beharra dago, beste tankera bateko iraultza bila.

Joseph Weydemeyer, kazetari komunista eta Estatu Batuetan erbestaturik zegoen Marx eta Engelsen lagun haundiak, New Yorken politikazko astekari bat editatzekotan zen. Astekari honetarako Estatu kolpearen historia bidaltzera gonbidatu zuen Marx. Bai azkar asko ekin ere lanari! Baina, beti bezala, artikulu llabur baten ordezt, liburuska bat atera zitzaion<sup>11</sup>.

Victor Hugorentzat, Estatu kolpe hau gizon bekar baten indarrezko ekintza besterik ez da. Proudhon, bere aldetik, eboluzio eta garapen historikoaren emaitzatzat agertzen saiatzen da. Marxek, ordea, Frantziako klase burrukaren ondorioa dela erakusten du: «Nik, ordea, nola klase burrukak Frantzia pertsonaia arrunt eta farregarri bati heroe papera jokarazi zioten harreman eta zirkunstantziak sortu zituen erakusten dut». Kondaira ez da errege edo fetxa kontu bat: klase burruka du motor eta eragile.

Honako hitzokin ematen dio hasiera liburuari:

*Hegelek nonbait zioen, Historia unibertsaleko gertakari eta pertsona nagusiak birritan jazotzen omen direla. Baina zera eranstea ahaztu zitzaion: behin tragedia bezala eta bestean farsa bezala.*

Gertakizunen laburtzapen bat eginez, zera konstatatzen du Marxek: aurretik ezarritako zirkunstantzia zehatz batzuegandik baldintzatu eta mugatua dagoela gizakia.

*Gizakiek egiten dute beren historia, baina ez dute beraiek nahi bezala eta beraiek hautaturiko baldintzen pean egiten, iraganaldiak zuzenean emaniko zirkunstantzien pean baizik. Arbaso zaharren tradizioak, amesgaizto batek bezala zapaltzen du bizidunen burumuina.*

Zein baldinkizunetan idatzi zen gogoan izanik, Marxen talentu aparta erakusten duen lan sakon eta zorrotza da *Brumarioaren 18a*. 152an, 34 urterekin, sasoi onenean zegoen Marx. Utz ditzagun alde batera beraren famili larritasunak, erbesteratuekiko istiluak, petralkeriak eta ziztrinkeriak oro, eta muga gaitezen haren izkribuetara.

Ahaztuezinekoa da XVIII eta XIX mendeetako iraultzen azterketa eta deskribizioa. Ezin hobeki agertzen ditu erreboluzioen abiadura, sortzen duten entusiamoa, dakartzaten gatazkak, hots, gizarteak mundu berri baten jaiotzaraino egin behar duen bide luzea. Bizitasunez, irudiz eta egitasunez beteriko hitzak dira:

<sup>11</sup> Bitartean, Weydemeyeren lehen asmo horrek lur jo zuen. Haatik, eragozpenak oro gandituz, 1852ko udaberrian *Die Revolution* astekaria argitaratzea lortu zuen: horixe agertu zen Marxen idazlana ere. Ikus, K. Marx, *L. Bonaparteren Brumarioaren 18a*, Lur, Donostia, 1973. Mario Onaindiak Cacereseko gartzelan euskaratua.

*Iraultza burgesak, XVIII mendekoak, dena sakailatuz doaz aurrera, garaitiaz garaitia, beren ondoren dramatikoez elkar baztertzen dutelarik, gauzak eta gizakiek diamantezko suek argituak dirudite; gizartea beti dago extasian; baina iraultza hauk laburki bizitzen dira, laster hel-tzen dira, eta memento kementsu eta zalapartatsuen ondorenak ondo asi-mila ditzaketen bano lehen, gizarteaz depresio luze bat jabetzen da.*

*Erreboluzio proletariet, XIX mendekoak, aldiz, beren burua etenga-be kritikatzten dute; behin eta berriz gelditzen dira beren marxan eta bu-katua zirudienera itzultzen, hastapenetik abiatzeko; zitalki trufatzen dira eztabaida, alde mehe eta lehen saioen txikertasunez; badirudi etsaiak ga-raitzen dituztenean, ez dutela egiten hauk lurretik indar berriak atera eta erraldoiogo jeiki zitezen baizik; beren helburuen haunditasunak izaturik, atzera jotzen dute, atzerago joaterik uzten ez duen egoera sortu eta zir-kunstantziek oihu egin arte: «hic Rhoduc, hic salta!» (Rodas hementxe, salta ezak bertone!).*

Klasiko bilakatu da «ordenu alderdiaren» deskribapena ere:

*Ekaineko egunotan, klase eta alderdi guztiak ordenuaren alderdi ba-tean elkartu ziren klase proletariaren aurka, berau anarkiaren, sozialis-moaren eta komunismoaren alderdia zela eta. Gizartea «sozietatearen etsaietatik» salbatu nahi zuten. Beren gualosteari banderatzat gizarte zaharraren lema hau eman zioten: «Jabegoa, familia, erlijioa eta orde-na», erreboluzio aurkako gurutzadara hots eginez: «Ikur honen geriza-pean garaituko duzu!».*

Frantzia Estatuak historikoki izan duen zereginaren azalpena oso nabarmengarria da:

*Ekintza aginte hau, bere bulegokrazia eta gual-administragailuekin, bere Estatuako makina ugarikoitzarekin, milioi erdi funtzionarien gual-lostearekin eta beste milioi erdi soldadurekin, Frantziako gizartearen gorputza sare batean bezala lotu eta poro guztiak estaltzen dizkion para-sito izugarri hau monarkia absolutuaren garaian sortu zen, errejimen feu-dalaren eroraldian, beronen azkena ekarriz.*

Zorrotz erakusten du Marxek nola «lehen frantziar Iraultzak, na-zioaren batasun zibila kreatora, botere bereziak —udal, herrialde, probintzietakoak...— hausteko mezua betetzean, halabeharrez aintzi-neratu behar izan zuen monarkia absolutuak hasitako lana: zentraliza-zioa; baina, batera gobernuaren boterearen kopurua eta ahalak haun-ditu eta zerbitzariak ugaltu egin zituen. Napoleonek Estatuaren makina hau hobetu egin zuen».

Ondoren, Estatuaren makinaz oharpen gogoangarri hau dakar: «Erreboluzio politiko guztiek makina hau hautsi beharrean, hobeago-tu besterik ez dute egin».

Marxen *Brumarioaren 18a* gidari aproposa da izen eta pertsonaia haundi eta famatuen atzean izkutatzen dena ikusteko:

*Estatuaren boterea ez dago airean oinarritua. Bonapartek klase bat errepresentatzen du, zein, gainera, gizarte frantsesaren haundiena baita: nekazari partzeladun txikiak.*

## 2.4 EGIAZKO GALBARIOA

1852 eta ondorengo urteak oso latzak izan ziren Marxtarrentzat Londreseko desterrualdian. Marxek itxaron zuenaren kontra, gero eta ilunago somatzen zen erreboluzioaren etorkizuna. Familia aurrera ateratzeko, amerikar egunkarietarako artikuluak idatzi beharrean gertatu zen, *New York Daily Tribunerako*, bereziki. Coloniako bere lagunak presondegian zeuden epaiaren zai, eta prentsari bost axola zitzaion haien nahigabeaz.

Bestalde, erbesteratuen artean bertan, Marx oso kritikatu eta mai-seatua zen. Mota guztietako irainak eta laidoak jasan behar izan zituen. Aitortu beharra dago, baitare, Marxek barru-barrutik mesprezatzan zuela inmigrante jendea, beraien buruberokeria eta kulturgabeziarengatik. Mihia ahoan sarturik egon ohi ez zenez, inoiz panfleto ironikoren bat edo beste ere inprimarazi zuen erbestealdiko «astakirtenei» buruz (Wilichen aurka, esaterako).

Sasoi honetan, arestian esan bezala, gorriak eta beltzak ikusi behar izan zituzten Marx senar-emazteak. 1852ko apirilaren 14ean, urtebete kunplitu berria zen Frantzizka hil zitzaien. Gurasoak, Lenchen eta hiru haurrak —Jenny, Laura eta Edgar— gau osoan egon ziren umetxoaren gorpu hila beilatzen.

Egunak joan eta egunak etorri, Engelsek diru pixka bat bidali arren, haien finantz egoera ez zen hobea gotzen. Hiriko auzoalde behartu eta desosungarrienean bizi ziren, Dean Streeten, Soho Squaren, alegia<sup>12</sup>.

*Ene andrea gaixo zegok, Jenny txikia ere bai. Lenchenek nerbioetako sukar gaiztoren bat dik. Ezin diat medikurik ekarri etxera, ez baizeukeat botikarik ordaintzeko lain diru. Duela hamar bat egun, ogia eta patata besterik ez diagu jaten, eta ez zekiat gaurko ezer edukiko dugun.*

Hala deitoratzen zuen Marxek Engelsei egindako kartan. «Zer egin, ordea? Ene etxea ospital bat duk eta krisialdiak eragin eta sorterazita-

<sup>12</sup> Etxean —gaur luxuzko jatetxe bihurturik badago ere— beharrezkoenak ere falta, berriz: ez urik, ez lavaborik, ez komunik.

ko ondorio larriei kasu egin beharrean aurkitzen nauk. Zer egin?» Desolazioa darion deihadar patetiko hori ateratzen zaio bihotz barrendik. Nahigabezko garraxi sarkor honek mixeri egoera ezezik, beronen ondorio psikologikoak ere agerrera zuten.

Ifernu hari antzematea ez da biziki zaila gertatzen. Behartsuen bizi-modua zein gogorra eta angustiarria den orduantxe somatu zuen bere haragian. Poliziak zainduak, gainontzeko errefuxiatuen aldetik gogor erasotuak, ingleseko harremanik gabe, etxejabeak beti gainean mehatxuka, Marxtarrek «egiazko galbarioa» jasan zuten bolara hartan, Jennyren hitz adierazkorrak erabiltzeko. Engelsengan bakarrik aurkitu zuten ordu mingaitz haietan laguntza, sostengua eta babesia.

Engelsek berak idatzi ohi zituen askotan Marxek sinatutako artikulua, ingelesez ozta-ozta moldatzen baitzen. *Erreboluzioa eta kontrarreboluzioa Alemanian* izenez ezagunak diren hemeretzi artikulua, esate baterako. «Zihur egon hadi, nire emaztearen sufrimenak eta neronen ezintasuna ikusten ditudanean, deabruari salduko niokela neure burua». Marxek, halare, ez zuen etsi, eta eragozpen guztiak gaindituz, aurrera jo zuen bere lanean.

Aurreko urtean Colonial preso hartutako komunisten juizioa 1852ko azaroaren 4ean hasi eta 12an bukatu zen. Gobernu prusiarraren salaketak gezurtatuz, herri iritzia prozesuaren kontra mugiarazten saiatu zen Marx. Zazpi akusatari, hiru eta bost urtetako gartzelaldia ezarri zieten; berauetako bat, Daniels, presondegian harrapatutako tuberkulosiagatik hil zen 1853an. Auzi honi buruz, *Coloniako komunisten prozesuari buruzko errebelazioak* idatzi zuen Marxek, gobernamentuaren eta poliziaren asmu zitalak salatuz<sup>13</sup>.

Handik egun batzutura, Komunisten Ligaren Londreseko Zirkulua bildurik, Elkarte desegitea erabaki zuen Batzarrak, azaroaren 17an. Ligaren desagertzea epe bat itxi zuen Marxen militantzi bizitzan, eta berri bati hasiera eman. Frakaso honen ondoren, 1864ean Lehen Internazionalaren sorrerarekin itxoin behar izango zuen militantzian buruz behera murgildu ahal izateko.

1853: Europako bazter guztietan kontrarreboluzioa nagusi eta gailen. Frantzia, Louis Napoleon Bonaparte, Napoleon «Txiki» bihurturik. Prusia eta Austria atzera erreboluzio bezperako egoerara itzulirik. Errusian, Nikolas I, beti Tsar izaten jarraiki... Gau beltza Europako zeru gainean. Prentsa eta adierazpen askatasunik inon ez, Ingalaterran ezik. Marx, hala eta guztiz ere, «berehalako» Erreboluzioaren zai!

Bien bitartean, ekonomi estudioak aldebat utzita, *New York Daily Tribunerako* artikulua idazten zituen. Eginkizun honek lan handia ematen zion, bere kultura historiko eta politikoa sakondu beharrean aurkitu baitzen.

<sup>13</sup> Bälén 1853ko urtarrilean argitara emana, inprimitutako 2.000 aleetatik gehienak Suitzako mugaondoan konfiskatu zituen poliziak urte bereko martxoan.

Marxek garbi zituen ideiak, teoriatzko arazo nagusi eta garrantzitsuei buruz, behinik behin. 1852ko martxoaren 5ean, J. Weydemeyer adiskideari zuzendutako gutun ezagunean argi asko adierazten du:

*Neri dagokidan aldetik, ez da nire meritua izan, gizarte modernoan klaseak badirela asmatzea, ez eta hauen arteko burruka salatzea ere... Nik egin dudana ekarpen berria, hau da: 1) klaseen existentzia produktioaren aurrerabidearen fase historiko determinatuei bakarrik loturik doala; 2) klasearteko burrukak nahitaez proletargoaren diktadurara eramaten duela; 3) diktadura hau, berez, klase guztien deuseztapen eta klaserik gabeko gizarterako abiabide besterik ez dela<sup>14</sup>.*

Marxek beti tinko eta zintzo eutsi zien hiru ideioi. Aurrerago, 1875eko *Gothako Programaren kritikan* birraurkituko ditugu. Horrek ez du esan nahi demokrazia politikoari eta askatasun publikoei uko egin behar zaienik. Marxek ez zituen diktadurazko neurriak zeharo eta erabat gaitzesten, baina ez zen hori proletargoaren diktadura hitzari gehienetan ematen zion zentzua: trantsizioaldiko beharkizun bat besterik ez, alegia. Marxek berak azpimarratzen du, beraz, neurri honen iragankortasuna.

«Marxista» deiturari dagokionez, Marxek berak erabili zuen lehen aldiz; Coloniako prozesatuei «Marxen alderdikoak» zirela leporatu zieten. Marxen partidua sorturik zegoen jadanik 1853 aldean, hala aitortzen zuten bai Engelsek, bai beraren jarraileek eta kontrarioek beraiek ere. Bere ondoko eta inguruko artean, Marxen irudia eta itzela maisu «orojakitunarena» zen ordurako. Engelsek, militar gaietan eta ekonomiako zenbait puntutan adituagoa izanik ere, maila kaxkarragoan ezartzen zuen beti bere burua<sup>15</sup>. «Gure alderdia —Marxen alderdia— besteak baino garaiagoa da» esan ohi zuen harroharro.

<sup>14</sup> Marxek, hemen, 1845az geroztik hausnartu eta landu dituen ideiak jaso besterik ez du egiten. Proletargoaren diktadura kontzeptua (kasu: ez expresioa) *Frantziako klase burrukak* saiakeran ageri zen jadanik.

<sup>15</sup> Hona hemen Engelsek, bizitzaren azkenaldera egindako ohar txo pertsonal bat: «Marxekin batera lan egin nueneko berrogei urteetan, eta berak baino lehenago ere, teoriaren oinharritzean eta batez ere beronen laboraduran halako parte independente bat ukan nuela neronek ere ezin dezaket uka. Baina ideia zuzentzaile printzipalaren parte haundiena, partikulariki ekonomiazko eta historizko eremuan, eta bereziki haien formulazio argi eta behin betikoa, Marxi dagozkio. Nik lortu nuena —gehien dela, bizpahiru abar espezial izan ezik— Marxek berak erdietsi ahal zezakeen ni gabe. Nik, aldiz, ez nukeen sekula erdietsiko Marxek lortu zuena... Marx jeinu bat zen; besteok, gehien gehienik, talentuko gizonak ginen. Hura gabe teoria ez zatekeen, ez eta hurrik ere, gaur dena. Horregatik, hark zuzenaz darama haren izena». Ik. F/Engelsen, *L. Feuerbach eta aleman filosofia*, aip. lib. 162/or.

## 2.5 KAZETARITZATIK EKONOMIA POLITIKORA

Hara zer zioen Marx buruz prusiar espioi batek 1852an:

*Marxek 34 urte dauzka... Altuera ertaina eta itxura indartsua du. Bere aurpegia Szemererena dirudi, baina bere kolorea oso iluna da, bere ile eta bizarra oso beltzak. Ez du bizarririk mozten. Sugarrak botatzen dituztela diruditen bere begi haundiek deabru itxura ematen diote. Lehen begiradan, gizakume jenial eta ausarta dela igartzen zaio. Bere adimen nagusitasunak menpean hartzen ditu ingurukoak. Beraren bizitza pribatua, zeharo gizon arlotea, zinikoa eta bohemioa da. Garbitzea, orraztea eta aldatzea bitxikeriak dira berarengan. Askotan, pasiatu egiten du egunez, eta lan asko gauzez; batzutan gau eta egun aritzen da lanean. Ez du ordutegi zehatzik. Zenbaitetan, gau osoan lanean ihardun ondoren, kanape batean etzan eta berandu arte egiten du lo...*

*Marx Londreseko suburbiorik pobre eta eskasenetakoan bizi da. Bi gela ditu, bata, saloia, kale aldera ematen duena; bestea, atzekaldera. Apartamendu guztian, ez dago haltzari dezentekorik. Dena puskatuta, urratuta, deseginda... Saloiaren erdian, mahai zahar bat aurkitzen da, haundia eta zikina oso, eskuizkribuz, liburuz, egunkariz eta haurren jostailuez betea.*

Etxearen deskribapen hau egiazkoa da, inondik ere. Gero, Marxen erretzeko era —erretzaile porrokatua baitzen—, ikatzaren hautsa, umeen zaratak, ikustari ugarien joanetorriak kontatzen jarraitzen du ixpiak.

Jennyk jasotako herentzi zati bati esker, gero eta haundiagoak ziren zorrak kitatu ahal izan zituzten. Engelsen laguntzaz gain, *New York Daily Tribuneko* artikuluetatik bizi zen Marx. 1853az gero, «nahiko ondo» idazten zuen ingelesez, Engelsi apalki aitortu zionez. Hiru artikulua bidali ohi zituen hilero eta berauengatik bina libra ordaintzen zioten. Irakurlegoa gehiegi ez bildurtzeko kontu haundiz eta zuhurki jokatu arren, politologo bikaina agertu zen.

1853ko urriatik 1854eko urtarrilera, artikulua sail bat idatzi zuen *People's Paper* ingles egunkarian Palmerston lehen Ministro liberala kritikatu. 1855eko urtarrilean *Neue-Oder Zeitungen* kolaboratzen hasi zen, urteko 50 libra inguru jasoz. 1859tik aurrera, *Das Volk*, Londreseko langile alemanen kultur Elkarteko agerkariaren zuzendaria edo izan zen.

Marxen osasuna gero eta eskasagoa zen. Hemorroide ugari ezezik, gibelegoa, erreuma eta konjuntibitisa (lanean igarotako gaupasen prezio garestia) jasaten zituen. Marxen biziera ez zen batere osasungarria, izan ere. Soho auzoaldeko higie baldintzak izugarri txarrak ziren. Gutxi ibili, zigarro mordoa erre eta zerbeza gehiegi edan ohi zuen, gaitetik. Hala esan zion Engelsi 1854eko ekainean: «Egiatan esaten diat,



ezbehar hauek very dull dog —benetan zakur tristea— bihurtu niautek».

Etxeakoak zinez maite zituen Marxek. Bere erara, bihotz haundiko gizona zen, maitekorra, haurren heziketaz arras kezkatua. Beraiekin egon eta jolasean aritzea oso gogokoa izaten zuen. Alabaina, bere ama zaharra eta arrebak ikustera joateko ohiturarik ez zuen. Jennyk ikustalditxo bat egin zion beraren familiari 1854eko udan. Marxek libra es-terlina batzuk gastatu zituen erropatan, emaztea etxeoengana ahalik eta apainenik jantzita ager zedin, ze debru!

Eleanor (Tussy etxeoentzat) 1855eko urtarrilean jaio zitzairen, amak haurdunaldi zaila izan ondoan. Gaixoak egun txarrak ezagutu zituen lehenengotan. Ordurarteko ezbeharrak nahiko ez balira bezala, bere bizitzako trajediarik haundienetakoa gertatu zitzaion Marxi egun haietan. Edgar, zortzi urteko mutikoa —eta seme bakarra— oso gaisotu zitzairen. Aitak berak zaindu izan zuen gau eta egun, albotik aldendu gabe, harik eta gaitzak jota, 1855eko apirilaren 6an hil zitzairen arte. Marxek ez zuen egundo hainbeste sufritu, bere emaztearen heriotzarar-te, hain bere kuttuna baitzuen.

*Etxea guztiz hutsik eta doluz betea zegoek gure haur maitea hil zene-tik: bera huen etxekoon arima eta bizitza. Ezin diezaiaket esan zenbate-rainoko hutsunea sentitzen dugun uneoro. Era guztietako nahigabeak ezagutu dizkiat, baina egiazko zorigaitza zer den, oraintxe bakarrik ikasi diat. Jota negok. Gainera, ehorzketa egunaz gero, hain burukomin haun-diak izan dizkiat ez naizela ez pentsatzeko, ez entzuteko, ez ikusteko gau-za ere.*

1856ko maiatzean, beraren ama gaixorik zegoela eta, Treverisera bihurtu zen Jenny bere hiru umeekin. Karolina von Westphalen uztai-laren 23an hil zen. Marxek, bitartean, bizitegi erosoagoa bilatu zuen Londreseko auzategi aireztatu batean, Hampstead Heatheko parke zo-ragarritik hurre, Edgar gaixoaren heriotz ostean, Sohotik aldegitia erabaki baitzuten. Baina, Grafton Terracera aldatuta gero ere, ez zi-tzairen desdixta eta kalamitaterik faltatu.

1856aren azkenetan, baztertu samartuta zeuzkan ekonomi gaiei heldu eta ekin zien berriro Marxek. 1857ko abuztu-irailean, *Ekonomia politikoaren kritikaren Sarrera* famatua burutu zuen<sup>16</sup>.

Bata bestearekin inola ere nahastu behar ez diren maila bi bereizten ditu: kanpo errealitatea (izatea) eta pentsamendua (ezagutza). Erreali-

<sup>16</sup> 1857ko «Sarrera» hau (Kautskik 1903an plazaratua) Marxen «Metodoaren Dis-kurtsutzat» dauka Althusserek. Pierre Vilar historialariaren iritzian, berriz, testu hau da beharbaba «historia liburua» baten proiektu bakarra orain arte: «Testu honetan de-netarik aurkitzen da, geografiatik hasita («kondizio naturalak»), Kulturgeschichite, et-nia eta gerra arazoetaraino». Ik. P. Vilar, *Iniciación al vocabulario del análisis histórico*, Grijalbo, Barcelona, 1980, 9 or.

tatea pentsamendutik at eta kanpo dago. Pentsamendua produzitzen duen prozesua praktika teorikoan garatzen da osoki, «ezagumenduan». «Abstraktua» eta «konkretua» ezaguketaren prozesuari dagozkio, teorigintzari. Hauxe da Marxek aditzera ematen diguna «metodo zientifiko zuzena» abstraktutik konkretura abiatzen dela dioenean:

*Zuzena dirudi datu erreal eta zehatzetatik hasteak... Baina, baldin hurbilagotik so egiten bada, berehala ohart daiteke faltsoa dela hori.... Azken metodo hau —nozio orokorretatik nozio konkretuetara doana— da zientifikoki metodorik zuzenena<sup>17</sup>.*

## 2.6 GRUNDRISSEAK

1857ko krisi ekonomikoak bultzatu zuen Marx *Grundriseek* deiturapean ezagutzen diren eskuizkribu hauek idaztera, 1857-58 bitartean<sup>18</sup>.

Hasierako plagintza hauxe zen: «A) Sarrera; 1) Produztkioa, oro har; 2) Produztkioa, banaketa, trukea eta kontsumoaren arteko harreman orokorra; 3) Ekonomia politikoaren metodoa; 4) Produztkioiobi-deak (indarrak) eta produztkio harremanak; produztkio harremanak eta truke harremanak, etab.».

«Estudio honen gaia produztkio materiala da», hitzokin ematen dio lanari hasiera. «Gizartean produzitzen duten gizabanakoez» dihardu. XVIII eta XIX mendeetan burges gizarte zibilaren errealitatea estali duten «robinsokeria haundi-txikiak» kritikatzten ditu. «Gizakia, zentzurik literalenean zoon politikon bat da; ez abere elkarkoi huts eta soil bat, baizik eta bere indibidualtasun berezia gizartean bakarrik zertzen duen aberea». Carey, Bastiat eta Proudhonen «ziztrinkerietaz» burlatzen da. Marxek, oso argia izanik, farre egin ohi zien lasai asko kontrarioen teoriari. «Gizarte garapenaren epealdi mugatu bati dagokion produztkioa da kontua, indibiduo sozialen produztkioa», dio.

Ikerketa historiko baten beharra ikusten du, «gure benetako aztergaia den produztkio burgesarena, adibidez»; baina, beraren ustez, ba-

<sup>17</sup> Marxek, honela, enpirismoa eta idealismoa gainditu nahi ditu, biak baitira joera okerrak. Ik. bereberki, Althusseren «Sobre la dialéctica materialista», in *La revolución teórica de Marx*, aip. lib. 132 or. eta hur.

<sup>18</sup> *Los fundamentos de la crítica de la economía política*, Comunicación, Madrid, 1972. Riazanovek aurkitu zituen 1923an. Hasiera batean harrera apala eduki bazuten ere, gero 1953an birrargaratu zirenean, marxismoaren interpretazioari dagokionez ikuspegi berriak argituz batera, eztabaida gogorrik piztu zuten. Gaurregun, Marx gaztea eta helduaren arteko polemikaren erdi-erdian aurkitzen dira. Zenbaiten ustez, *Grundrisseok* izango lirakeke *Kapitala* gaztaroko obrekin lotzen duten zilborrestea edo zubia. Marxek ez zuela behinere filosofia hegeldarrarekin hautsi frogatzen ei dute apunteok. Toni Negrik bere *Marx oltre Marx* (Feltrinelli, Milan, 1979) liburuan dioenez, hor dazta «marxtar pentsamenduaren erdigune dinamikoa».

daude «produkzioaren epoka guztiei dagozkien ezaugarri amankomun batzuk ere, determinazio amankomun batzuk ere». Produktorik ez da posible, eransten du Marxek, «iragandako, pilatutako lanik gabe», «produkzio tresnarik gabe»; kapitala ere, «beste gauza batzuen artean, produkzio tresna bat da, berau ere iragandako, objetibatutako lana delako». Produkzio aldi guztiei dagozkien determinazio komun hauek ezin dute, halare, produkzio aldi historiko errealik atxeman, «momentu abstraktuak baizik ez dira eta».

*Grundrisse* hauetan historizismoa da Marxen pentsabidearen hari gidari. Gizakia nahiz gizartea ez ditu abstrakzio moduan bururutzen, historian txertatuta baizik, historizatuta.

Gerotxoago, «produkzioak banaketa, elkartrukea eta kontsumoaren duen harreman orokorra» aztertzen saiatzen da. Ekonomia politiko klasikoa estudiatzen du. Beraren ustez, «produkzioa, banaketa eta elkartrukea ez dira berdinak, osotasun baten zatiak baizik».

Hortik abiatuak, ondoko puntuok ukitzen ditu jaraiak: «1) gizarte mota guztiei dagozkien determinazio orokor abstraktuak; 2) gizarte burgesaren barne egitura osatzen duten kategoriak, berauen gainean altxatzen baitira oinarrizko klaseak. Kapitala, lan alokatua, lur jabe-goa. Elkarrekiko harremanak, landa eta hiria. Hiru gizarte klase nagusiak. Berauen arteko elkartrukea. Zirkulazioa. Kreditua (pribatua); 3) Gizarte burgesaren laburbilduma Estatuaren erakuntzan. Estatu bere baitan kontsideraturik. «Klase ezproduktiboak». Zergak. Zor publikoa; 4) Nazioarteko produkzio harremanak. Nazioarteko trukea. Lanaren banaketa internazionala. Exportazioak eta inportazioak. Elkartrukeen prezioak; 5) Mundu merkatua eta krisiak».

Gogoan hartzekoak dira hor zenbait puntu. Gonbarazio batera, produkzio materialaren garapenaren eta produkzio artistikoaren arteko harreman ezberdintasuna: «Ez har progresuaren kontzeptua ohizko tankera abstraktuan. Arte modernoa, etab. Gizarteko produkzio harremanen barruan gertatzen denaren aldean, disproporzio hau ez da hain inportantea eta zaila. Kulturari dagokionean, adibidez»<sup>19</sup>.

*Grundrisseetan*, 1843an zokoratutako Hegelengana birritzultzen da Marx, atzerasalto haundi bat eginez. «Gaiaren lan metodoan, gauza batek asko lagundu dit, batere ustegabeen, Hegelen *Logika* birrirakurri izanak», aitortzen du. Hegelek aurkitutako metodoak «muin arrazional» bat duelakoan dago, «nahiz eta aldi berean mistifikaturik egon».

Bukagabeko oharrak, osagabeak, nahasgarriak, anbiguoak dira

<sup>19</sup> Hemen sartzen da ekonomia, gizartea eta ideologiaren arteko harremanen auzia, artearen gizartearekiko arazoa, etab. Ekonomiak derrigor determinatzen al du artea? Ik. Joxe Azurmendiren liburua —*Artea eta gizartea, Errealismo sozialistaz, Kultura proletarioaz...*— Kontsulta daiteken liburuxka polit bat ere: Terry Eagleton, *Literatura y critica marxista*, Zero, Madrid, 1978.

*Grundrisse* direlakoak. *Kapitalan* ia azaldu ere egiten ez den «hegeldar mordoilokeriaz» kutsatuak daude: alienazioa, objektibazioa, fetitxismoa, gizaki «unibertsala» eta antzerako nozioez josita. Bertan, Hegeli mailegatutako hitzak Marxen kontzeptu jatorrekin nahasturik ageri dira.

Marxek egoera larrian segitzen zuen, pobretasun haundian biziz. Bere ekonomi lanak faszikulotan publikatuko zizkion aleman inprimatzailearen bat bilatzeko eskatu zion Lassalberi. Hitzokin jakinerazten zion obraren edukina:

*Kategoria ekonomikoen kritika da, edo eta if you like, burges ekonomia-  
miaren sistema kritikoki aurkeztua, batera sistemaren azalpena eta sistema beronen kritika. Dena sei liburukitan banatuta dago: 1) kapitalaz (hitzaurre kapitulu zenbait dituena; 2) lur jabegoaz; 3) lan alokatuaz eta Estatuaz; 4) nazioarteko merkatalgoaz, mundu merkatuaz.*

Lasalle, bere aldetik, konformitate batera ailegatu zen F. Duncker editorearekin. Marx, ordea, erabat ahituta eta leher eginda, gero eta ahulago zebilen osasunez. Gaisorik, zenbait hilabetetan ez zuen lan egiterik izan.

Azkenik, 1859an, eskuizkribuon parte bat bederen publikatu egin zen: *Ekonomia politikoaren kritikari buruz* izenburupean, Berlinen. Lan honetan agertzen da, lehenbizikoz, balioaren teoria, baita monedarena ere.

### 3. Kapituluia

## ERREBOLUZIOA ETA ZIENTZIA

(1858-1883)

Bizitza materialaren produkzio erak baldintzatzen du gizartearen prozesu sozial, politiko eta izpirituala. Ez du gizakiaren kontzientziak bere izaera determinatzen, beraren izaera sozialak bere kontzientzia baizik.

(Marx, *Ekonomia politikoaren kritikari buruz*, 1859)

Langileak zuzenki saltzen duena ez da haren lana, haren lanerako indarra baizik, kapitalistari, denbora zati batez, hartaz baliatzeko eskubidea emanez.

(Marx, *Alokairua, prezioa eta irabazia*, 1865)

Ene metodoa ez da gizakiarengandik abiatzen, ekonomikoki emaniko garai sozial batetik baizik.

(Marx, *A. Wagneri buruzko oharra*, 1882)

### 3.1 EKONOMIA POLITIKOAREN KRITIKARI BURUZ

Gibeleda mina eta stressa batetik, eta gaiaren zaila bestetik, kondizio ezin traketsagotan burutu zuen Marxek *Ekonomia politikoaren kritikari buruz* izeneko liburua. Ia desespero hutsean<sup>1</sup>.

Hitzaurrean, obraren eskema orokorra aurkeztean, zergatik laga behar izan zuen sarrerako zatia kontatzen digu —Monedaren teoriari

<sup>1</sup> Liburuak ez zuen arrakasta handirik izan. Lehenengotan inork ez zion jaramonik eta aipamenik egin, Engelsek berak ezik, Londreseko *Das Volk* egunkarian. 2.000 aleko tiradatik ehuneko batzuk saldu ziren. Ik. Marx, *Contribución a la crítica de la economía política*, A. Corazón, Madrid, 1970. *1857ko Sarrera* eta *1859ko Hitzaurrea* dakartza.

ari den parte hori *Kapitalaren* lehen liburura pasa zen gero—. Ondoren, bere ibilbide politiko eta teorikoaren balantze llaburra egiten du. 1859an, 41 urte zituelarik eginiko «Hitzaurre» sonatu hau Marxen autobiografia antzeko zerbeit dela esan daiteke.

Hasteko, *Hegelen deretxo filosofiaren kritikaren* garrantzia azpimarratzen du:

*Larritzen ninduten dudak desegiteko, lehen-lehenik Hegelen deretxo filosofiaren kritikagintzari ekin nion. Nire bilaketetan honako ondorio honetara iritsi nintzen, alegia, erlazio juridikoak, eta halaber Estatuaren formak, ezin direla ulertu beraien baitandik ezta giza izpirituairen garapen orokor delakoaren bidez ere, baizik eta, aldez beste, existentziako baldintza materialetan dituztela beren sustraiaik, Hegelek XVIII mendeko ingeles eta frantsesei jarraiki, «gizarte zibila» deitzen duen horretan, eta gizarte zibilaren anatomia, era berean, ekonomia politikoa aurkitu behar dela.*

Ekonomia politikozko ikerketa hauek Parisen hasi eta Bruselasean jarraitu zituen. Hegeldar ikuskera eboluzionistaz kutsaturiko hitzaurre honetan, oso argi agertu du Marxek historiaren teoria materialista:

*Ni iritsi naizeneko ondorio orokorra, eta harez gero, ene estudioen hari gidaritzat balio izan didana, honela formula daiteke laburki: Beren bizitzaren produkzio sozialean, produkziozko materia indarren hazieraren maila berezi bati dagozkion zenbait egoera zehatz, beharrezko eta beren gogoz gaindikoei morroiturik dagoz gizon-emakumeak.*

*Produkzioaren kondizio hauek guztiek tankeratuko dute gizartearen ekonomiazko egitura; egiazko oinarri honen gain eraikitzen da legezko eta politikazko gainegitura bat, eta kontzientzia tankera bereziak dagozko delako ekonomiazko egiturari.*

*Bizitza materialaren produkzio erak baldintzatzen du gizartearen prozesu sozial, politiko eta izpirituala. Ez du gizakiaren kontzientziak bere izaera determinatzen, beraren izaera sozialak bere kontzientzia baizik.*

Hots, gizarte aldaketa guztien oinarri-oinarrian produkzioa dago, eta ez gizakien kontzientzia. Nola produzitzen den da kontua, ez jendeak nola pentsatzen duen.

Gero, Engelsekin batera Bruselasean landutako *Aleman Ideologia* aipatzean, «gure aurreko filosofi kontzientzia garbitzeaz» mintzo da: «Aleman filosofiaren ideologiaren kontra geure ikusmira kontrasta elkarrekin laboratzea erabaki genuen; egiaz, gure aurreko filosofi kontzientzia garbitzea besterik ez zena. Erabaki hau Hegel ondoko filosofiaren kritika baten itxuraz bete zen».

Azkenik, *Alderdi Komunistaren Manifestua* eta *Filosofiaren Misera* gogoratu ondoren, Londreseko hiriari omenaldia egiten dio:

*British Museumean pilatutako ekonomia politikoari buruzko dokumentazio harrigarriak, burges gizartea hautemateko Londresek eskaintzen duen egokierak, eta azkenik, kaliforniar eta australiar errearen deskubrimenduak eragin bide duen desarroilo aldi berriak, atzera hasierara itzuli eta material berriak sakon eta kritikoki aztertzeraz bultzatu ninduten.*

1859. urtearen lehenengotan, italiar batasunaren aldeko gerrateak indar handia hartu zuen. Engelsek *Po eta Rhin* deitu agiria atera zuen gai honetaz. Marxek artikulu gehiago idazten segi zuen. Denboraldi honetan, bederlatzi bidali zituen *Das Volk* zeritzan Londreseko aleman aldizkari berrira. Baina, hamasei zenbaki kaleratuta gero, beheja jo zuen hark ere.

Ezin da hemen aipatzeke utzi Vogt jaunaren kontua. Emigratuen iskanbiletatik aparte samar ibiltzen saiatu bazen ere, zorigaitzoko polemika zakar batean endredatu zen behin Marx. Karl Vogt, Badeko gobernuako kidea, Suitzara ihes egin eta Bernako Unibertsitateko irakaslea zen. 1859an Napoleonen aldeko eta Prusiaren neutraltasunaren defenditzaile agertu zen Vogt. Marxek, postura honen arras kontrakoa izaki, *Das Volkeko* artikulu anonimo baten bidez Napoleonen ajentea zela egotzi zion —susmo zuzena, gero frogatua gelditu zenez—. Honek laster batean kontraeraso zion, Marx konspiratzaile banda baten buruzagitzat salatuz. Horren kariaz, oso ernegatuta eta haserre ibili zen Marx eztabaida honek iraun zuen urte parean. Eta beroni buruz *Herr Vogt* izeneko idazlan luzea paratu eta idatzi zuen, amorrazioz beteta. Aurreko panfleto guztiak bezalaxe, burlazko tonu sarkastiko eta ezten-tsuaz egina dago, baina, oraingoan gutxienez, ideiak baino kontutana-goa hartzen ditu kondaira gertaerak.

Osterantzean, diru gorabeherak sortzen zizkieten buruhausterik haundienak. Alabak haunditzen zihoazen. Jennyk bere amari lagundu ohi zion aitaren artikuluak garbira pasatzen. «Jenny txikia da nire orde-z gaurko artikulua kopiatzen ari dena. Ene alabek hartuko dute laster nire lekua eta orduan zahartegirako bestetarako ez dut balioko. Gaitzerdi, sekretari urte luzeen erretiroa kobratzeko itxaropenik banu», zioen Jenny amak Engelsei 1859ko Gabon bezperan.

1859an, Jennyk 15 urte zituen, Laurak 13 eta Eleanorek 3 besterik ez. Jennyk eta Laurak burges hazibidea hartu zuten gurasoengandik. Pianoa, dibujoa, frantsesa eta ingeles literatura ikasi zituzten. Ezagutu zutenek diotenez, Marxek zinez maite eta gurtzen zituen beraren alabak. Zaharrena, Jenny, «bere aitaren iguala zen, begi beltz berak, bekoki bera», Liebknechtik esatera. Alabekin jolastea eta Hampsteadeko muinoetan pasian ibiltzea zen Karlen atsedenaldirik gogozkoena. Igandetan, Hampstead Heathera joan ohi zen familia osoa egun pasa.

Azaroaren bukaeran, Jenny oso gaisotu zen; nafarrieriak hartuta, hilzorian egon zen. Karlek, Liebknechten etxera eraman zituen haurrak, eta Lenchen eta bien artean, erizain baten laguntzarekin, zaitu

zuten Jenny, gaitza harrapatzeko arriskuari kasu izpirik egin gabe. Emaztearen gaisotasunaren errudun sentitzen zen Marx (Hala aitortu zion Engelsi). Zenbat oinaze, zenbat neke eta zenbat larritasun ez ote zizkion eragin eta sufriarazi bere Jennyri!

1866ko udaldian edo, bere alaba Laura Paul Lafarguerekin gustatu eta konprometitu zen. Marxek eskutitz hau bidali zion suhigaiari:

*...Zure ekonomi egoeraz argitasun gehiago nahi nuke. Badakizu nire sos gutiak erreboluzio burruketan xahutu ditudala. Ez zait damutzen. Al-derantziz. Nire karrera hasi behar banu, gauza berbera egingo nuke berriro. Baina, ez nintzateke ezkonduko. Ez diot opa neure alabari bere amaren bizitza hondatu duen dirugabeziarik.*

Ikusten denez, emaztearen bizitza alferrikaldu zuen kontzientzia zuen Marxek eta bere alabaren etorkizuna zaindu nahi zuen. Erreboluziozalearen bizimodua ez zitzaion damutzen, baina aukera bat egin behar zela uste zuen: bizimodu hau ala ezkontza. Marx, noski, bere garaiko semea izan zen, eta sexualitatea eta emakumearekiko burges ikuskera tradizionala eta matxista zuen. 1868ko apirilean ezkondu ziren Paul eta Laura, zibiletik baina «tres chic». Marx, lebitaz jantzita, oso txukun eta dotore agertu zen ezteietan.

Emaztearen gaisoaldian irakurri zuen Marxek Darwinen *Espezieen jatorriaz*: «Liburu hau, historia naturalaren mailan, gure kontzepzioaren oinarria da», zioen berak. Aurkikuntza haundia izan zen Marxentzat Darwinen teoria. Beraren teoriak histoariaren zientzian bezainbateko garrantzia zuela Darwinenak natur zientzietan uste zuen<sup>2</sup>. Darwinek natura organikoaren hazkuntza legea aurkitu zuen bezala, Marxek historiaren hazkuntza legea aurkitu zuela, esango zuen Engelsek bere lagunaren hiletetan.

1861eko otsailean, Holandara, bankari aberatsa zen Lion Philips osabarengana jo zuen diru eske. Philips etxearen fundatzaile honek, bere ilobaren egoeraz hunkiturik, 150 libra aurreratu zizkion eskuza-balki. Handik segituan Berlinera abiatu zen, Lassalleren etxera, eta hemendik Treverisera ama ikustera.

Amaren ondoan eman zituen orduak gogoratuz, zera idatzi zion Engelsi 1861eko maiatzean: «Beraren ondoan pasa ditudan bi egunak oso atseginak izan zaizkidak. Bere izpituaren fintasunak eta bere iza-keraren egonkortasunak hunkitu egin niautek». Ama-semeak elkarrekin harreman haundirik gabe bizitu ziren. Badirudi hil baino lehentxeago arte —75 urte zituen orduan— ez zuela «aurkitu» beraren ama Karl Marxek.

<sup>2</sup> Darwinen Eboluzioaren teoriak oso arrasto sakona utzi zuen bai Marxengan, eta bai Engelsengan batez ere, G. Prestipinok erakutsi duenez: *El pensamiento filosófico de Engels*, Madrid, Siglo XXI, 1977. Marxek ingles naturalista haundiari egin nahi izan zion *Kapitalaren 2.* tomoaren eskaintza.



Bidaia probetxatuz, prusiar nazionalitatea eskatu zuen baina poli-ziak ukatu egin zion. Lassallek egunkari berri bat argitaratzea proposatu zion; Jennyk eta alabek, ordea, ez zuten Alemaniara bizitzera joaterik nahi. Londresera itzulirik, ekonomiazko ikasketak lantzen jarraitu zuen British Museumean. 1861eko abuztutik 1863ko ekainera bitartean, 23 koaderno bete zituen, heriotz ondoan argitara eman zirenak<sup>3</sup>.

1862ko martxoan, *New York Daily Tribunen* idazteari utzi egin behar izan zion, gainerantzeko atzerritar lankideek bezalaxe. Estatu Batuetan, Sezesioko gudatea hasita zegoen. Iparraldekoak irabaziko zuten ziurtasun osoa zuen Marxek.

Bizimodua ateratzeko zerbait egin behar, eta trenbideetara jo zuen lanpostu baten bila. Baina, letra txarra zuelako, ez zioten eman. 1862ko apirilaren 28 an Lassalleri zuzendu zion gutunean: «goseak ez hiltzeko, lanik zikinenak egin behar izan ditut aurten». Zer lan egin ote zituen? Ez ba jakin. Engelsek, nola ez? diru pixka bat bidaltzen zion, mezenas batenak eginez —Rockefellerik ez baitzen garai hartan—.

Esan beharra dago, Marx inkontziente samarra ere bazela: alokairu garestiko bitotkia, bi neskame etxean (Lenchen eta beronen ahizpa Mariana, 1857tik aurrera), alabak ikastetxe onentsuenetan eta piano-ko klase partikularrak hartuz! Marx senar-emazteei, heziera eta ohituraz guztiz burgesak zirenez, itxurak gordetzea gustatzen zitzairen. Humore haundiz, beraren egoera honela azaltzen zion Engelsei: «Aldiskide maite, teoria guztiak dituk grisak, negozioak dituk bakarrik berdeak. Beranduegi konturatu nauk, zoritxarrez». Marxek, egiaz, ez zuen burgesaren sen ekonomikorik, ez zen gizon «praktikoa».

Astiro-astiro, ekinaren-ekinaz, *Kapitala* mamituz eta osatuz zihoan. Beraren liburuek, halare, ez zuten estimazio eta harrera handirik irakurleen artean. Jakina «zientzia bat iraultzera datoen saiakerak ezin daitezke inoiz ere oso popularrak izan», aitortzen zuen etsipenez.

Aldi berean, Alemaniari buruz iragarpen baikorragoak egiten zituen: «Erreboluzio batera goaz nahitaez, 1850az geroztik ez dut honetaz zalantza izpirik izan». Marxen usteak maiz ustel, ordea. Erreboluzioaren ordez, gudua etorri zen, Austriaren aurka lehenbizi, Frantziaren kontra gero, Gilen Iak eta Bismarckek Alemaniaren batasuna lortu zutenekoa.

1863aren hasieran gertatu zen Engels eta Marxek beren adiskidetasunezko urte luzeetan izan zuten haserrealdi serio bakarra. Urtarrilaren 7an, Engelsek karta bat egin zion Marxi, bizitzako laguna zuen Mary Burns hila zela adieraziz (ofizialki ez ziren elkarrekin bizi Man-

<sup>3</sup> 6tik 15era doazen koadernoak 1904ean publikatu ziren, *Plusbalioari buruzko teoriak* izenaz, K. Kautskyren zuzendaritzapean. Textuok, hasiera batean *Kapitalaren* 4. liburua osatu behar zuten. Doktrina ekonomikoen historia egiten da bertan. Lehenbiziko bost koadernoak, 1961-1865eko *Eskuizkribuak* deituraz ezagunak dira.

chestereko puritano jendea ez eskandalizatzearren). Marxek, erantzun zioneko kartan, bere samintasuna agertzen baino gehiago arduratu zen diru laguntza eskatzen. Engelsek ez zuen horrelakorik espero bere adiskidearengandik eta, arras mindurik, bere «izakera hotza» aurpegiratu zion. Baina hortxe bukatu zen arazoa; biak bildu eta lotzen zituen adiskidetasun lokarria ez zen eten, ezta gutxiagorik ere.

Tarteka-marteka, forunkuloengatik eta gibekeko minengatik, Marx ez zen idazteko gauza ere izaten. Engels, arrunt kezkatuak, espainolez zuzendu zitzaion behin batean: «Moro viejo, Moro viejo/el de la vellida barba» deituz.

Zuzpertz bezain azkar, Museo Britainiarreko bidea hartu ohi zuen berrito. Egunean hamar bat ordu ematen zituen bertan, Laura laguntzaile zuelarik —karneta aterea baizeukan 17 urterekin—. Atsedean gisa, zer egingo, eta kalkulu diferentziala eta integrala lantzen hasten omen zen! Orduak eta orduak pasatzen zituen *Kapitala* prestatzen, baina, zenbat eta gehiago idatzi, hainbat eta urrunagotzen zen helmugatik (ikerketa lan guztiek sortzen duten sentimendua berau). Zientziatzko eskrupuloez haserre bizitan, urduritsu jartzen zuten oso.

1863ko abenduaren 2an, amaren heriotza iragartzen zion telegrama jaso zuen. Azaroaren 30ean, arratsaldeko lauretan —«ezkondu zeneko egun eta ordu berean»— hil zen. Albistea jakin eta ordu pare bat geroago Engelsek: «Patuak etxeko norbait eraman nahi zian nonbait. Neronek ere hanka bat hilobian niagoen. Zirkunstantzia hauetan, ene ama baino askoz beharrezkoagoa ninduan ni». *Kapitala* idaztekoan zenak, beraren ama xaharra baino garrantzitsuago eta premiazkoagozat jotzen zuen bere burua. Edonola ere, hamabost egun egin zituen Treverisen. Bitarte hori herentzi kontuak konpotzeko probetxatu zuen, besteak beste.

Handik bueltan, ama zenaren eta Wolff adiskidearen herentzia bi-koitzaz baliatuz, etxe berrira aldatu ziren: 1 Maitland Park Road. Lanean bete-betea aritzen zeneko gelako txoko guztiak liburuz —eta zigarroz!— goraino estalita eduki ohi zituen. XVIII eta XIX mendeko nobelak atsegin biziz irakurtzen zituen: Alejandro Dumas, Tom Jones, Walter Scott eta Balzac, besteak beste<sup>4</sup>. Greziar teatroaz aparte, Cervantes, Shakespeare, Goethe eta Diderot zituen idazlerik kuttunenak. Bere denborapasarik gogokoena Matematikak zituen. Bazkalondoan, ordubeteko lokuluxka, eta ilunabrean, Hampstead Heathetik ibilaldi bat egitea atsegin omen zitzaion. Lafargueren arauera, apetito onekoa ez bazen ere, janari espeziadunak dastatzen eta estimatzen zituen: ur-daiatzpikoa, arrain keaztua, kabiarrak eta pepintxoak.

<sup>4</sup> Oro har, kritika idazleen zalea zen. Erromantikoak ez zituen hain maiteak. Klasi-koak begirunerik haundienean zituen. Grekoaz eta latinaz aparte, frantsesa, inglesa, italiarria eta espainola ere ondo zekizkien. Rusoa ere pixka bat menderatzen zuen.

De omnibus dubitandum —denetaz dudatu behar da—: hauxe zuen Marxek lemarik maiteena 1865ean, Holandako Nannette, beraren lehengusinarean galdera batzuei emandako erantzunen arauera. Historia-ren paradoja: dogmakeria jasanezina zitzaionaren teoria, fede eta erlijio berri bihurtu izana! Ea zein zen bere esaerarik gogokoena galdetu zitzaionean, «Nihil humani a me alienum puto» —gizatiar denik ezer ez zait arrotz— erantzun zuen.

### 3.2 IRAILAREN 28AN SAINT MARTIN'S HALLEN

60.hamarkadaren hasieran, langile mugimendua indarra hartzen ari zen Europa guztian. Batasun, koordinazio eta plangitza beharraren kontzientzia gero eta haundiago zen. Nazioarteko Elkarte amankomun baten beharra somatzen zuten Ingalterra, Frantzia, Alemania eta Italiako langile talde, elkarte eta erakunde askok. Europaren luze-zabalean sakabanatutako langile jendea elkargana biltzea ezinbestekotzat eduki zuen beti Marxek.

1864eko irailaren 28a joanetorri haundiko eguna izan zen langile-riarentzat: Londreseko Saint Martin's Hallen ospatutako mitin batean Langileen Nazioarteko Elkarte (A.I.T.) sortu zen, hau da, Lehen Internazionala, langile sektore guztien ahaleginak egituratu eta bizkortzeko asmotan. Nahiz eta lehen bilera honetan izan ez, Marxek berak idatzi zituen Sarrerako hitzaldia eta behin-behineko Estatutoak. Beraien aitzinsolasean, «langile klasearen emantzipazioak langileen beraien eginkizuna izan behar duela» esaten da.

Internazionalak ordu asko ostu zizkion Marxi, *Kapitalaren* prestaketa atzeraraziz: «Lanez lehertuta negok; alde batetik, nire liburuaren errematea, eta bestetik, Elkarte Internazionala, ez diat ezertarako asirik». Hor zegoen kokka: batetik, bere eskuetan zituen Internazionalaren giderrak, eta bestetik *Kapitala* bukatu beharra zeukan kosta ala kosta. Marx hanka bat politikan eta bestea teorian, betire!

Oso optimista agertu zen beti Internazionalaren abiada eta etorkizunaz: «Bien bitartean, gure Elkarteak aurrerapauso haundiak egin dizkik» esaten zion Engelsi. Internazionala aurrera zihoan, bai, baina ez Marxek uste eta nahi bezain agudo. Ingalterran, Trade Union direlakoek 50.000 kide zituzten, Elkarteak 260 inguru baizik ez (eta 1868tik aurrera, gainbehera sartu zen). Frantzian, 1868 arte ez zuen indarririk hartu (2.000 bat lagun izango ziren garai honetan). Alemanian, Internazionalaren sorrera baino aste batzuk lehenago zendua zen Lassalle, baina bestetik, Liebknecht, Bebel eta Becker lan bikaina ari ziren egiten.

Hain joera ideologiko ezberdinetako jendea ikusita, —komunistak, tradeunionistak, anarkistk, sozialdemokratak...—, Engelsek berehala igarri zion Internazionala bitan edo gehiagotan banatuko zela. Bai asmatu ere! Marx eta Bakuninen arteko adostezintasuna gero eta na-

bariagoa egin zen politika zein teori gaitan. Elkartearen barruko iskanbilak ez ziren txantxetakoak: «Mazziniren makinazioak Italian, Proudhondarren azpikeriak Parisen, Odger, Cremer eta Potteren inbidia Londresen eta Lassalletarren desbiderapenak Alemanian».

Benetan aipagarriak dira Internazionalaren Kongresu eta Batzarretan izandako eztabaidak sozialismorako estrategiaz, Estatuaz, Irlanda eta Poloniako nazio arazoaz, langile Alderdiaz, 8 orduko lanaldiaz, etab. Partiduari dagokionez, masa erakunde zabala eta irekia nahi zuen Marxek, eta ez sektarik edo elkarte izkukurik. Abenturismo erreboluzionarioa zen hark gehien arbuatzen zuena<sup>5</sup>.

### 3.3 1867: KAPITALAREN LEHEN LIBURUA

1865eko maiatzaren 20ean, Marxek hitzaldi bat egin zien *Alokairua, prezioa eta irabaziaz* Internazionalaren Kontseilu Jeneraleko kideei. Huelga eta soldaten igoera kritikatzan zituen J. Weston ingeles elkartekidearen tesiei erantzun nahi izan zien honela<sup>6</sup>.

Moldatzen ari zen *Kapitalaren* laburpen moduko bat da berau. Textu garrantzitsu honetan agertzen du Marxek lehenbizikoz eta argi eta garbi plusbalioaren teoria:

*Langileak zuzenki saltzen duena ez da haren lana, haren lanerako indarra baizik, kapitalistari, denbora zati batez, hartaz baliatzeko eskubi-dea emanaz.*

Tomas Hobbesez bere *Leviatanen* dakarren formula gogora ekartzan digu: «Gizon batek balio duena edo estimagarri bihurtzen duena, beste gauza guztien antzera, bere prezioa da; hau da, haren indarraren erabileragatik emanen litzatekeena».

Lanerako indarraren balioa estudiatuz, konkurrentziaren sisteman soldaten berdintasuna iristeaz ezingo zitezkeen jotzen du: «Alokairuaren sistiman oinarriturik, ordain berdina bat edo pagu beretsu bat bakarrik eskatzea, esklabotzatan oinarrituriko sistima batean askatasuna eskatzea bezalatsu dateke».

Plusbalioaren mekanismoa ere aztertzen du:

*Kapital-lan arteko truke mota hau egintza kapitalistaren edo alokairu-sistimaren oinarria da, eta beronen bitartez, langilea, langile den al-*

<sup>5</sup> Ik. *La première Internationale, Recueil de documents*, Ginebra, 1962.

<sup>6</sup> Aparteko liburuxko bezala, 1898an eman zuen argitara Eleanor Marxek ingelesez, *Balioa, prezioa eta irabazia* izenburuz. Inglesetik euskarara X. Kintanak itzuli zuen 1970ean: *Lan alokatua eta Kapitala. Alokairua, prezioa eta irabazia*, Lur, Donostia, 1970.

*detik, eten gabe ugaldu behar da eta baita kapitalista bera ere, kapitalista den aldetik.*

*Kapitala osoa hortxe dago, bere konklusio eta guzti. Langileek beraien soldadak defenditzeko burrुकatu behar dute: «Kapitalarekin egunean dituzten burrुकetan koldarki amore ematen balute, are ekinga haundiagoak egiteko ere aurretik galduta leudeke».*

Gainontzean, soldata sistemak berekin dakarren esklabotza alde batera utzita, langile klaseak ez du bere eguneroko burruken erresultatua neurritz kanpo haundietsi behar:

*Ez du ahaztu behar ondorioen kontra batailatzen dela, baina ez ondorio hauen kausen kontra; egiten duena ez dela beheranzko higidura gera araztea besterik, eta ez joera bera aldatu; mesedegarriak jartzen dituela, bai, baina ez duela gaitza osatzen, ez sendatzen... «Alokairu bidezko bat lan egun bidezko baten truke» eskatzen duen lema kontserbadorea gabe, bere banderan kontsigna iraultzaile hau idatzi behar du: «Behera lan alokatuaren sistima!».*

Langileriaren historiak, ordea, besterik dio. Alderdi politikoek, sozialistek zein komunistek, eta baita sindikatuek beraiek ere, beren banderan idatzi duten lema, aurrenengo hura izan da: «Alokairu bidezko bat lan egun bidezko baten truke». Langile klaseak ez du lan alokatuaren sistema abolitu, gureak ez bezalako kondizio historiko guztiz desberdinak eskatzen baititu.

1865eko martxoan, Otto Meissner editorearekin izenpetutako kontratuan, maiatzerako *Kapitalaren* eskuizkribu osoa guztiz amaituta egongo zela agindu zion Marxek. Abuztuaren 16an, goizeko ordubietan, aspaldi hitzemaña zeukan *Kapitalaren* lehen liburua amaiera iragarri zion Engelsi:

*Dear Fred: Tomo hau prest zegoak, azkenik. Berau hiri esker izan dela posible aitortzen diat. Hire laguntzagatik ez balitz, ez nian liburua egundo bukatu ahal izango. Eskerronez heterik besarkatzen haut. Salut, ene laguna, ene lagun maitea.*

«Urra» oihu egin zuen honek pozaren pozez, hainbeste itxarotako liburu dohatsua, —azkenean!— buruturik zegoela jakitean<sup>7</sup>. Beronen laguntzari esker eraiki eta muntatu zuen Marxek «burgesen aurpegi-tara jaurtiki izan den misilik izugarriena».

<sup>7</sup> Argitaratu. 1867ko irailean argitaratu zen, Hamburgon, baina zarata haundirik atera gabe. Saldu ere ez zen asko egin: lau urteren buruan ahitzeko zegoen artean 1000 aleko lehen edizioa. II eta III liburua Marx hil ondoan moldatu eta argitarazi zituen Engelsek, —1885 eta 1894ean, hurrenez-hurren—, haren eskuizkribuez baliatuz. IV liburua izateko zena, *Plusbaliolari buruzko teoriak* izenpean editatu zen Stuttgarten (1905-1910).

*Kapitala* da, *Manifestuarekin* batera, Marxen idazlanik ezagunena. Baita gutxien irakurriena ere, hain baita lan sakon eta gotorra<sup>8</sup>. Marxek berak hitzaurrean dioen moduan: «Zientzia guztietan, neketsua da hasiera». Eta beste eskutitz batean: ¡Zientziarentzat ez dago errepideirik, eta beraren aldapa malkartsuetan gora igotzeari bildurrik ez diotenak bakarrik izango dute haren tontor distiratsuetara ailegatzeko zoria».

Hitzaurrean garbi uzten du bere xede eta helburu nagusia: «Obra honetan produkzio modu kapitalista eta beroni dagozkion produkzio eta truke harremanak estudiatzen ditut». Objektu abstraktu bat du aztergai, beraz: produkzio modu kapitalista. Eta produkzio modu honen sorlekua Ingalaterra denez, hemendik jasotzen ditu bere tesien argibideak. Ez da ekonomia enpirikozko edo historia konkretuzko liburu bat, hortaz.

Ingalaterra, noski, beste herrien aldean aurreratuagoa doa, eta horregatixe: «Industrialki aurreratuena dabilen herriak beraren atzetik datozenei etorkizunaren bidea erakutsi besterik ez die egiten». Marxek ez du erakutsi nahi «produkzio kapitalistaren lege naturalek eragiten dituzten antagonismo sozialaren garapen osoa, lege hauek berauek baidizik», «burdinezko halabeharrez agertzen eta burutzen diren joerak».

Teoriaren premia azpimarratu nahirik, ezagutza zientifikoaren alde mintzo da: «Gizarte modernoaren mugimenduaren lege ekonomikoa desestaltzea da obra honen helburua». Gizarteko klase zuzendarien artean ere «egungo gizartea kristal sendokoa izan beharrean, etengabe aldatuz doan organismo aldagarri bat delako aurrentimendua nabari da... ez purpurazko mantuek ez sotanek izkuta litzaketen garaiaren zinuak dira».

Eta hitzaurrearen erremate bezala: «Kritika egitan zientifikoak eragindako irizpen oro ongi etorria izango da. Sekula amore eman ez diodan herri iritzia deiturikoaren aurreritzien kontra, nik, orain eta beti, Fiorenzar haundi haren hitzak neure egiten ditut: «Segui il tuo corso, e lascia dir le genti» (Segi zeure bideari, ez egin kasurik jendearen esanari). Dante, *La Divina Comedia*, Il Purgatorio, Canto V<sup>o</sup>.

Marxek produkzio modu kapitalista osoki ikertzen duenik ezin esan daiteke: haren estruktura ekonomikoa aztertzen du bereziki. *Kapitala*, bere horretantxe, amaitzeke dagoen obra da. Marx ez zen iritsi produkzio modu kapitalistaren politikazko eta ideologiazko gainestrukturaren estudio sakona egitera. Asmorik bazuen, baina ez zuen burutzerik izan. Hala eta guztiz ere, bada bertan produkzio modu ka-

<sup>8</sup> Marx irakurtzeko, beraren izkribu errezenetatik zailenetara abiatzea litzateke egokiena: lehenik, *A.K.ren Manifestua* (1848), gero *Alokairua, prezioa eta irabazia* (1865) —biak euskarara aldatuak, zorionez— eta, azkenez, *Kapitala* (1867...) Noiz izango dugu euskaldunok lan erraldoi hau euskaraz irakurtzeko aukera?

<sup>9</sup> Wilhelm Wolff «adiskide ahantzezinari, proletargoaren aintzindari adoretzu, leial eta jatorrari» eskaini zion Marxek oinaze eta gaitzaldi artean egindako lan eskerga.

pitalistaren gainegitura lantzeko zenbait elementu teoriko, «egoera praktikoan».

Irakurle gehienontzat aski zail gertatzen da *Kapitalaren* irakurketa. Lehenengo zailtasuna, politikoa da: *Kapitala* «ulertzeko» ezplotazio kapitalistaren esperientzia zuzena behar da, edo bestela. «langile klasearen posizioetara» pasa.

Bigarren zailtasuna, teorikoa da: teori lanetara ohituak dauden irakurle trebatuek ez lukete eragozpen haundirik izan behar. Ohitura gutxiko irakurle arruntek, berriz, zailtasunik aurkituko dute. Teoria oro bere kontzeptuen abstraktutasunaz eta kontzeptu horien sistematizazioaz nabarmentzen da. Kontzeptu abstraktuak eta sistema zehatzak ez dira luxuzko fantasiak, ezagutza zientifikoen produkzioarako behar-beharrezko langailuak baizik. Herramientak eta makinak produktu materialen —automobila, telebista, etab.— produkzioarako nahitaezko lanabesak diren bezalatsu.

Kondaira teoriaren giltzarri kontzeptuak honako hauek dira: produkzio modua, formazio soziala, produkzio harremanak, produkzio indarrak, azpiestruktura edo ekonomi maila, gainestruktura edo politika eta ideologi maila, klase sozialak, klasearteko burruka, ekonomia-aren azken instantziazko determinazioa, politika eta ideologien autonomia erlatiboa, plusbalioa, etab<sup>10</sup>.

Marxek subjektu eta esentziaren problematikarekin hausten du. Historiak ez du, hitzaren zentzu filosofikoan, subjekturik, motor bat baizik: klasearteko burruka. Marxentzat, gizarte molde oro maila objektibo batzuek —ekonomikoa, politikoa eta ideologikoa, laburki— osaturiko estruktura bat da. Estruktura honen barrenean, beti dago maila bat azken buruan erabakitzailea dena: ekonomikoa, alegia. Politikoa eta ideologikoa, ordea, ez dira ekonomikoaren adierazpen huts: efikazia propioa eta autonomia erlatiboa dute. Maila edo egitura hauen organizazio objektiboak determinaturik, gizakiak klase sozialetan banatzen dira. Marxengan ez dago «gizakien» eta «pertsonek» antropologia humanista baten antzik. Historikoki, beren determinazio sozialen multzoa besterik ez dira gizakiak. Klasearteko burrukaren formak, mekanismoak eta kondizioak esplikatzeko, Marx ez da gizakiagandik abiatzen, formazio ekonomiko jakin batetik baizik:

*Ene metodoa ez da gizakiarengandik abiatzen, ekonomikoki emaniko garai sozial batetik baizik.*

<sup>10</sup> Euskaraz badugu kontzeptuok xehe-xehe esplikatzen dituen lantxoak: *Kontzientziatu alfabetatuz*, multukopiaz eta egile izenik gabe agertua. Gaztelaz, eskuliburu aski polita eta ezaguna: Marta Harnecker, *Los conceptos elementales del materialismo histórico*, Siglo XXI, México, 1969.

Historia ez da esentzia baten lerro bakarreko hazkundera: klasearte-ko burrukan oinarritutako prozesu bat da. Hasiera eta bukaerarik gabeko iharduera.

### 3.4 KAPITALA NOLA IRAKURRI

Nola irakur, ordea, *Kapitala*? Hona benetako koska. Zenbait konseilu praktiko ematea komenigarri izan daiteke, hortaz<sup>11</sup>.

Lehenengo eta behin, ez da hasi behar lehen liburuaren lehen atalaren lehen kapitulutik. Hain zuzen ere, hasiera-hasieran aurkitzen baitira oztoporik haindienak, *Merkantzia eta moneda* aztertzen den sekzio edo atalean, prezeski. Hobe da, beraz, bigarren ataletik hasita: *Dirua kapitala bilakatzea* delakotik; hauxe da, gainera, liburuaren muin-muina, plusbalioaren teoria, Marxen «aurkiketa» nagusia ekonomian, Engelsek esan bezala. Plusbalioan datza kapitalismoaren lapurreta, kapitalistaren irabazi iturria. Langileek zailtasunik gabe irakur dezaketen zatia da, egunero nabaritzen duten explotazio kapitalistaren teoria zientifikoa denez.

Ondorenean datozen bi atal trinko baina argietan (III eta IV) plusbalioaren bi elementu funtsezkoenak ikutzen dira: plusbalio absolutua eta plusbalio erlatiboa. Lan egunaz ari delarik, nola klase kapitalistak lanaldia gehitzera jotzen duen, eta langile klasea nola betidanik lanorduk gutxitzearen alde burrukatu den azaltzen du Marxek<sup>12</sup>.

*Kapitalaren IV Atala*, izenburu bezala *Plusbalio erlatiboaren produktzioa* daramana da. Hauxe da gaurregungo explotaziobide nagusia. Industri ekipamenduaren haunditzea aipatzen du hor Marxek. Teknika eta makina berriak sartuz eta lanaren erritmoa biziagotuz lortzen da produktibitatea gehitzea.

Ondoren, tekniko samarra den V Atala (*Plusbalioaren produktioari buruzko ikerketa berriak*) albora utzi eta VI Atalari heldu. Soldata era ezberdinak aztertzen ditu hemen Marxek. Soldataren arazoa —«bizi-tza maila» deitu ohi denarena—, azken buruan, klase burruka kontua dela frogatzen du.

II eta VI Ataletatik zera atera daiteke, konklusio moduan: Sistema kapitalistaren joera jenerala den lan eguna gehitzearen eta soldatak jeistearen aurka altxatu behar duela langileriak. Alokairu hobeak eta lanaldi motzagoa errebindikatzea burruka defentsibo bat dela, eta erreboluzio sozialista helburutzat duen klase burruka politikoak baka-

<sup>11</sup> L. Althusser, «Advertencia a los lectores del Libro I de El Capital», in *Escritos*, Laia, Barcelona, 1974.

<sup>12</sup> Gaurregun, asteko lan iharduera 40 ordukoa da, bataz beste, baina horretaz kanpo, «ordu extrak» «lan beltza», «lan ebentuala» eta era honetako maltzurkeriak asmatu dituzte produktibideen jabeek. Europa aldeko sindikatuek astean 35 orduko lanaldia, 6 astetako oporrak eta jubilazioa 60 urterekin izatea eskatzen dute orain.



rrik bihur dezakeela burruka defentsibo hori burruka ofentsibo. Burruka ekonomiko hutsa ez dela aski: Nazioarteko langileriaren burruka komun hau, nazio bakoitzean, berezitasun nazionalak kontuan hartuz eraman behar dela aurrera.

Alokairuaz diharduen Atala irakurri ondoan, errazagoa den VII Atalera pasa gintezke: *Kapital metaketa*. Langileei hurrupaturako plusbalioa etengabe kapital bihurtzea dela kapitalismoaren joera dio Marxek. «Elur bola bat eginez» doa etengabe kapitala, langileari ahal duen plusbaliorik haundiena atereaz. Tesi honen argibidetzat 1846tik 1866rarteko Ingalaterraren esenplua jartzen digu<sup>13</sup>.

Liburuari amaiera ematen dion VIII Atalak *Akumulazio primitiboa* du izenburutzat eta berebiziko garrantzia duen aurkipen bat egiten du bertan Marxek. Kapitalismoa lehen kapitalistaren lehen aurrezkiarekin hasi zela dioen mistifikazio burgesa salatuz hasten da. Kapitalismoa, dio Marxek, diru «metaketa» izugarri baten ondorioz sortu da: mendetan zehar gertatutako harrapakaria, neurrigabeko bortxaketa, sarraski eta herri osoen garbizioaren emaitza izan da. Kapitalismoaren sorrera historikoari buruzko Marxen tesi honek gaurkotasan bizi-bizia du oraindik ere. Gaurregun, «metropolieta» honelako masakrerik esilatzen ez bada ere, «Hirugarren Mundua» delako horretan antzinako metodo berberak erabili ohi dira.

Atal hauek irakurrita gero, lehenbizikoa «hobekiago» ulertzeko eran egongo da irakurle saiaturia. Beraz, orain arteko aholkuak laburtuz:

1. Alde batera utzi lehen Atala.
2. Bigarren Ataletik ekin.
3. Arreta haundiz eta astiro irakurri II, III, IV, VI, VII, VIII Atalak (V Atala albora lagata, beraz).
4. Ondorenean, eta orduan bakarrik, lehen Atala irakurtzen hasi, lanak ematen baditu ere.

Zailtasun politiko eta teorikoetatik aparte, hain nabaria ez den puntu eztabaidagarri bat ere badu lehen Atalak: lan balioaren teoria<sup>14</sup>. Frogatu gabeko hipotesi batetik abiatuz, merkantzia baten balioa sozialki beharrezkoa den lan kopuruaz determinaturik dagoela dio Marxek. Kontsumoa eta erabiltzeko balioa gutziestera darama horrek, truke balioaren mesedetan.

Zernahi ere den, lan balioaren teoria, berez. Marx eta Engelsek ba-

<sup>13</sup> XIX mendearen bukaeraz geroztik, kapitalismoaren birproduktio honek Inperialismoaren eite berria hartu duela dio Laninek: kapital bankario eta industrialaren bategitea, kapital finantzarioaren eraketa eta lurralde subdesarrolatuetaiko ekonomi ustiapena kolonialismo garaian, mundu gerrateak, etab.

<sup>14</sup> Eskola neorikardianoaren desafiari erantzun eta aurpegi eman behar izan dio balioaren teoria marxistak. Desafio horri erantzunez, zenbait korronte sortu da ekonomilari marxisten artean. Ingalaterran, esaterako, ortodoxoak (Capital Classen inguruan), Cambridgekoak (Rowthorn) eta Manchesterekoak, denetan berrizaleenak (Steedman, Hodgson, Gough).

lioaren teoria deitu zutenaren kasu berezi bat bezala ulertu behar da. Plusbalioaren teoria bera ere teoria zabalago baten kasu berezi eta partikular bat da, izan: klase gizarte guztietan ematen den gainlanarena, alegia. Lehen liburu honetan ez da osoki aztertzen gainlanaren teoria hori. Liburuki honek berezitasun hau baitu: II, III eta IV liburuetan planteatutako zenbait problemaren soluzioak dakartzala, eta aldrebes. Besteekin batera irakurriz, hobeto ulertuko da lehenbiziko liburu hau ere, beraz.

Horrez gainera, lehenengo Atalari dagozkion arazo batzuk, «feti-txismoaren» teoria, gonbarazio baterako, hegelismoaren traza eta arrastoetatik sortuak dira. Marxek berak aitortu zuenez, Hegelekin «flirteatu» baitzuen behin baino gehiagotan.

### 3.5 FRANTZIAKO GERRA ZIBILA

Hirurogeita hamahiru egun iraun ostean, 1871eko maiatzaren 28an erori ziren tiroz xehatuta eta txikituta Pariseko Komunako azken burukalariak, Père-Lachaiseko kanposantuan. 20.000 hildako bai guxtienez, preso eta deportazioez gain-jende pila haundiak joan behar izan zuen erbestera. Handik bi egunera, Pariseko Komunaren esanahi historikoa azpimarratzen zueneko txosten bat burutu eta irakurri zuen Marxek Internazionalaren Kontseilu Jeneralean: *Frantziako gerra zibila*<sup>15</sup>.

Marxek, Komuna aurretik, altxamenduaren aurka gogor bazegoen ere, errebolta hasi eta gero erabat aldaturik, «su eta gar agurtu zuen jendeteriaren erreboluzio ekintza», matxinatuei indar guztiz lagunduz. Komuna sortu zen kondizioetan, neurri sozialistarik hartzeko gauza ez zela izan ohartzen da. Ez zuten astirik izan gizartea oinarri berrien gainean eraikitzeko: «Bai, jaunak, Komunak askoren lana gutxiren aberastasuna bihurtzen duen klase jabetasuna desegin nahi zuen. Komunak expropiatzaileen expropiazioa lortu nahi zuen».

Gerra zibilak berekin zituen eragozpenengatik, ezin izan zen erreforma sakon eta haundirik egin. Presakako analisi batek zera pentsarazten dio Marxi: «Langile klasea ezin daiteke muga Estatuaren makina dagoen bezala hartu eta bere zerbitzuan jartzera». Ez da aski langile klasea Estatuaren makinaz jabetzea, Estatu zaharra puskatu eta bere Estatu makina berria eraiki behar du.

Komunak armada iraunkorra eta polizia kendu eta herria armatu zuen:

<sup>15</sup> Marxek argitaratutako azken obra haundia, harez gero artikulua eta agiriak bakarrik idatzi baitzuten. Inglesez agertu zen estrainaldiz (1.000 ale). Cordobako gartzelari M. Onaindiak itzulua, euskal lehen edizioa plazaratzeko dago oraindik. Argitaletxe-rik bilatu ezinda ez zen, nonbait, Marx bakarrik ibili!

*Komuna, hiriko distrito guztiek sufragio unibertsalez hautatutako udal kontseilariz osaturik zegoen. Erantzule eta noiznahi errebokable ziren. Beraren kiderik gehienak, jakina, langileak edo langile klasearen ordezkari onartuak ziren. Komunak ez zuen organismo parlamentario bat izan behar, gorputz ejekutibo eta legegilea baizik.*

Gudalostea eta poliziaz gainera, Komuna zai-zai zegoen «erreprezioaren indar izpirituala», «apaizen boterea» ere kentzeko, Elizaren eta Estatuaren arteko berezkuntza eta eliza guztien expropiazioa dekretatuz. Apaizak bizimolde pribatuaren erretirora itzuliak izan ziren, fide-len erremusinetatik bizitzera, apostoluak, beraien aintzindariak bezala. Irakaskuntzako instituzio guztiak dohainik irekiak izan ziren herriarantzako eta, une berean, Estatuaren eta Elizaren eskuhartzetik askatuak»<sup>16</sup>.

Parisekoak gainerako komuna guztien eredu izan behar zuen. Zentralizazio burokratikoak gobernamentu berri bati utzi behar zion bere lekua: «komunetan eraturako herriari». Marxek ez zuen demokrazia politikorik murriztu edo suntsitu nahi, alderantziz: «Ezer ezin zitekeen Komunaren izpiritua kontrakoagorik izan sufragio unibertsalaren lekuan inbestidura hierarkiko bat jartzea baino».

*Frantziako gerra zibila* Marxek ez dakar proletargoaren diktadura hitzik<sup>17</sup>. Hala irakur daiteke: «Komuna, funtsean, langile klasearen gobernu bat zen, klase produktzaileak jabegodun klasearen kontra daraman burrukaren fruitu». Marxek «proletargoaren diktaduraz» hitzegiten zuenean, bada, langile klasearen gobernuaz hitzegiten zuen, gobernu demokratiko eta antiburokratikoaz. Ez du liberalismo tradizionalik begi onez ikusten, baina burges demokraziaren formarik ere —askatasun publikoak, sufragio unibertsala— ez du gaitzesten.

Komunaren neurri sozialik garrantzitsuena bere existentzia bera izan zen: «Langile klaseak ez zuen Komunatik batere miraririk itxaroten. Langileek ez dute inolako utopiarik beti prest herriaren dekretuz ezartzeko. Ez dute inolako idealik bete behar, hiltzorian dagoen gizarte burgesak bere barnean daramatzen elementu berriak askatu baizik».

Marx ez da Komuna deskribitzeraz mugatzen. Gerra zibilagatik izan ez balitz, nolakoa izan beharko zukeen ere azaltzen baitu: «Langileen dominazio politikoak ezin dezake iraun beraien morrontza sozialarekin batean. Hortaz, Komunak, klaseen eta klase dominazioaren

<sup>16</sup> Ateismoa dekretuz eta indarrean gainezarri nahi zuten Komunakideen kontra irten ziren Marx eta Engels. Erljioaren laguntzarik hoberena pertsegizioak zirela zioen Engelsek: «Jainkoari egin lezaiokeen zerbitzu bakarra, ateismoa sinismeneko artikulua nahitaezkoa deklaratzeari litzateke».

<sup>17</sup> Aurrerantzean, Marxek ez du publikoki proletargoaren diktadura hitzik erabili, 1871eko irailaren 28ko hitzaldi batean ezik. 1852an Weydemeyeri egindako gutuna dokumentu pribatu bat baita, eta *Gothako Programaren kritika* ere ba, nolabait.

euskarri ekonomikoak suntsitzeko palankatzat zerbitzatu behar zuen. Lana askatuz, gizakiak oro langile bilakatzen dira eta lan emankorrak klase baten jabetasuna izateari uzten dio».

Pariseko Komunak marxista kutsu eta jite gutxi zuen (70 % proudhonzaleak, 20 % blankistak eta 10 % sozialista utopikoak baitziren), baina Internazionalari eta Marxi egotzi zieten erru guztia. Marxez, hori bai, mireспен izugarria zion Pariseko Komunari:

*Paris, Paris langilea, bere Komunarekin, eternalki goratua izango da gizarte berri baten aintzindari glorios bezala. Beraren martiriek badute santutegia langile klasearen bihotz haundian. Eta berauen hiltzaileak pikota eternalean josi ditu dagoeneko historiak, eta apaizeriaren otoitz guztiek ere ez dituzte handik erredimituko.*

1871eko ekainean 53 urte zituen Marxez. Beti bezain afantsu eta baikor, Komunaren ondorioz, arras animaturik, erreboluzioa laster barru etorriko zen esperantza osoa zuen berriro. Ez zuen inoiz jakiterik izango Komunaren 70 egunak kondaira tartetxo bat besterik ez zirela izan: 70 erreboluzio egun 1849tik 1917ra bitartean!

Aurreko urtean, Londresera joan zen bizitzera Engels; Regent's Park Roadeko 122an, bi pisoko etxe eder bat hartu zuen, bere lorategi eta guzti, Marxtarren etxetik hamar minutura. Egunero ikusten zuten elkar, eta ordu pare bat bederen pasa ohi zuten berbetan. Handik aurrera, diru kezkarik gabe eta patxara haundiagoz bizi izan zen Engelsen kontura; honek, aitaren lantegia uzteagatik jasotako indemnizazioari esker, urtero 350 libra esterlina eskuratzen zizkion (Azkenik, akzio guztiak saldurik, milioiduna izan bide zen Engels).

Komunak sorterazitako oihartzuna zela bide, Europa eta mundu guztira zabaldu zen Marxen izena eta sona. Kazetari jende askok atsegin zuen berarekin mintzatzea. Ameriketatik ere etorri zitzaizkion berriemaileak entseu egitera, *Worldekoak*, adibidez. *L'illustration* egunkariak, 1871eko irailean, lehen orria eskaini zion —erreturatu eta guzti— «Karl Marx, Internazionalaren burua» izenburuaz (erreturatu hau bera ingeles, aleman eta espainol egunkariek erreproduzitu zuten gero).

*L'illustrationeko* albistariak honela egin zuen Marxen deskribizioa:

*Doktorea, gizaseme gozoa, gizabidetsua eta atsegina dela esan dezaket; ez du zoro koleratsuaren airerik, ezta munstru edo heroe itxurarik ere. Gehiago dirudi Hanburgoko burges bat, Londreseko laino artean galdua, ahalik hobekien bizi eta aita-familiako on bat izaten saiatzen dena, gizartea gainazpikatuz ezer irabaztekorik duena baino... Doktorea beti beltzez jantzen da.*

Hil honetan bertan, Londreseko taberna batean ospatu zen Internazionalaren Konferentzia kaskarrean garaitzapen handia lortu

zuen<sup>18</sup>. Baina Bakunin eta beronen jarraitzaileak ez ziren eskuak tolesatuta gelditu, ez horixe. «Gerra deklaratu dute Kontseilu Jeneralean». Marxen kontrako amorruan, antisemitismoaren delirioraino iritsi zen Bakunin: «Judua da gizateriaren etsaia. Arraza hau Asiara bidali ala behin betiko akatu beharra dago».

Sekulako tirandura, sesio eta burrukak sortu ziren Elkartekoen artean. 1872ko irailean La Hayan biltzekoa zen 5. Kongresuak interes berezia eragin zuen bazter guztietan. «Nazioarteko Kongresua —zioen Marxek Kugelmani— hil ala bizikoa izango da Intenazionalarentzat, eta erretiratu aurretik, elementu nahastaileengandik zaindu nahi nuke berau».

Bakunin eta beronen lagunak «eskomunikatuak» eta Elkartetik botek izan ziren (27 botu alde, 6 kontra eta 7 abstentzio). Are eta gehiago: Kontseiluaren gehingoak Internazionalaren egoitza New Yorkera aldatzea erabaki zuen. Irailaren seiya zen. Bero egiten zuen aretoan. Entzuleen artean, Marxen emaztea eta bi alaba, Laura eta Jenny, gertatzen ari zenari adi. A. I. T. ren heriotza zirudien hark... Erakundearen eta Erreboluzioaren beraren bi ikuspegi desberdin zeuden aurrez-aurre, eta Marxek nahiago izan zuen Internazioanala apurtu eta hilerazi, «kontrarioen» eskuetan utzi baino.

Biharamonean, Amsterdamen egindako mitin batean, Kongresuaren ondorioen berri eman zuen Marxek frantsesez eta alemanez. Politikan parte hartu beharra azpillerrotu zuen, abstentziazaleak garrazki kritikatu. Eta hau erantsi:

*Guk ez dugu inoiz esan helburu horretara daramaten bide guztiak berdinak direnik. Badakigu nolako garrantzia duten herrialde desberdinetako instituzio, ohitura eta tradizioek. Guk ez dugu ukatzen Amerika eta Ingalaterra moduko herrietan, eta zuen instituzioak hobeto ezagutuko banitu, Holandan erantsiko nuke, langileek bide baketsutatik iritsi dezaketetik beraien helburua. Hau egia izan arren, aitortu beharra dugu baitare, kontinenteko herri gehienetan, indarrak izan behar duela erreboluzioaren palanka.*

Sozialismorako bide ezberdinak onartzen zituen, beraz, Marxek. Demokrazian ohitutako herri aurreratuetan bide horiek baketsuak izan zitezkeela esaten zuen, baina Europako herri gehienetan «indarrak izan behar duela erreboluzioaren palanka». Pariseko Komunaren esperientzia zuen gogoan, betire<sup>19</sup>.

<sup>18</sup> Marxek eta bere lagunek erabilitako metodoak —buruzagitza zentralizatua, barne demokraziarik eza, aginte erresorte guztiak pertsona bakar baten eskuetan, trikimainak, maneju izkutuak, konspirazioak eta eskomikuakbati baino gehiagori gogoraziko diote ondorengo alderdi ezagun batzuen jokabidea.

<sup>19</sup> Guztiz jakingarria da Engelsen «testamentua» (1885): «Kondairaren ironiak dena hankaz gora jarri du. Guk, «erreboluziogile» eta «nahastaileok» askoz ere gehiago

Amsterdameko hitzaldi hau Marxen testamentu politikotzat har daiteke. Herez gerokoa da, bai, *Gothako Programaren Kritika* —1875ekoa—, baina ez zen argitaratzeko egina izan. Azken ordurarte arduratu zen Marx politika erazoetaz, baina ez zuen langile mugimenduan kargu berezirik izan geroztik. La Hayako Kongresuak epealdi inportante bat markatu zuen bere bizitzan: Internazionalean 8 urtez gogor burrukatu ondoren, bere militantzialdiaren azkena seinالاتu zuen.

Batzarra bukatuta, Marx eta beraren familia La Hayan gelditu ziren irailaren 17rarte. Poliziaren txosten bati esker badakigu iluntzean, Scheveningen herrian, hondartza ondoko Grand Hotelera joan zirela afaltzera eta kontzertu bat entzutera. Ez dakigu zehatz gau horretan orkestak zer jo zuen, Mozart, Chopin edo Wagner, baina bai, segurasko, oso gau atsegina pasa zuela Marxek bere emaztearen eta suhi-alaben ondoan.

### 3.6 MARX ZAHARRA

Jenny eta Charles Longuet 1872ko urriaren 9an ezkondu ziren, eta Londresen jarri bizitzen. Eleanor, izkutuan, Hyppolite Lissagarai ipar euskaldunarekin zebilen arras maitemindurik<sup>20</sup>. Baina, Marxek, maitasun kontu hauetan bere garaiko burges aitengandik desberdina ez zenak, ez zuen hirugarren suhi frantsesik nahi etxean. Jenny (Mutzchen deitzen zuten etxekoek) 60.urtera hurreratzen zihoan eran, gero eta etsipenduago zegoen; Erreboluzioaren porrota, Internazionalako istiluak eta bere haurren heriotzak zirela eta, erabat behea jota zebilen.

Karl, berriz, *Kapitalaren* bigarren tomoa prestatzen ziharduen —*Kapitala* idazten pasatako denboran erre zituen zigarroak ordaintzeko lain diru ez ziola hark eman esan ohi zuen—. Horretarako, Museo Britainiarrean apunte eta material pilo galanta biltzen ari zen. Internazionalaren arazo eta gorabehera tristeak ere hurbiletik jarraitzen zituen.

1872ko martxoan agertu zen *Kapitalaren* lehen itzulpena, errusieraz hain zuzen. J. Royren itzulpen frantsesa 1875ean atera zen, Marxek berak zuzendurik. 1873ko urtarrilean, *Kapitalaren* bigarren aleman agerrialdaren hitzatzea idatzi zuen. Textu famatu honetan aipatzen du Marxek beraren metodoa Hegelenaren aldean «guztiz aurkakoa» dela:

*Ene metodo dialektikoa ez da Hegelen metodotik desberdina oinarrian bakarrik, guztiz aurkakoa baizik. Hegelentzat pentsamenduaren*

irabazten dugu bake eta legezko bideetatik ibilita, legezkontrako eta subertsiozkoetatik ibilita baino (*Frantziako klase burrukak* liburuari hitzaurrea).

<sup>20</sup> *Historie de la Commune* obra ezagunaren egilea berau. Marxek berak lagunduzion gerotxoago bere alaba Eleanori liburu hau ingleseraten.

prozesua, *Idea* izenpean, subjektu autonomo bihurtzen duena, errealitatearen demiurgoa, da, eta honek ez du adierazten haren fenomenoa baizik. Enetzat, berriz, gauza materiala gizakiaren buruan itzulia eta jarria baizik ez da.

*Duela ia 30 urte, oraindik modan zegoenean kritikatu nuen nik dialektika hegeldarraren alde mistifikatzailea. Baina Kapitalaren lehen liburua idazten ari nintzen une berean, Alemania supereskolatuko epigono izu, hantustezko eta haxkarrek «hildako zakurtzat» zerabilten Hegel, Lessingen garaian Moises Mendelsson ausart hark Spinoza bezala. Hargatik, deklaratu nintzen argi eta garbi pentsalarri galant haren diszipulu, eta baita balioaren teoriaren zenbait pasartetan koketeatu ere bere adierazmolde bereziarekin. Dialektikak Hegelen eskuetan pairatu duen mistifikazioak ez du eragozten aitor dezagun bera izan dela lehena haren magimenduaren forma jeneralak osokien eta kontzientekien azaltzen. Dialektika, haren baitan, buruz behera zegoen. Irauli egin behar da, es-talki mistikoan izkutatuta dagoen muin arrazionala aurkitzeko.*

Pasarte ezagun honetan, «iraulketa» hitza indikatiboa eta metaforkoa besterik ez da, soluzio baino problema gehiago jartzen dituen<sup>21</sup>. *Aleman Ideologiaren* hausturaz gero, kategoria honek —Hegelen gainazpikadura honek— ez du zentzurik. Filosofia espekulatiboari buelta eman eta itzulketa soil bat eragin nahi diona, ez da izango Filosofiako Proudhon bat besterik, alegia beraren preso inkontzientea, Proudhon ekonomia burgesarena zen bezalaxe.

Udaberrian, hainbeste lanek nekarazita, makalaldi haundia izan zuen: hagineko eta buruko min izugarriak jasan zituen. Engelsek Manchestereko sendagile ezagun batengana eraman zuen. Atsedendaldi osoa aholkatu zion Gumpert doktoreak. Bide batez, *Naturalezaren Dialektika* liburuaren eskema azaldu zion Engelsek. Urrian eskutitz bat igorri zion Darwinek Marxi, honek bidalitako *Kapitalaren* aleagatik eskerrak emanez.

Urte honetako irailaren 8tik 13ra, Ginebran ospaturiko Internazionalaren 6. Kongresua «deskalabro hutsa» izan zen, Marxen beraren hitzez esateko. Ofizialki, behinik-behin, azkenengoa izan zen (Kontseilu Jeneralaren azken bilera, ordea, Filadelfian egin zen, 1876an). Internazionala ez zen bere barruko hasarre eta iskanbilengatik soilik hondatu, baita Europan Erreboluzioak porrot egin zuelako ere. Halare, langile alderdi sozial-demokrata alemanaren hauteskunde goraketa eta aurre-rapenak pozgarri zitzaizkion Marxi.

Eman dezagun Marxen egun arrunt bat: 1875eko maiatzaren 10a, esate baterako. Goizeko zortziretatik bederatzitara bitartean jeiki da. Kafetxo bat hartu, egunkariak irakurri eta ikasgelara sartu da. Eguraldi ona egiten du Londresen. Gogo haundirik gabe jan du Helene Demuthek prestatu dion bazkaria.

Bazkalostean, hain gogoko dituen Habanako puro horietako bat erre du. Gero, *Times* irakurri eta minutu batzutan, deskantsatzera igo

da. Jetsi denean, etxea hutsik aurkitu du. Jardinetik osteratxo bat, eta bere gelara doa lan pixka bat egitera. Jenny, bere emazteaz oroitzen da —osasunez pattal, Lizzy Burns, Engelsen lagunarekin Wight irlara joana baita atsedean hartzera—.

Aurki egingo ditu 32 urte Kreuznachen ezkondu zirela, eta 40tik gora elkar ezagutu zutela. Jennyk 61 urte astun ditu orain; gaixoak, mi-xeria eta sufrimenik franko ezagutu du bizitzan. Beraren jatorriari zegokionez, lasai eta aise bizi besterik ez eta! Baina, Heinrich Marx abogatuaren semearekin maitemindu zen osotara, hain beltzarana, hain argia eta bitxia baitzen. Horregatixe, munduko langile guztien oroime-nean eta bihotzetan betiere bizirik dago, baina bitartean, bai biziera la-tza, horregatio!

Une honetantxe, Jenny Shanklineko itsasertzean paseatzen arituko da Lizzy Burnsekin batera, pausakera ahulez, astiro-astiro, bere gor-putz ahitu eta minberatuaz, aurretik jotzen duen haizea desafiatur. Marxek, luma hartu, eta azkenengo albisteak kontatzen dizkio maite-kiro.

Eta, nola ez, bere alaben oroitzapena datorkio gogora, arrunt kez-katurik. Beraien osasuna ez baita onegia; Eleanor, batez ere, oso ahula da psikikoki. Suhiak ez ditu bere gustokoak: Longuet mutil jatorra da, baina ez da buruazkarra; Lafargue, berriz, gizon argia izanik ere, alfer xamarra —eta proudhonzalea, gainera!—. Lissagarairi dagokionez, ez du berarengan uste haundirik eta Eleanorengandik urrundu nahi luke<sup>21</sup>.

Iluntzean, Engels afaritara datorkio, eta gero biak Hampstead Heathera joan dira pasian. Alemaniako gertakizunetaz hitzegin behar zioat —pentsatzen du Marxek—. Aleman sozial-demokrata buruza-giek kasurik ere ez digute egiten. Alemaniako egoeraz tutik ez dakiten emigratutzat gauzkate, eguneroko politika gorabeherak ulertzeko gau-za ez garen intelektualtzat hartzen gaituzte.

Lehen Internazionala gainbehera joana da eta hiltzat har daiteke, honez gero. Bakuninek berak ere ezin izan ditu federazio desberdinak batu eta antolatu. Erreboluzioa ezagutzeko aukerarik ez du Marxek dagoeneko. Estudioa, ikerketa teorikoa geratzen zaio. *Kapitalaren* II eta III tomoak ditu gogoan, aterrunerik gabe. Hil aurretik bukatu nahi lituzke, eta ezin. Liburu sorta galanta irentsi eta bere idazkera gotiko fin, bihurri eta irakurtezinez ehundaka orri betetzea atsegin zaio; ezin ditu, ordea, bere ideiak ordenatu, eta beinere ez dago idazten duenaz gustora.

<sup>21</sup> Aitaren gustoa egitegatik, ez zen harekin ezkondu azkenean. Eleanor bere aita-ren ondarearen gordelari eta aldarrikatzaile sutsua izan zen, haren lanen hedatzeari fin ekin eta lotu zitzaierik. Edward Aveling doktoarekin ezkondu zen, baina ez zen ba-tere zoriotsua izan berarekin. Etsita, bere buruaz beste egin zuen 1898ko martxoaren 31ean, 43 urte zituela. Ik. Yvonne Kapp, *Eleanor*, Editions Sociales, Paris, 1980.



Heriotza egunero dabilkio buruan bueltaka; beraren hurbiltasuna biziki sentitzen du. Iritsiko ote da bere obra koroatzera? Sendatzen bada, agian bai. Aurtengo udaldia Karlsbadeko mainuetxean emango du berriro, aurten Tussy gabe zoritxarrez, gerestiegia baita joanetoria...

1875ean, politika mailako gertaera guztiz garrantzitsua gertatu zen Alemanian: Alderdi Sozialistaren bi sektoreak, «marxistak» —eisenachtarrak deituak, Bebel, Liebknecht— eta «lassalletarrak» elkartu egin ziren. Laster indar haundia hartuko zuen Alderdi berri honen programa Gotha izeneko herriskan idatzi zen. Arrakasta hain itzeleko «Gothako Programa» honi teorikoki nahasia eta lotsagarria zerizkion Marxek, eta glosa marjinal batzuk erantsi zizkion: *Gothako Programaren Kritika*, garrantzi haundiko izkribu teorikoa<sup>22</sup>.

1876ko maiatzean Dühringen auzia sortu zen. Berlineko Unibertsitateko irakasle honen eraginak Alderdi Sozialista berriaren batasuna arriskuan ipintzen zuela iruditu zitzaion W. Liebknechti, eta haren kontra, ahalik lasterren, agiri bat pranta zezala eskatu zion Engelsi. Hau, Marxek eman zion bultzadarekin, «bataila ematera prestatu» zen segituan, nahiz eta horretarako *Naturalezaren Dialektikaren* idazketa alde batera utzi behar izan. Marxek berak moldatu ei zion X kapitulu<sup>23</sup>.

Marx ez zen geldi egoteko egina. Azkenengo urteetan ere, ez zituen politika eta teorigintza erabat baztertu eta utzi. 1879an, aktiboki lagundu zien Guesde eta Lafargueri Langile Alderdi frantsesa fundatzen eta bere programa idazten.

Liburu mordo haundia —mila bolumenetik gora zituen etxean— irakurri zuen ekonomia, matematika, natur zientziak, Errusia eta gizarte primitiboek buruz. Ehundaka orri idatzi zituen, matematika eta ekonomia politikoaz batipat. Baina, azkenean, *Kapitala*, bere bizialdiko lana erabat burutzeke hil zen Marx. Eskuizkribu franko utzi zuen baina ez ziren bera bizi zelarik argitara eman. Beharbada, lan gehiegi zen gizon bakar batentzako; ez zen, seguraski, osasun kontua bakarrik izan. Bizitzaren azkenaldian, errusiar iraultzaileekin harreman estuak izan zituen, errusiar nekazaritza eta hizkuntza bera ikasiz.

Historiaren explikabideak bilatzea zen Marxen helburua, eta ez «munduikuserarik» edo Filosofi Sistema orohartzailerik eraikitzea. Engelsek Werner Sombart ekonomilari entzutetsuari esan zion legez,

<sup>22</sup> K. Marx, *Critica del Programa de Gotha*, Ed. Materiales, Barcelona, 1978. Gustavo Muñozen hitzaurre argigarria darama.

<sup>23</sup> F. Engels, *Anti-Dühring*, Grijalbo, Mexico, 1964. «Marxismoaren enziklopediartzat» joa izan da. «Marxismoaren» sorrera puntu eta unetzat dauka zenbaitek. Izan ere, «marxismoaren» sistemaketa Engelsi zor zaio gehienbat; Marxen heriotzaren ondoren, beraren segida hartuz, «engelsismoa» delakoaren aldia hasten da. P. Lafarguek eskaturik, liburu honetatik hiru kapitulu moldatu zituen Engelsek liburuxka baterako. Ik. *Sozialismoaren aurrerabidea Utopiatik Zientziara*, Mugalde, Hendaia, 1975. X. Kintanak ederki itzulia.

marxismoa aztermetodua da eta ez dogmarik: «Marxen pentsabidea ez da doktrina bat, metodo bat da. Ez du aurreprestatutako dogmarik eskaintzen, geroko ikerketetarako abiapuntuak eta ikerketa honen azterpidea baizik». Marxek berak esan zion bein Lafargueri, bere izeneko «eskolastika» berriari uko eginez: «Neri dagokidanez, ni ez naiz marxista». Engelsek ere gauza bera:

*Gure teoria eginez doan teoria bat da, ez buruz ikasi beharreko dogma bat.*

1881eko abenduaren 2an hil zen Jenny, gibekeko minbiziak jota, azken hitzok esaten zituela: «Karl, indar guztiak joan zaizkit». 68 urte egin berriak zituen. Karlek, fisiko eta moralki ahuldu eta indargabeturik, ez zuen hiletetara joaterik izan, ezta Jennychenek ere. Laura eta Eleanor hantxe ziren, eta Engelsek mintzaldi llabur bat zuzendu zuen beraren oroimenez.

Gaitzak eta atsekabeak hartuta, Wighteko irlara joan behar izan zuen Marxek sendatzera. Irlatik itzulian, medikuen esanak betez, Argenteuil, Argel, Montecarlo eta Suitzan zehar ibili zen, hara eta hona, eguzki bero bila. Baina guztia alferrik, ez osasunik ez atsedunik aurkitu zuen eta. Ezin zuen une batez ere ahaztu berari hain atxikirik bizi izan zitzaion Jenny maitea!

Beraren alaba Jenny bixikako kantzerrez hil zen 1883ko urtarrilaren 11ean, 5 haur utziz —lau hilabetekoa bat—. Haren heriotza gertatuz gero, etsipenak menderatu zuen Marx. Ez zen ezertarako gauza, irakurtzeko ere adorerik ez zuen. Emaztea eta alabaren heriotza bere akabua izan zen. Biriketako tumorra zabalduz zihoakion, eta poliki-poliki iraungi egin zen.

1883ko martxoaren 14ean, arratsaldeko ordubi t'erdia aldean, beti bezala, adiskide min eta leialari bixita egitera etorri zitzaion Engels. Amaiera zen. Lenchen eta biak gelara sartu zirenean, jadanik loak hartua zegoen Marx, ikasmahaiaren aurrean exerita, inolako sufrimenik gabe. «Pentsatzaile bizietan haundienak» emana zuen bere azken arnasa, 65 urte zituela.

Hiletak martxoaren 17an ospatu ziren. Gorpua Highgateko kanposantuan ehortzia izan zen, emazte zenarenaren ondoan. Eleanor, Helene Demuth eta Engelsekin batera, Longuet, Lafargue, Liebknecht eta beste zenbait lagun bildu ziren azken agurra ematera. Laurak ez zuen etortzerik izan. Engelsek, malko batzuk uxatu ezinik, hitzalditxo gogoangarri bat egin zuen Marxen ohoretan. Marx teorilari jakintsua eta, ororen gainetik, iraultzailea izan zela esan zuen, honako hitzokin amaituz: «Beraren izena eta obra menderen mendetan biziko dira».

Highgateko kanposantuan, 1956an eraikitako marmolezko pantheonian, *Manifestuko* esaldi sonatu hura aurkitzen da idatzita:

*Herrialde guztietako proletariok, elkar zaitetze!*

## BIBLIOGRAFIA

- Marx, Karl; Engels, Friedrich: *Werke Schriften, Briefe*, Frankfurt, Berlin, Moscú, 1927-1935.
- Marx, Karl, Engels, Friedrich: *Werke*, 36 tomo, Berlín, Institut für Marxismus-Leninismus, 1958, birrarg. 1961.
- Karl Marx und Friedrich Engels Gesamtausgabe* (MEGA), Berlín, Institut für Marxismus-Leninismus, argitarabidean 1975az gero.
- Espainieraz, Marxen idazlanak editorial desberdinetan sakabanaturik aurkitzen dira. Argitarabidean dago Manuel Sacristanek zuzenduriko *Obra de Marx y Engels* (OME), Barcelona, Grijalbo, 1976tik aurrera (68 t.).
- Aguirre, J. eta beste: *Cristianos y marxistas: los problemas de un diálogo*, Madrid, 1969.
- Alberdi, R.-Belda, R.: *Introducción crítica al estudio del marxismo*, CEASO, Madrid.
- Althusser, L.: *La revolución teórica de Marx*, Siglo XXI, México, 1968.
- Althusser, L.-Balibar, E.: *Para leer «El Capital»*, Siglo XXI, Madrid, 1969.
- Anderson, P.: *Consideraciones sobre el marxismo occidental*, Siglo XXI, Madrid, 1979.
- Aranguren, J. L.: *El marxismo como moral*, Alianza, Madrid, 1968.
- Arico, J.: *Marx y América Latina*, Alianza, Madrid, 1982.
- Askoren artean: *Bibliografía sobre marxismo y revolución*, Dédalo, Madrid, 1977.
- Azurmendi, J.: *Hizkuntza, Etnia eta marxismoa*, E. Elkargoa, Baiona, 1971.
- Azurmendi, J.: *Kultura proletarioaz*, Jakin, Arantzazu, 1973.
- Azurmendi, J.-Arregi, J.: *Kolakowski*, Jakin, Arantzazu, 1972.
- Assman, H.-Mate, R.: *Sobre la Religión*, Sigeme, Salamanca, 1974.
- Bachelard, G.: *La formación del espíritu científico*, Siglo XXI, Madrid, 1972.
- Balibar, E.: *Sobre la dictadura del proletariado*, Siglo XXI, Madrid, 1977.
- Balibar, E.: *Cinco ensayos de materialismo histórico*, Laia, Barcelona.
- Baudrillard, J.: *El espejo de la producción*, Gedisa, Barcelona, 1980.
- Bekerman, G.: *Vocabulario básico del marxismo*, Grijalbo, Barcelona, 1983.
- Berlín, I.: *Karl Marx*, Alianza, Madrid, 1973.
- Bermudo Avila, J. M.: *El concepto de Praxis en el joven Marx*, Península, Barcelona, 1975.
- Bermudo Avila, J. M.: *Engels contra Marx*, Universidad Barcelona, 1976.
- Bermudo Avila, J. M.: *Filosofía Marxista*, Madragora, Barcelona, 1976.

- Bermudo Avila, J. M.: *Conocer Engels*, Dopesa, Barcelona, 1979.
- Bloom, S. F.: *El mundo de las naciones*, Buenos Aires, Siglo XXI, 1975.
- Blumenberg, M.: *Karl Marx, en documentos propios*, Edicusa, Madrid, 1970.
- Bruhat, J.: *Karl Marx et Friedrich Engels*, Ed. Comlexes, Paris, 1970.
- Bunge, M.: *La investigación científica*, Barcelona, Ariel, 1969.
- Bunge, M.: *Materialismo y ciencia*, Ariel, Barcelona, 1981.
- Calvez, J. Y.: *El pensamiento de Carlos Marx*, Taurus, Madrid, 1958.
- Carr, E. H.: *Historia de la Rusia soviética*, Alianza, Madrid, 1979.
- Claudín, F.: *La crisis del movimiento comunista*, Ruedo Iberico, Paris, 1970.
- Claudín, F.: *Marx, Engels y la revolución de 1848*, Siglo XXI, Madrid, 1975.
- Cole, G.: *Historia del pensamiento Socialista*, FCE, México, 1957-1963.
- Colletti, L.: *El marxismo y Hegel*, Grijalbo, México, 1977.
- Cornu, A.: *Carlos Marx-Federico Engels*, I. del Libro, La Habana, 1967.
- Chalmers, A. F.: *Qué es esa cosa llamada ciencia*, Siglo XXI, Madrid, 1982.
- Davis, H. B.: *Nacionalismo y socialismo*, Editions 62, Barcelona.
- Della Volpe, G.: *Rousseau y Marx*, M. Roca, Barcelona, 1970.
- Delperrie, J.: *La vie de Karl Marx*, J. C. Lattès, Paris, 1979.
- Desroches, H.: *Marxisme et religions*, Paris, 1962.
- Elleinstein, J.: *Marx, sa vie, son oeuvre*, Fayard, Paris, 1981.
- Engels, F. eta beste: *Marx como hombre, pensador y revolucionario*, Barcelona, 1976.
- Garate, G.: *Marxen Marxismoa*, Etor, Bilbao, 1971.
- Garate, G.: *Marx eta nazioa*, Gero, Bilbao, 1972.
- Garate, R.: *Lanaren antropologia*, Gero, Bilbao, 1973.
- Garaudi: *Karl Marx*, Seghers, Paris, 1965.
- Gouldner, A. W.: *Los dos marxismos*, Alianza, Madrid, 1983.
- Guichard, J.: *El marxismo*, Desclée de Brouwer, Bilbao, 1975.
- Grandjonc, S.: *Marx et les communistes allemands à Paris*, Maspero, Paris, 1974.
- Habermas, J.: *La reconstrucción del materialismo histórico*, Taurus, Madrid, 1981.
- Harnecker, M.: *Los conceptos elementales del materialismo histórico*, Siglo XXI, Madrid, 1973.
- Harnecker, M.: *El Capital: conceptos fundamentales*, Siglo XXI, Madrid, 1974.
- Harrison, J.: *Economía marxista para socialistas*, Grijalbo, Barcelona, 1980.
- Haupt, G. eta beste: *Los marxistas y la cuestión nacional*, Fontamara, Barcelona, 1982.
- Havemann, R.: *Dialéctica sin dogma*, Ariel, Barcelona, 1971.


- Heller, A.: *Teoría de las necesidades en Marx*, Península, Barcelona, 1978.
- Henry, M.: *Marx*, Gallimard, París, 1976.
- Hobsbawm, J. E. eta beste: *Historia del marxismo*, Bruguera, Barcelona, 8 t.
- Hook, S.: *La génesis del pensamiento filosófico de Marx*, Barral, Barcelona, 1974.
- Irala, A.: *Bat bitan banatzen da*, Etor, Donostia, 1975.
- Iztueta, P.-Apalategi, J.: *Marxismo eta nazional arazoa Euskal Herrian*, Elkar, Baiona, 1974.
- Jouvenal, B.: *Marx et Engels, La longue Marche*, Julliard, París, 1983.
- Kolakowski, L.: *Las principales corrientes del marxismo*, Alianza, Madrid, 1980.
- Kapp, I.: *Eleanor*, Editions Sociales, París, 1980.
- Korsch, K.: *Karl Marx*, Ariel, Barcelona, 1978.
- Kuhn, T. S.: *La estructura de las revoluciones científicas*, FCE, México, 1975.
- Labica, G. eta beste: *Dictionnaire critique du marxisme*, PUF, París, 1982.
- Laclau, E.: *Política e ideología en la teoría marxista*, Siglo XXI, Madrid, 1978.
- Lakatos, I.: *La metodología de los programas de investigación científica*, Alianza, Madrid, 1983.
- Leconte, D.: *Marx et le varon d'Holbach*, PUF, París, 1983.
- Lefebvre, H.: *Síntesis del pensamiento de Marx*, Nova Terra, Barcelona, 1971.
- Löwy, M.: *La teoría de la revolución en el joven Marx*, Siglo XXI, Madrid, 1972.
- Mc. Lellan, D.: *Karl Marx: su vida y sus ideas*, Grijalbo, Barcelona, 1977.
- Mc. Lellan, D.: *Marx y los jóvenes hegelianos*, M. Roca, Barcelona, 1971.
- Mandel, E.: *La formación del pensamiento económico de Marx*, Siglo XXI, Madrid, 1974.
- Markovits, F.: *Marx en el jardín de Epicuro*, Barcelona, Madrágora, 1976.
- Martinez Marzoa, F.: *La filosofía de El Capital*, Taurus, Madrid, 1983.
- Mehring, F.: *Karl Marx*, Editions Sociales, París, 1983.
- Miliband, R.: *Marxismo y política*, Siglo XXI, Madrid, 1978.
- Negri, T.: *Marx oltre Marx*, Feltrinelli, Milán, 1979.
- Nicolaievski, B.: *La vie de Karl Marx*, Gallimard, París, 1970.
- Pagola, M.: *Marx eta erlijioa*, Donostia, 1971.
- Papaioannou, K.: *De Marx et du marxisme*, Gallimard, París, 1983.
- Pasukanis, E.: *Marxismo y teoría general del derecho*, Labor, Madrid, 1976.
- Poulantzas, N.: *Poder político y clases sociales en el Estado Capitalista*, Siglo XXI, Madrid, 1972.

- Poulantzas, N.: *Las clases sociales en el capitalismo actual*, Siglo XXI, Madrid, 1977.
- Poulantzas, N.: *Estado, poder y socialismo*, Siglo XXI, Madrid, 1979.
- Recalde, J. R.: *La construcción de las naciones*, Siglo XXI, Madrid, 1982.
- Riazanov, D.: *Marx y Engels*, A. Corazón, Madrid, 1975.
- Rosdolski, R.: *F. Engels y el problema de los pueblos «sin historia»*, México, 1980.
- Rossi, M.: *La génesis del materialismo histórico*, Madrid, 1971.
- Rubel, M.: *Karl Marx*, Paris, 1957.
- Sacristán, M.: *Sobre Marx y marxismo*, Icaria, Barcelona, 1983.
- Sánchez Vázquez, A.: *Filosofía y Economía en el joven Marx*, Grijalbo, México, 1982.
- Sánchez Vázquez, A.: *Filosofía de la praxis*, Grijalbo, Barcelona, 1980.
- Schmidt, A.: *El concepto de Naturaleza en Marx*, Siglo XXI, Madrid, 1977.
- Therborn, G.: *Ciencia, clase y sociedad*, Siglo XXI, Madrid, 1980.
- Torrealday, J. M.: *Iraultzaz*, Jakin, Arantzazu, 1973.
- Ugalde, M.: *Langileria historian zehar*, Etor, Bilbao, 1971, 2 t.
- Vilar, P.: *Iniciación al vocabulario del análisis histórico*, Grijalbo, Barcelona, 1980.
- Vranicki, P.: *Historia del marxismo*, Sigueme, Salamanca, 1977.
- Zanardo, A.: *Historia del marxismo contemporáneo*, Avance, Barcelona, 1976.
- Zeleny, J.: *La estructura lógica de El Capital*, Grijalbo, Barcelona, 1974.

## MARXEN BIZITZA ETA OBRA NAGUSIAK

- 1818 Marxen jaiotza  
1820 Engelsen jaiotza  
1830 Treveriseko lizeoan ikasketak  
1835 Bonn eta Berlineko Unibertsitateetan Deretxo eta Filosofi ikasketak. Ezker hegelzalea.  
1841 Doktoradutzako Tesia Jena Filosofi Fakultatean: *Naturaren Filosofiaren diferentzia Demokrito eta Epikurorengan*  
1842 *Rhenaniako Kazeta* egunkarian lankide lehenengo eta zuzendari gero  
1843 *Rhenaniako Kazeta galerazia*. Marxen ezkontza Jenny von Westphaleneekin. Parisera erbesteratua. *Hegelen Deretxo Filosofiaren Kritika* (1927 arte argitaragabea). *Franko-aleman Urtekarrien* eragile. *Judu arazoaz*  
1844 Zuzenen Liga. Proudhon, Bakunin eta Engelsekin ezagupidea. *1844eko Eskuizkribuak* (1932an argitara emana). *Familia Santua*, Engelsekin batera.  
1845 *Aleman Ideologia* (1932an argitaratua)  
1847 *Filosofiaren Miseria*. Komunisten Ligan sartzen da.  
1848 Engels eta biak elkarrekin, *Alderdi Komunistaren Manifestua*. Masa errebolta iraultzaileak Europa osoan. Belgikatik jaurtikia, Parisera eta hemendik Alemaniara. *Rhenaniako Kazeta Berria*  
1849 Londredera, betiko  
1850 *Frantziako klase burrukak*  
1852 *L. Bonaparteren Brumarioaren 18a*  
1853 *Coloniako komunisten prozesuari buruzko errebelazioak*  
1857 *Ekonomia politikoaren Kritikaren Sarrera*  
1859 *Ekonomia politikoaren Kritikari buruz*  
1860 *Vogt Jauna*  
1864 Lehen Internazionalaren sorrera  
1865 *Alokairua, prezioa eta irabazia*  
1867 *Kapitala* lehen liburua  
1871 *Frantziako gerra zibila*  
1875 *Gothako Programaren Kritika*  
1881 Jenny, kantzerrez hil  
1882 Gaitzak jota, Argenteuil, Argel, Montecarlo eta Suitzara osasun bila  
1883 Marxen heriotza, martxoaren 14ean  
1885 *Kapitala* bigarren lomoa  
1894 *Kapitala* hirugarren tomoa  
1895 Engelsen heriotza

**MARXEN ZUHAFI**





# ENEALOGIKOA

